Ikerketa beka
JOSE IGNACIO RUIZ OLABUENAGA
Beca de investigación

# Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren hauteskunde-portaeraren azterketa (2005-2020).

## Jarraitutasunak eta etenak XXI. mendean zehar

# Análisis del comportamiento electoral de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco (2005-2020).

## Continuidades y discontinuidades durante el siglo XXI


euskal soziologia eta zientzia politikoaren elkartea
asociación vasca de sociología y ciencia política

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

| | |
|---|---|
| **Jatorrizko obra:** | **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren hauteskunde-portaeraren azterketa (2005-2020). Jarraitutasunak eta etenak XXI. mendean zehar** |
| Obra original: | Análisis del comportamiento electoral de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco (2005-2020). Continuidades y discontinuidades durante el siglo XXI. |
| **Argitaraldia:** | **1.a 2025eko maiatza** |
| Edicion: | 1ª, mayo 2025 |
| **Ale-kopurua** | **310 ale** |
| Tirada: | 310 ejemplares |
| © | **Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Lehendakaritza**<br>Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Presidencia |
| **Internet:** | www.euskadi.eus/argitalpenak |
| **Argitaratzailea** | **Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia** |
| Edita: | Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia/San Sebastián kalea 1. 01010 Vitoria-Gasteiz |
| **Egileak:**<br>Autoras/es: | Galder Sierra Zapirain |
| **Gaztelaniara itzultzea:**<br>Traducción al castellano: | Oskar Longo Imatz |
| **Azala marraztea, maketazioa eta inprimaketa:**<br>Diseño de portada, maquetación e impresión: | Printhaus |
| **ISBN:** | 978-84-457-3813-9 |
| **Lege-gordailua:**<br>Depósito Legal: | LG G 187-2025 |

IV. Ikerketa beka
JOSE IGNACIO RUIZ OLABUENAGA
IV. Beca de investigación

# Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren hauteskunde-portaeraren azterketa (2005-2020).

## Jarraitutasunak eta etenak XXI. mendean zehar

# Análisis del comportamiento electoral de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco (2005-2020).

## Continuidades y discontinuidades durante el siglo XXI

Galder Sierra Zapirain

euskal soziologia eta zientzia politikoaren elkartea
asociación vasca de sociología y ciencia política

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA — PRESIDENCIA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2025

# Aurkibidea


**1. Sarrera ........ 9**

**2. Helburuak eta hipotesiak ........ 13**

**3. Marko teorikoa ........ 20**

**4. Aurrekariak ........ 26**

**5. Metodologia ........ 30**

**6. Testuingurua ........ 39**

**7. Emaitzak ........ 46**

7.1. Alderdi politikoen bilakaera dimentsio nazionalistan eta ideologikoan ........ 46

7.2. Alderdi ezberdinetako bozkatzaileen gutxieneko distantziak beraien alderdiarekiko ardatz nazionalistan eta ideologikoan ........ 52

7.3. Alderdi politiko ezberdinen bozka osagaiak ........ 77

**8. Ondorioak ........ 101**

**9. Erreferentzia bibliografikoak 110**

**10. Eranskinak ........ 120**


# Índice


**1. Introducción ........ 9**

**2. Objetivos e hipótesis ........ 13**

**3. Marco teórico ........ 20**

**4. Antecedentes ........ 26**

**5. Metodología ........ 30**

**6. Contexto ........ 39**

**7. Resultados ........ 46**

7.1. Evolución de los partidos políticos en las dimensiones nacionalista e ideológica ........ 46

7.2. Distancias mínimas de los electorados de los diferentes partidos respecto a sus partidos en las dimensiones nacionalista e ideológica ........ 52

7.3. Componentes de voto de los diferentes partidos políticos ........ 77

**8. Conclusiones ........ 101**

**9. Referencias bibliográficas ........ 110**

**10. Anexos ........ 120**

# Taulen eta grafikoen aurkibidea

Taula 1. Erregresio logistikoetarako erabiliko diren aldagai askeen zerrenda multzokatua. ........................36

Taula 2. Alderdi ezberdinen 2005eko gutxieneko distantziak ehunekotan (%)........................................58

Taula 3. Alderdi ezberdinen 2009ko gutxieneko distantziak ehunekotan (%)........................................63

Taula 4. Alderdi ezberdinen 2012ko gutxieneko distantziak ehunekotan (%)........................................68

Taula 5. Alderdi ezberdinen 2016ko gutxieneko distantziak ehunekotan (%)........................................72

Taula 6. Alderdi ezberdinen 2020ko gutxieneko distantziak ehunekotan (%)........................................74

Taula 7. Aldagai esanguratsuak alderdi ezberdinetako bozkatzaileen hauteskunde portaeran 2005ean ..........................................................81

Taula 8. Aldagai esanguratsuak alderdi ezberdinetako bozkatzaileen hauteskunde portaeran 2009an..........................................................86

Taula 9. Aldagai esanguratsuak alderdi ezberdinetako bozkatzaileen hauteskunde portaeran 2012an ..........................................................90

# Índice de tablas y gráficos

Tabla 1. Listado de variables independientes agrupadas que se utilizarán para las regresiones logísticas ..................................................................36

Tabla 2. Distancias mínimas de los diferentes partidos en 2005 en porcentajes (%) ............................................58

Tabla 3. Distancias mínimas de los diferentes partidos en 2009 en porcentajes (%) ............................................63

Tabla 4. Distancias mínimas de los diferentes partidos en 2012 en porcentajes (%) ............................................68

Tabla 5. Distancias mínimas de los diferentes partidos en 2016 en porcentajes (%) ........................................................72

Tabla 6. Distancias mínimas de los diferentes partidos en 2020 en porcentajes (%) ............................................74

Tabla 7. Variables significativas en el comportamiento electoral de los votantes de los diferentes partidos en 2005.................................................81

Tabla 8. Variables significativas en el comportamiento electoral de los votantes de los diferentes partidos en 2009.........................................86

Tabla 9. Variables significativas en el comportamiento electoral de los votantes de los diferentes partidos en 2012...........................................90

Taula 10. Aldagai esanguratsuak alderdi ezberdinetako bozkatzaileen hauteskunde portaeran 2016an ........ 94

Tabla 10. Variables significativas en el comportamiento electoral de los votantes de los diferentes partidos en 2016 ........ 94

Taula 11. Aldagai esanguratsuak alderdi ezberdinetako bozkatzaileen hauteskunde portaeran 2020an ........ 99

Tabla 11. Variables significativas en el comportamiento electoral de los votantes de los diferentes partidos en 2020 ........ 99

1. Eranskina. Aztertutako bost alderdi nagusien emaitzen bilakaera EAEko hauteskunde autonomikoetan ehunekotan adierazita 1980tik 2020ra bitarte ........ 120

Anexo 1. Evolución porcentual de los resultados de los cinco grandes partidos analizados en las elecciones autonómicas de la CAPV de 1980 a 2020 ........ 120

2. Eranskina. Aztertutako bost alderdi nagusien emaitzen bilakaera EAEko hauteskunde autonomikoetan eserlekuetan adierazita 1980tik 2020ra bitarte ........ 121

Anexo 2. Evolución de los resultados de los cinco principales partidos analizados expresados en escaños en las elecciones autonómicas de la CAPV entre 1980 y 2020 ........ 121

Irudia 1. EAEko alderdietako bozkatzaileen atxikimenduaren bilakaera euskal nazionalismoarekiko (2005-2020) ........ 50

Figura 1. Evolución de la adhesión de los votantes de los partidos de la CAPV al nacionalismo vasco (2005-2020) ........ 50

Irudia 2. EAEko alderdietako bozkatzaileen atxikimenduaren bilakaera ezker-eskuin ardatzarekiko (2005-2020) ........ 52

Figura 2. Evolución de la adhesión de los votantes de los partidos de la CAPV al eje izquierda-derecha (2005-2020) ........ 52

Irudia 3. Alderdi ezberdinetako bozkatzaileen gutxieneko distantzien bilakaera (2005-2020) ........ 76

Figura 3. Evolución de las distancias mínimas de los votantes de los diferentes partidos (2005-2020) ........ 76

# 1. Sarrera

XXI. mende honetako bi hamarkada luzeek izaera politiko, sozial, ekonomiko edo kulturaleko aldaketa ugari ekarri dituzte. Horietako batzuk izaera globalekoak. Esangura handiko horietako batzuk aipatzearren, digitalizazio prozesuak gure bizitzetan izandako eragin sakona; mundu mailan ezagutzen ari garen migrazio dinamikak, eta horiei lotutako ondorioak; aldaketa klimatikoa eta oraindik aurreikusi gabeko bere bilakaera; edota, "jendarte gai berriak" deitu direnen artean, batzuek hartutako indarra, feminismoa horietako nagusietako bat izan daitekeelarik. 2008tik aurrera garatutako Atzeraldi Ekonomikoaren ondotik kateatutako krisi sozio-ekonomiko ezberdinek ere (COVID-aren pandemiak, nazioarteko gerrate ezberdinek...) aldaketa horien lekukotasun zuzena utzi digute. Alde horretatik, ziurgabetasunaren sentsazio bat zabaltzen joan da jendartean zehar, lurra gure oinen azpian mugitzen ari denaren irudipena indartuz. Duela gutxira arte, egi ukaezina zen heldulekua, ahul agertzen zaigu orain, errealitatea interpretatzeko ikuspegi berrien beharra azaleratuz.

Maila globalean, jendarte gutxi izango dira aldaketa prozesu horietatik kanpo gelditu (eta gelditzen ari) direnak. Baina baditugu

# 1. Introducción

Multitud de cambios de carácter político, social, económico o cultural han ido operando durante las más de dos décadas de este siglo XXI. Algunos de ellos de carácter global. Por mencionar algunos de los más notables, el profundo impacto del proceso de digitalización en nuestras vidas; las dinámicas migratorias que estamos conociendo a nivel mundial, y sus consecuencias; el cambio climático y su desarrollo aún no previsible; o, la fuerza adquirida por algunos de los llamados "nuevos temas sociales", entre los que el feminismo puede ser uno de los principales. También las diferentes crisis socioeconómicas encadenadas tras la Recesión Económica desarrollada a partir de 2008 (pandemia de la COVID-19, diferentes guerras internacionales...) nos han dejado testimonio directo de estas transformaciones. En este sentido, cierta sensación de incertidumbre se ha ido extendiendo en la sociedad, reforzando la impresión de que la tierra se está moviendo bajo nuestros pies. Hasta hace poco, el asidero que era una verdad incuestionable, ahora se nos muestra débil, aflorando la necesidad de nuevas perspectivas para interpretar la realidad.

A nivel global, son pocas las sociedades que se han quedado (y se están quedando) fuera de estos procesos de transformación. Pero

gure ingurune hurbilean ere propio ematen ari diren hainbat aldaketa. Gure lurraldeetan elkar-bizi diren identitate politiko, kultural eta sozial ezberdinen eraldaketak; herri honen ehun produktiboan emandako transformazioa; edota euskararen normalizazioa prozesuan emandako bilakaera, horietako batzuk izan daitezke. ETAren bukaerak eta horri lotutako ondorio ezberdinek leku berezia beharko lukete mende honetan emandako aldaketa esanguratsuenen artean.

también se están produciendo cambios que se están dado expresamente en nuestro entorno más cercano. La transformación de las diferentes identidades políticas, culturales y sociales que conviven en nuestro territorio; la transformación en el tejido productivo de este país; o la evolución en el proceso de normalización del euskera, pueden ser algunas de ellas. El final de ETA y sus diferentes consecuencias ocuparían un lugar destacado entre los cambios más significativos dados en este siglo.

Esan gabe doa, aldaketa hauek guztiek, globalek eta partikularrek, eragin zuzena (izan) dutela Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) sistema politikoan. Horren erakusgarri, aztertuko dugun epealdian hiru lehendakari egon izana dira, bi alderdi ezberdinetakoak; alderdi politiko eta koalizio berriak sortu izana, alderdi politikoen sistema berregituratuz; edota alderdi bakoitzaren indar korrelazioa ere aldatu izana. Baina guztiak ez dira eraldaketak izan; jarraikortasun hariak ere topatu daitezke, eta horiei ere erreparatu behar zaie.

Es evidente que todos estos cambios, globales y particulares, tienen una incidencia directa en el sistema político de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV). Muestra de ello, que en el periodo que vamos a analizar, haya habido tres lehendakaris diferentes, de dos partidos diferentes; que se hayan creado nuevos partidos políticos y coaliciones, reestructurando el sistema de partidos políticos; o que la correlación de fuerzas de cada partido también haya ido cambiando. Pero no todo han sido cambios; también se pueden encontrar hilos de continuidad, y hay que fijarse en ellos.

David Easton-ek (1965) duela sei hamarkada baino gehiago erakutsi bezala, jendartea eta sistema politikoaren arteko harreman horretan, aldaketa prozesuek sistema politikoari zuzendutako eskaera sozial edo *input*-ei forma ematen diete. Era berean, siste-

Tal y como planteó David Easton (1965) hace ya más de seis décadas, en esa relación entre sociedad y sistema político, los procesos de cambio dan forma a demandas sociales o *inputs* dirigidos al sistema político. Asimismo, los sistemas políticos recogen

ma politikoek eskaera hauek jaso eta era ezberdinetako emaitza edo *output*-etan (legeak, egitasmoak, aurrekontuak...) bihurtzen dituzte, jendartearengatik ebaluatuak, kritikatuak edo babestuak izaten direlarik. Jendartea eta sistema politikoa; etengabean era zirkularrean elkarri eragin dioten elementuak. XX. mendearen bigarren erdialdean zehar mundu mailan zabaltzen joan ziren demokrazia liberalen nagusitzearekin, hauteskundeak eskaera edo *input* horiei bide emateko tresna nagusietako bat bihurtu ziren; ez bakarrak. Alde horretatik, herritarron hauteskunde-portaera (edota zergatik bozkatzen dugu, bozkatzen duguna), Zientzia Politikoaren ikergai kuttunenetako bat bihurtu da. Bada ikerketa honek, izaera globaleko prozesu hori era lokalean aztertu nahi du. Zentzu horretan, EAEko biztanleriaren bozkaren atzean zer nolako arrazoiak egon diren arakatu nahi da, arestian aipatutako eraldaketa hauek (eta aipatu gabe gelditu diren beste hainbeste) bozka nola baldintzatu duten aztertuz; baina baita ibilbide horretan egondako jarraipenak ere.

Horretarako, lan honek ondorengo egitura izango du. Sarrera hau eginda, ondorengo atalean, arestian aipatutako helburu orokor horri atxikita agertzen zaizkion helburu espezifiko eta hipotesiak azalduko dira. Jarraian, erabilitako marko teorikoa eta aukeratutako ikerketa-gaiaren aurrekariak

estas demandas y las transforman en resultados o *outputs* (leyes, proyectos, presupuestos...), siendo evaluados, criticados o apoyados por la sociedad. Sociedad y sistema político; elementos que interactúan constantemente de forma circular. Con el predominio de las democracias liberales, que fueron extendiéndose a lo largo de la segunda mitad del siglo XX, las elecciones se convirtieron en uno de los principales instrumentos para dar cauce a esas demandas o *inputs*; no los únicos. En este sentido, el comportamiento electoral de la ciudadanía (o por qué votamos, lo que votamos) se ha convertido en uno de los temas de investigación predilectos de la Ciencia Política. Pues bien, este trabajo pretende analizar de forma local, este fenómeno de carácter global. En este sentido, se pretende analizar las razones que han estado detrás del voto de la población de la CAPV, analizando cómo han condicionado el voto las transformaciones anteriormente citadas (y otras que no se han mencionado); pero también las continuidades habidas en este recorrido.

Para ello, este trabajo tendrá la siguiente estructura. Una vez realizada esta introducción, en el siguiente apartado, se expondrán los objetivos específicos e hipótesis relacionados con el citado objetivo general. A continuación, se expondrá el marco teórico utilizado y los antecedentes del tema de

azalduko dira. Ondoren, erabilitako metodologiak eta teknikak. Azterketa enpirikoan sartu baino lehen, aztertuko diren hauteskunde autonomikoen deialdien inguruabar orokorra eta jasotako emaitzen lerroburu nagusiak bilduko dira, jarraian azalduko diren datuei testuingurua jarri eta beraiek ulertzen lagundu dezaten. Era horretan, datuen analisiarekin jarraituko da, finkatutako helburu espezifikoen arabera antolatuko direnak. Bukatzeko, ateratako ondorio orokorrak laburbilduko dira.

investigación elegido. Después, las metodologías y técnicas utilizadas. Antes de entrar en el análisis empírico, se recogerá el contexto general de las convocatorias de las elecciones autonómicas que se van a analizar y los principales titulares de los resultados obtenidos, con el fin de contextualizar los datos que se expondrán a continuación y facilitar su comprensión. De esta forma, se continuará con el análisis de los datos, que se organizarán de acuerdo con los objetivos específicos descritos. Para finalizar, se resumirán las conclusiones generales obtenidas.

# 2. Helburuak eta hipotesiak

Jarraian sakonduko den bezala, EAEko biztanleriaren hauteskunde-portaeraren azterketa lan askoren xede izan da azken urte luzeetan. Horietako gehienak bi ardatzen eraginaren arabera aztertu dute zergatik euskal biztanleek bozkatu duten, egin duten bezala: batetik, zentro-periferia *cleavage-a*ren logikan kokatuko litzatekeen (euskal) nazionalismoaren arabera; eta bestetik, lana-kapitala *cleavagearen* baitan kokatuko litzatekeen ezker-eskuin ardatz edo dimentsio ideologikoaren arabera. Lan horietatik abiatuko da ikerketa hau, baina urrats bat harago joaten saiatuz. Horretarako, aurreko atalean aipatutako jarrera elektoralaren azterketaren helburu orokorrari, hiru helburu zehatz erantsiko zaizkio:

- Batetik, EAEko bost *familia politiko*[1] nagusiak ordezkatzen dituzten alderdi politikoen bilakaera aztertzea, bi ardatz horietan izan duten kokapenaren arabera. Zehazki, 2005tik 2020ra doazen Eusko Legebiltzarrerako bost hauteskundeetara aurkeztutako EAJ-

1 'Familia politikoaren' kontzeptua Della Porta eta Rucht-ek (1995) egindako hurbilpenetik egokitu dugu, bera "mundu ikuskera bera duten mugimenduen taldea" bezala definitzen dutenean. Izan ere, ohiko familietan bezala, kide ezberdinen sartu-irtenak egon ohi badira ere, denboran zeharreko iraunkortasuna bermatzen duen gunea baita funtsezkoena.

# 2. Objetivos e hipótesis

Como se profundizará a continuación, el análisis del comportamiento electoral de la población de la CAPV ha sido objeto de numerosos trabajos durante los últimos años. La mayoría de ellos han analizado por qué la población vasca ha votado, lo que ha votado, en función de la influencia de dos ejes: por un lado, el nacionalismo (vasco), que se situaría en la lógica del *cleavage* centro-periferia; y por otro, el eje izquierda-derecha o dimensión ideológica, que se situaría en el *cleavage* capital-trabajo. Esta investigación partirá de estos trabajos, pero intentando ir un paso más allá. Para ello, al objetivo general del análisis del comportamiento electoral a que se refiere el apartado anterior, se incorporarán tres objetivos específicos:

- Por un lado, analizar la evolución de los partidos políticos que representan a las cinco *familias políticas*[1] principales de la CAPV, en función de su posición en estos dos ejes. En concreto, las candidaturas que se han analizado, presentadas a la cinco elecciones al Parlamento

1 Se ha adaptado el concepto de 'familia política' de la aproximación realizada por Della Porta y Rucht (1995), cuando la definen como "un grupo de movimientos con la misma concepción del mundo". Porque, como en las familias tradicionales, aunque suele haber entradas y salidas de diferentes miembros, lo fundamental es el espacio que garantiza su mantenimiento a lo largo del tiempo.

-PNV, PSE-EE, Partido Popular, Ezker Abertzaleari lotutako hautagaitzak eta ezker konfederalaren koalizio ezberdinak izango lirateke aztertutakoak[2]. Helburua, indar horietako bakoitzak ardatz bakoitzaren bilakaeran eta beraien arteko posizio erlatiboan aldaketa esanguratsurik eman ote den aztertzea litzateke.

- Bigarrenik, alderdi bakoitzaren hautesleria, bozkatzen duen alderdiari dagokionez, bi ardatz horien artean zeinekiko kokatzen den gertuago aztertuko da. Helburua, bozka ematerako orduan dimentsio na-

2 Alderdi ezberdinen inguruko oharrak: Ezker Abertzale edo ezker independentistari dagokionez: batetik, izendapen edota forma ezberdinekin aurkeztu izan denez deialdi ezberdinetan, alderdi edo hautagaitza bakar gisa aztertuko da epealdi osoan zehar; eta bestetik, 2009ko hauteskundeetan, Alderdi Legearen aplikazioaren eraginez, berak babestutako hautagaitzek ezin izan zutenez aurkeztu, erabilitako inkestetan ez da horren inguruko daturik jasotzen eta, ondorioz, ezin izan da urte horretan aztertu. Eusko Alkartasunari (EA) dagokionez, aztertuko diren deialdi gehienetan beste alderdi batzuekin elkartuta aurkeztu zenez (EAJ-PNVrekin 2005ean eta EH Bilduren baitan 2012tik aurrera) bere azterketa espezifikoa ez da egingo, bera kokatu zen koalizioaren baitakoa baizik. Era berdinean jokatuko da Aralar alderdiarekin, 2005 eta 2009an ordezkari bana lortu zuena, baina 2012tik aurrera EH Bilduren baitan kokatu zena. Azkenik, ezker konfederala deitutakoari dagokionez, denboran zehar aurkeztutako koalizio ezberdinak hautagaitza bakar bezala aintzat hartuko dira; Ezker Batua-Berdea-k eta Elkarrekin Podemos-ek espazio sozio-politiko komuna partekatu dutela ulertuta. Azken kasu honi dagokionez, 2009ko hauteskundeetan ordezkaritzatik lortu ez bazuen ere, 1994tik aurrera espazio horrek era iraunkorrean presentzia izan du Legebiltzarrean. Iraunkortasun horren faltagatik, azterketa honetatik kanpo geldituko dira: Unión Progreso y Democracia (UPyD), 2009an eta 2012an ordezkari bana lortu zuena; Ciudadanos (C's) 2020an aurkeztu zena PPrekin koalizioan; eta, azkenik, Vox.

Vasco que van de 2005 a 2020 serían EAJ-PNV, PSE-EE, Partido Popular, candidaturas vinculadas a la Izquierda Abertzale y las diferentes coaliciones de la izquierda confederal[2]. El objetivo sería analizar si se han producido cambios significativos en la evolución de cada una estas fuerzas en cada uno de estos ejes y en la posición relativa entre ellas.

- En segundo lugar, se analizará de cuál de los dos ejes se sitúa más cerca el electorado de cada partido en relación con el partido que vota. El objetivo se-

2 Observaciones sobre los diferentes partidos: En cuanto a la Izquierda Abertzale o izquierda independentista: por un lado, dado que se ha presentado con diferentes denominaciones o formas en las diferentes convocatorias, se analizará como partido o candidatura única a lo largo de todo el periodo; y, por otra parte, dado que en las elecciones de 2009, debido a la aplicación de la Ley de Partidos, las candidaturas apoyadas por ella no pudieron presentarse, en las encuestas utilizadas ese año no se recogen datos al respecto y, en consecuencia, no se ha podido analizar. En cuanto a Eusko Alkartasuna (EA), dado que en la mayoría de las convocatorias que se van a estudiar se presentó agrupada con otras formaciones (con EAJ-PNV en 2005 y en el seno de EH Bildu a partir de 2012), no se va a realizar su análisis específico, sino el de la coalición a la que se incorporó. Se actuará de la misma manera con Aralar, partido que obtuvo un representante en 2005 y 2009, respectivamente, pero que a partir de 2012 se situó en el seno de EH Bildu. Finalmente, en lo que se refiere a la denominada izquierda confederal, las diferentes coaliciones presentadas a lo largo del tiempo serán consideradas como una única candidatura; entendiendo que, Ezker Batua-Berdeak y Elkarrekin Podemos, han compartido un espacio socio-político común. En este último caso, aunque este espacio no obtuvo representación en las elecciones de 2009, a partir de 1994 ha tenido una presencia permanente en el Parlamento. Por la falta de esa continuidad, quedarán fuera de este análisis Unión Progreso y Democracia (UPyD), que obtuvo un representante en 2009 y 2012, respectivamente; Ciudadanos (C 's), que se presentó en 2020 en coalición con el PP; y, finalmente, Vox.

zional eta ideologikoaren artean zeinek izan dezakeen garrantzia handiagoa aztertzea litzateke. Era horretan, ardatz bakoitzean alderdi ezberdinen artean *konpartitu* daitezkeen bozkatzaile potentzialen kopurua ere azter liteke.

- Eta hirugarren asmoa, alderdi bakoitzaren bozka-osagaien analisi zabalagoa egitea litzateke. Bi *cleavage* horiei lotutako osagaiez gain, zer bestelako aldagaiek garrantzia izan duten argitzeari begira.

Esan bezala, hiru helburuak ikuspegi longitudinal batetik jorratuko lirateke, balizko aldaketak eta jarraikortasunak arakatze aldera.

Ikerketa honen bidez erantzuten saiatuko garen galderak helburu espezifikoen araberakoak izango dira. Hasteko eta behin, alderdi ezberdinek aipatutako ardatz bakoitzean izan duten posizioaren bilakaera aztertuko da. Horretarako erreferentzia nagusia alderdi bakoitzeko bozkatzaileek bere buruaz egiten duten auto-kokapenen bataz bestekoa izango da. Helburu zehatz horri dagokionez, argitu beharreko galdera nagusiak ondokoak lirateke:

- Batetik, alderdi bakoitzak dimentsio bakoitzean duen kokapenean desplazamendu nabarmenik ezagutu al du

ría analizar de entre las dimensiones nacional e ideológica cual puede tener mayor relevancia a la hora de votar. De esta forma, también se podría analizar el número de potenciales votantes que se pueden *compartir* entre los diferentes partidos en cada eje.

- Y, el tercer objetivo, sería hacer un análisis más amplio de los componentes de voto de cada partido. De cara a clarificar qué otras variables han tenido importancia, además de los componentes asociados a estos dos *cleavages*.

Como se ha dicho, los tres objetivos se abordarían desde una perspectiva longitudinal para explorar posibles cambios y continuidades.

Las preguntas que intentaremos responder a través de esta investigación, se desarrollarán en función de los objetivos específicos descritos. Se comenzará analizando la evolución de la posición de los diferentes partidos en cada uno de los ejes mencionados. La referencia principal para ello, será la media de las auto-ubicaciones que los y las votantes de cada partido hagan de sí mismos. En relación con este objetivo concreto, las principales cuestiones a dilucidar serían:

- Por un lado, ¿se han dado en este periodo desplazamientos significativos en la ubicación de cada partido en cada di-

epealdi honetan (ezkerrera/eskuinera edota euskal nazionalismoarekiko atxikimendua handituz/mugatuz)?

- Eta bestetik, horrela bada, alderdien arteko posizio erlatiboan aldaketarik egon da (hau da, alderdi bakoitzak besteekiko duen hurrenkeran)?

Bi aukera nagusiekin aurkitu gaitezke. Lehenengoaren arabera, lan honen sarreran aipatutako aldaketen eragina horren sakona izango litzateke, beraien arteko posizio erlatiboan eragin zezakeelarik; momentu batean muturretan kokatzen ziren indarrak posizio moderatuetan ipiniz, edota posizio moderatuenak zutenak muturretan kokatuz, ardatzetako bakoitzean. Kataluniaren inguruan egindako beste ikerketek (Sierra, 2022), adibidez, era honetako aldaketak deskribatu dituzte bertako alderdi-sisteman. Bigarren aukeraren arabera, alderdi ezberdinek beraien posizio ideologiko edo nazionalistetan mugimenduak ezagutu baditzakete ere, beraien arteko hurrenkeretan ez dute aldaketarik ezagutuko. Fenomeno hau ohikoa izaten da gatazka sakonak ezagutu dituzten jendarteetan ematen diren "identitate inkrustatuen" ondorioz (McAdam, Tarrow eta Tilly, 2005), non nortasun politikoen aldaketak oso apalak eta denboran zehar mailakatuak izaten diren. Era horretan, 'euskal gatazkan' emandako aldaketek alderdien kokapenean eragin na-

mensión (aumentando/limitando su adhesión a la izquierda/derecha o al nacionalismo vasco)?

- Y, por otro lado, si es así, ¿ha habido cambios en la posición relativa entre partidos (es decir, en el orden de cada uno con respecto a los demás)?

Podemos encontrarnos con dos opciones principales. Según la primera, el efecto de los cambios mencionados en la introducción de este trabajo sería tan importante que podría influir en la posición relativa entre ellos; bien situando a las fuerzas que en un momento se situaban en los extremos en posiciones moderadas, bien situando en los extremos las que ocupaban posiciones más moderadas, en cada uno de los ejes. Otros estudios realizados sobre Cataluña (Sierra, 2022), por ejemplo, han descrito este tipo de cambios en su sistema de partidos. Según la segunda opción, aunque los partidos puedan desplazarse en sus posiciones ideológicas o nacionalistas, no se darían alteraciones en sus posiciones relativas. Este fenómeno suele ser habitual en sociedades que han conocido conflictos profundos debido a las "identidades incrustadas" que se forman en ellos (McAdam, Tarrow y Tilly, 2005), donde los cambios en las identidades políticas son muy modestos y graduales a lo largo del tiempo. De esta forma, se querrá analizar si los cambios dados en el 'conflicto

barmenik izan duten arakatu nahiko da. Gure hipotesi nagusia bigarren aukeratik gertuago kokatuko da. Hau da, 2005etik 2020ra doan epealdian alderdi ezberdinek dimentsio bakoitzean zehar desplazamenduak ezagutu bazituzten ere, hauek apalak izan zirela, beraien arteko posizio erlatiboan edo hurrenkeran aldaketarik eragin gabe.

Finkatutako bigarren helburu espezifikoari dagokionez, alderdi bakoitzeko bozkatzaileentzat aipatutako bi dimentsioen artean zein den garrantzitsuagoa aztertu nahiko da. Honako ariketa *distantzia minimoen kalkuluaren* bitartez garatuko da. Bere erabilera ohikoa izaten da eztabaida politikoaren aldagai nagusiak soilik ezker-eskuin ardatzean kondentsatu ezin den lurraldeetan, bertan dimentsio bakoitzaren garrantzia neurtzea ezinbestekoa delarik. Kalkulu hori garatzeko oinarrizko proposizio bat planteatzen da: 'A' alderdia bozkatzen duen herritar bat, bere alderdiak 'X' dimentsioan duen posiziotik gertuago kokatzen bada, 'Y' dimentsioan duenetik baino, bozka ematerako orduan 'X' dimentsioak garrantzia handiagoa izango duela ondorioztа liteke. Bere neurketarako bi galdera izango dira gakoak: batetik, bozkatzaile bakoitzak, aipatutako ardatz bakoitza neurtuko lukeen eskala banatan, non kokatzen duen bere burua (auto-kokapena); eta bestetik, eskala berberak erabiliz, hautesle

vasco' han tenido un impacto significativo en la ubicación de los partidos. Nuestra principal hipótesis se situará más cerca de la segunda opción. Es decir, si bien en el periodo que va de 2005 a 2020, se dieron desplazamientos de los diferentes partidos en cada dimensión, éstos fueron modestos, sin que se produjeran cambios en la posición relativa o en el orden entre ellos.

En cuanto al segundo objetivo específico, se querrá analizar cuál de las dos dimensiones mencionadas es más importante para los votantes de cada partido. Este ejercicio se desarrollará mediante el *cálculo de las distancias mínimas*. Su uso es habitual en territorios en los que las principales variables del debate político no pueden condensarse solamente en el eje izquierda-derecha, siendo imprescindible cuantificar la importancia de cada dimensión. Para desarrollar este cálculo, se plantea una proposición básica: si una persona que vota al partido "A" se sitúa más cerca de la posición de su partido en la dimensión "X" que en la dimensión "Y", se podría concluir que la dimensión "X" tendrá mayor importancia a la hora de decidir su voto. Para su medición, dos preguntas serán fundamentales: por un lado, dónde se sitúa cada votante en sendas escalas que medirían cada uno de los ejes mencionados (auto-ubicación); y, por otro lado, utilizando las mismas escalas, cada persona electora donde sitúa al

bakoitzak bozkatzen duen alderdia bi dimentsio horietan non kokatzen duen (alderdiaz egiten duen kokapena). Bigarren galdera honi dagokionez ere, bi aukera nagusiekin topatu ahal izango gara. Lehenengoaren arabera, alderdi ezberdinetako bozkatzaileengan ardatz bakoitzak izan duen garrantzian aldaketa esanguratsuak emango lirateke. Bigarrenaren arabera, denboran zehar ardatz bakoitzaren garrantzia era egonkorrean mantenduko litzateke. Gure hasierako aurreikuspenen arabera, ezin izango da irakurketa orokorrik egin, ardatz bakoitzak izan duen garrantziaren bilakaera alderdiz alderdi neurtu beharko delarik denboran zehar.

Hirugarren helburu espezifikoari dagokionez, galdera nagusi bat azaltzen zaigu: literatura *tradizionalak* aipatutako bi dimentsioei emandako garrantziaz harago, zer nolako eragina izan dute bestelako aldagai motek EAEko herritarren bozka erabakitzeko orduan? Era berean, luzerako ikuspegi batetik, bi ardatz horien eta harago egon daitezkeen bestelako elementuen arteko garrantziaren bilakaeran aldaketa esanguratsurik egon den aztertzea interesgarria litzateke. Azken batean, atal honen helburua, hauteskunde-portaeraren inguruko teoria orokor ezberdinek gurean nola garatu diren aztertzea litzateke. Alde horretatik, planteatuko den hipotesia zera litzateke: alderdi ezberdinen boz-

partido que vota en esas dos dimensiones (posición del partido). En cuanto a esta segunda pregunta, también podremos encontrarnos con dos opciones principales. Según la primera, se habrían dado cambios significativos en la importancia que ha tenido cada eje en los votantes de los diferentes partidos. Según la segunda, la importancia de cada eje se mantendría estable a lo largo del tiempo en el electorado de cada partido. Según nuestras previsiones iniciales, no se podrán hacer lecturas generales, sino que habrá que calibrar en función de cada partido la evolución de la importancia de cada eje a lo largo del tiempo.

En cuanto al tercer objetivo específico, se nos plantea una cuestión principal: más allá de la importancia dada por la literatura *tradicional* a cada una de las dos dimensiones mencionadas, ¿qué influencia han tenido otro tipo de variables a la hora de decidir el voto de la ciudadanía de la CAPV? Asimismo, desde una perspectiva longitudinal, sería interesante analizar si ha habido cambios significativos en la evolución de la importancia entre estos dos ejes y otros elementos que vayan más allá. En definitiva, el objetivo de este apartado sería analizar cómo se han desarrollado en nuestro entorno las diferentes teorías generales sobre el comportamiento electoral. En este sentido, la hipótesis que se planteará sería que, aunque a la hora de explicar el

ka esplikatzeko orduan, bi *cleavage* horietatik haragoko elementuak aintzat hartu behar badira ere, horien pisua nabarmena izan dela aztertutako epealdi osoan zehar, EAEko jendartearen politizazio maila altuaren erakusgarri.

voto de los diferentes partidos hay que tener en cuenta otros elementos aparte de los relacionados con estos dos *cleavages*, el peso de los mismos ha sido notable a lo largo de todo el periodo analizado, muestra del alto grado de politización de la sociedad de la CAPV.

# 3. Marko teorikoa

Herritarrek botoa emateko orduan duten portaeraren azterketari emandako garrantziaren ondorioz, fenomeno hori aztertzeko ikuspegi teorikoak ugaritu egin dira azken hamarkadetan. Ikuspegi horietako gehienek, era batera edo bestera, gai horrekin lotutako hiru eskola klasiko nagusiek aldagai mota ezberdinei emandako garrantzia dute abiapuntu: *Columbia Eskolako* aldagai sozio-demografikoak, *Michigango Eskolako* faktore psiko-sozialak eta hautu arrazionalaren ikuspegiaren eredu espazialak. Jarraian, horietako bakoitzaren ezaugarriak deskribatuko ditugu labur-labur, gure kasuan erabilitako analisi-ereduaren oinarri teorikoa osatuko baitute.

*Columbia Eskola* deiturikoak, Paul F. Lazarsfeld edo Bernard Berelson bezalako ikerlariek XX. mendearen erdialdeko hauteskunde presidentzialetan AEBetako hautesleek izandako jokabideaz egindako ikerketak ditu abiapuntu. Analisi horiek hauteskunde-portaerari buruzko lehen lan sistematikoak izan ziren, hautesle-lagin altuen jarraipena eginez kanpainetan zehar. 'Orratz hipodermikoaren' edo 'bala magikoaren' teoriek planteatutakoaren kontra (garaiko komunikabide handiek herritarren jokatzeko eran zuten eragin zu-

# 3. Marco teórico

Como consecuencia de la importancia dada al análisis del comportamiento de los ciudadanos a la hora de votar, las perspectivas teóricas para analizar este fenómeno se han multiplicado en las últimas décadas. La mayoría de estos enfoques parten, de una u otra manera, de la importancia dada a diferentes tipos de variables por las tres principales escuelas clásicas relacionadas con este tema: las variables sociodemográficas de la *Escuela Columbia*, los factores psicosociales de la *Escuela de Michigan* y los modelos espaciales del enfoque de la elección racional. A continuación, se describen brevemente las características de cada una de ellas, ya que constituyen la base teórica del modelo de análisis utilizado en nuestro caso.

La llamada *Escuela Columbia* parte de estudios realizados por investigadores como Paul F. Lazarsfeld o Bernard Berelson sobre el comportamiento del electorado estadounidense en las elecciones presidenciales de mediados del siglo XX. Estos análisis fueron los primeros trabajos sistemáticos sobre el comportamiento electoral, haciendo un seguimiento de muestras de electores altas durante las campañas. Contrariamente a lo planteado por las teorías de la "aguja hipodérmica" o de la "bala mágica", que sostenían la influencia directa de los gran-

zena sostengatzen zutenak), Columbiako Eskolaren azterketek hautesleen portaeran *mass medien* eragin nabarmenik ez zuten antzeman. Horien ordez, hauteskunde prozesuetan hautesleen arteko harreman pertsonalak eta ahoz ahokoak aldagai erabakigarriak zirela planteatu zuten (Lazarsfeld. 1948[2021]). Nolanahi ere, hedabide horiek eragin handia izango lukete talde txiki baina erabakigarrietan, ondoren, pertsona horiek bere iritzia helaraziko lieketelarik informatzeko gogo gutxiago baina zabalagoak diren taldeei. Pertsonen arteko harreman horietan, gizarte-klasea, erlijioa, familia, lan-harremanak edo tokiko loturak erabakigarriak izango lirateke botoa erabakitzeko orduan (Berelson et al., 1954[1986]). Ezaugarri sozio-demografiko horiei emandako garrantziaren ildotik, gerora, Lipset eta Rokkan-ek (1967: 14) gizarte--konfigurazioak egituratuko lituzkeen banalerro edo *cleavage* klasikoak zerrendatu zituzten (zentro-periferia, erlijioa, hiri-landa eta lana-kapitala), gaur egungo hauteskunde-portaeraren ikuspegi analitiko nagusietako baten oinarriak finkatuz.

Bestalde, *Michigango Eskolak* eta bere jarraitzaileek arreta handiagoa jarri zuten hauteslериaren ezaugarri psiko-sozialetan. Columbiako Eskolak ezaugarri sozialei emandako garrantziaren aldean, oraingoan balorazio edo

des medios de comunicación de la época en la forma de actuar de la ciudadanía, los estudios de la Escuela de Columbia no detectaron una influencia significativa en el comportamiento de los electores por parte de los *mass media*. En su lugar, plantearon que las relaciones personales y el boca a boca entre los electores en los procesos electorales eran las variables determinantes (Lazarsfeld. 1948 [2021]). En cualquier caso, estos medios tendrían una gran influencia en grupos pequeños pero decisivos, que posteriormente transmitirían su opinión a grupos menos deseosos de información, pero más amplios. En estas relaciones interpersonales, la clase social, la religión, la familia, las relaciones laborales o los vínculos locales serían determinantes a la hora de decidir el voto (Berelson et al., 1954 [1986]). En línea con la importancia dada a estas características sociodemográficas, posteriormente, Lipset y Rokkan (1967:14) enumeraron las divisorias clásicas o *cleavages* (centro-periferia, religión, campo urbano y capital laboral) que vertebrarían las relaciones sociales, sentando las bases de una de las principales perspectivas analíticas del comportamiento electoral actual.

Por su parte, la *Escuela de Michigan* y sus seguidores prestaron mayor atención a las características psicosociales del electorado. En contraste con la importancia dada a las características sociales por la Escuela de Columbia, en

izaera subjektiboko "pertzepzio eta motibazio baldintzen" garrantzia azpimarratuko da botoa zehazteko orduan (Campbell et al., 1960: 37). Baldintza horiek eragin erabakigarria izango lukete bi elementu motatan. Batetik, aldagai *emozional* edo *afektiboetan*; hala nola, identifikazio alderdikoian (Iyengar et al., 2012), lider politikoekiko sinpatian edo ezinikusian, edota horren ondoriozko polarizazio afektiboan (Rogowski eta Sutherland, 2015; Lelkes, 2016; Webster eta Abramowitz, 2017; Wagner, 2021, Reiljan, 2020). Ikerketa ardatz horrek bat egingo luke jarraian azalduko diren eredu espazial klasikoen interpretazio eskemarekin, non hauteslieriaren eta alderdiaren arteko distantziak neurtzen diren. Baina kasu honetan, hauteslieriak liderrekiko edo haien alderdi politikoekiko duen hurbiltasuna/sinpatia edo urruntasuna/distantziaren arabera, normalean aztertu ohi den distantzia ideologiko edo politikoaren ordez. Lidergoek botoaren azalpenean dituzten inplikazioek Stokes-en (1966) lehen lanetara garamatzate, gerora autore ugarik garatu dituztenak (Kinder et al, 1980; King, 2002; Wattenberg, 1991). Ikuspuntu desberdinetatik aztertu bada ere (karisma, sinpatia, abertsioa…), guztiek nabarmenduko dute liderrek duten garrantzia botoa erabakitzerako momentuan. Bestalde, elementu baloratzaile horiek izaera *arrazionalagoa* ere hartu ahal izango dute; hala nola, testuinguru eko-

esta ocasión se incidirá en la importancia de las "condiciones de percepción y motivación" de carácter subjetivo o valorativo a la hora de emitir el voto (Campbell et al., 1960: 37). Estas condiciones influirían decisivamente en dos tipos de elementos. Por un lado, en las variables *emocional o afectivas*, como la identificación partidista (Iyengar et al., 2012), la simpatía o aversión hacia los y las líderes políticos o la consiguiente polarización afectiva (Rogowski y Sutherland, 2015; Lelkes, 2016; Webster y Abramowitz, 2017; Wagner, 2021, Reiljan, 2020). Este eje de investigación seguiría el esquema de interpretación de los modelos espaciales clásicos que se exponen a continuación, en los que se miden las distancias entre el electorado y el partido. Pero en este caso, en función de la proximidad/simpatía o lejanía/distancia del electorado con las personas líderes o con sus partidos políticos, en lugar de la distancia ideológica o política habitualmente analizada. Las implicaciones de los liderazgos en la explicación del voto nos llevan a los primeros trabajos de Stokes (1966), desarrollados posteriormente por numerosos autores (Kinder et al, 1980; King, 2002; Wattenberg, 1991). Aunque se ha analizado desde diferentes puntos de vista (carisma, simpatía, aversión…), todos destacarán la importancia de los liderazgos en el momento de decidir el voto. Por otro lado, estos elementos valorativos también podrán adquirir un carácter más

nomikoaren, politikoaren edo gobernu jakin batek egindako politiken balorazioak. Ikuspuntu horren arabera, hautesleek lurralde bateko egoera sozio-politikoaz egiten duten balorazioa une jakin batean, eta eragile politiko ezberdinek egoera horrekiko duten jokabidea izango lirateke hauteskunde portaera norabidetuko luketen funtsezko faktoreak. Bide arrazionalista berari jarraituko dio boto-tematikoa edo *issue voting* deritzonak; hau da, hauteskunde-testuinguru jakin batean, gai zehatz bat gailentzeak, eta eragile politiko desberdinek gai horren inguruan duten jarrerek, herritarren botoaren zentzua baldintzatzen dutela planteatzen duen ikuspegiak. Edonola ere, Michigango Eskolaren asmoa ez da aurrekoaren planteamenduak inpugnatzea izango, pertzepzio subjektibo hori zehazteko orduan baldintzatzaile sozialen garrantzia aitortuko baita; baina hauteskunde-portaeraren arreta-gunea lekuz aldatuko du, boto-emailearen *kanpoaldetik barrualdera*, hain zuzen.

*racional*, como son las valoraciones del contexto económico, político o de las políticas llevadas a cabo por un determinado gobierno. Desde este punto de vista, la valoración que los electores hacen de la situación sociopolítica en un territorio en un momento determinado, y el comportamiento de los diferentes agentes políticos con respecto a dicha situación, serían los factores fundamentales que orientarían el comportamiento electoral. La misma senda racionalista seguiría el llamado voto temático o *issue voting*; es decir, el enfoque que plantea que, en un contexto electoral determinado, el hecho de que prevalezca un tema concreto, y las posiciones de los diferentes agentes políticos en torno a ese tema, condicionan el sentido del voto de la ciudadanía. En cualquier caso, la intención de la Escuela de Michigan no será impugnar los planteamientos de la anterior; ya que reconocerá la importancia de los condicionantes sociales a la hora de determinar esa percepción subjetiva, pero trasladará el foco de atención del comportamiento electoral, desde el *exterior* al *interior* del votante.

Hirugarrenik, Anthony Downs-en hautapen arrazionalaren (1957) ikuspegia premisa zehatz batetik abiatuko da; hots, herritar bakoitzak hauteskundeak beretzat onuragarriena den gobernua aukeratzeko bitarteko gisa hartzen dituela. Boto-emaileek onura hori nola kalkulatzen duten azaltzeko,

En tercer lugar, la visión de la elección racional de Anthony Downs (1957) partirá de la premisa de que cada ciudadano considera las elecciones como el medio para elegir el gobierno más ventajoso para sí mismo. Para explicar cómo calculan los votantes este beneficio, Downs propondrá un modelo

Downsek eredu espazial bat proposatuko du, non alderdi politikoak ezker-eskuin ardatz batean zehar kokatu ahalko liratekeen, eta boto-emaileen lehentasunak ere eskala horretako lekuren batean koka daitezkeen (Downs, 1957: 142). Boto-emailearengandik hurbilen dagoen alderdia izango litzateke mesede handiena egingo liokeena, eta ondorioz, haren babesa jasoko lukeena. Era berean, alderdi politikoak ardatz horretan zehar mugitu ahal izango lirateke, bozkatzaile multzo zabalago batetik gertuago kokatzeko; desplazamendu hau modu mugatuan eman ahal izango bada ere. Ikuspegi hori axioma hirukoitz batean oinarrituko litzateke (Anduiza eta Bosch, 2015: 204): a) hautesleriaren gehiengoak ezker-eskuin ardatzaren inguruan egituratzen den ideologia du, eta, beraz, eskala horretan koka dezake bere burua; b) hautesleriaren gehiengoak eskala horretan koka ditzake alderdi ezberdinak; eta c), ondorioz, hautesleriaren gehiengoak gertuen dagoen aukera politikoaren alde egingo du. Dinamika politikoa ardatz bakar batean kondentsatu daitekeen lurraldeetarako baliagarria izango litzateke eredu sinple hau, ez da horren emankorra izan, ezker-eskuin ardatzaz gain, bestelako *cleavageak* (zentro--periferia, esaterako) garrantzitsuak suertatu diren egoeretan. Kasu hauetan, dimentsio bakoitzaren garrantzia haztatzearen beharra egon da, botoa emateko orduan horietako bakoitzaren pi-

espacial en el que los partidos políticos podrían situarse a lo largo de un eje izquierda-derecha, y las preferencias de los votantes también podrían situarse en algún lugar de esa escala (Downs, 1957: 142). El partido más cercano al votante sería el que más le beneficiaría y, en consecuencia, el que recibiría su apoyo. Asimismo, los partidos políticos podrían moverse a lo largo de este eje, con la intención de situarse más cerca de un número mayor de votantes; aunque este desplazamiento lo podrían hacer de forma limitada. Esta visión se basaría en un triple axioma (Anduiza y Bosch, 2015:204): a) la mayoría del electorado tiene una ideología que se estructura en torno al eje izquierda-derecha, por lo que puede situarse en esa escala; b) la mayoría del electorado puede situar a los diferentes partidos en esa escala; y c), en consecuencia, la mayoría del electorado se decantará por la opción política más cercana. Este modelo simple, válido para territorios en los que la dinámica política puede condensarse en un solo eje, no ha sido tan fructífero en contextos en los que, además del eje izquierda-derecha, han resultado importantes otros *cleavages*, como el centro-periferia. En estos casos, ha resultado necesario ponderar la importancia de cada dimensión, con el fin de medir el peso de cada una a la hora de votar (Enelow e Hinich, 1984).

sua neurtzeko asmoz (Enelow eta Hinich, 1984).

Hauteskunde-portaeraren ereduak ez dira deskribatutako hiru eskoletan agortuko. Hurrengo urte eta hamarkadetan, bestelako hainbat ikuspegi garatu dira hautesleen motibazioak aztertu ahal izateko. Ekengren-ek eta Oscarsson-ek (2011), adibidez, lau modeloko tipologia bat deskribatuko dute, non, jada azaldutako downsiar espazio-ereduaz gain, beste hiru zerrendatuko dituzten: a) “prominentzia” edo *agenda-setting* eredua (Budge eta Farlie, 1983), alderdiek hautesleen arreta interesatzen zaizkien gaietan *ezartzeko* duten gaitasunean zentratuko litzatekeena; b) “konpetentzia” eredua (Fiorina, 1981), Michiganeko Eskolaren bidea jarraitu duena, hautesleek alderdien gaitasunaz eta eraginkortasunaz egiten duten balorazioan zentratzen den heinean; eta c) eredu “direkzionala edo bereizgarria” (Rabinowitz eta Macdonald, 1984), hauteslериaren hautematean ere arreta jartzen duena, baina kasu honetan alderdiek bere lehiakideekiko gai zehatzetan bereizteko duten gaitasunean azpimarra egiten duena. Azken batean, azken urteotan, hauteskunde-portaera aztertzeko joera orokorra hurbilketa metodologiko desberdinak konbinatzea izan da, azterketa integratuagoak eta panoramika zabalagoak lortze aldera. Ikerketa-proiektu honetan bide horri jarraitu nahi zaio.

Los modelos de comportamiento electoral no se agotarán en las tres escuelas. En los próximos años y décadas, se han desarrollado diferentes enfoques para poder analizar las motivaciones del electorado. Ekengren y Oscarsson (2011), por ejemplo, describirán una tipología en función de cuatro modelos en los que, además del modelo espacial downsiano ya descrito, enumerarán otros tres: a) el modelo de “prominencia” o *agenda-setting* (Budge y Farlie, 1983), que se centraría en la capacidad de los partidos de fijar la atención de los electores en los asuntos que les interesan; b) el modelo de “competencia” (Fiorina, 1981), que ha seguido el camino de la Escuela de Michigan, en la medida en que se centra en la valoración que los electores hacen de la capacidad y eficacia de los partidos; y c) el modelo “direccional o diferenciador” (Rabinowitz y Macdonald, 1984), que también centra su atención en la elección del electorado, pero, en este caso, específicamente en la capacidad de los partidos para diferenciarse entre sí en cuestiones concretas. En definitiva, en los últimos años, la tendencia general a analizar el comportamiento electoral ha sido combinar diferentes aproximaciones metodológicas para lograr estudios más integrados y panorámicas más amplias. En este proyecto de investigación, se pretende seguir ese camino.

# 4. Aurrekariak

Hiru eredu horiek isla zuzena izan dute euskal politikagintzako boto osagaiak aztertzeko orduan. Joan den mendeko 80ko eta 90eko hamarkadetan zehar, aldagai sozio-demografikoen azterketa nabarmendu zen besteen gainetik. Bizilekua, ikasketak, adina edo jatorria faktore erabakigarri bezala aurkeztu ziren botoa emateko orduan (Linz et al., 1986; Llera, 1981, 1983). Ikuspegi gaurkotuago batetik, eragin linguistikoaren azterketak (Leonisio eta Scantamburlo, 2019), inmigrazioarenak (Iraola eta Odriozola, 2017; Zabalo, Mateos eta Iraola, 2013) edo generoarenak (Amurrio, 2006) beren lekua aurkitu dute horrelako ikerketetan; nahiz eta, kasu batzuetan, euskal abertzaletasunaren diskurtsoa eraikitzeko elementu gisa jorratu, hauteskunde-portaeraren aldagai esplikatzaile gisa baino. Hala ere, zenbait autoreren arabera (García eta Pérez, 2016), azken bi hamarkadetan emandako talde sozialen arteko distantziaren apaltzearen ondorioz, aldagai mota horiek pisua galdu dute.

Hautesleriak ez duenean bere botoa definitzen erlatiboki egonkorrak izan daitezkeen faktore sozio-demografiko edo egiturazkoengatik, izaera ebaluatzaileko faktore psiko-sozialek hartu ohi dute garrantzia; hala nola, egoera, gai edota lider jakin baten gai-

# 4. Antecedentes

Estos tres modelos han tenido un reflejo directo a la hora de analizar los componentes de voto en la política vasca. A lo largo de los años 80 y 90 del siglo pasado, el estudio de las variables sociodemográficas sobresalió por encima del resto. La residencia, los estudios, la edad o el origen se presentaron como factores determinantes a la hora de votar (Linz et al., 1986; Llera, 1981, 1983). Desde una perspectiva más actual, los estudios sobre el impacto lingüístico (Leonisio y Scantamburlo, 2019), la inmigración (Iraola y Odriozola, 2017; Zabalo, Mateos e Iraola, 2013) o el género (Amurrio, 2006) han encontrado su lugar en este tipo de investigaciones; aunque, en algunos casos, se abordan más como elementos constitutivos del discurso del nacionalismo vasco, que como variables explicativas del comportamiento electoral. Sin embargo, según algunos autores (García y Pérez, 2016), como consecuencia de la disminución de la distancia entre los grupos sociales durante las dos últimas décadas, este tipo de variables han perdido peso.

Cuando el electorado no define su voto por factores sociodemográficos o estructurales que puedan ser relativamente estables, suelen cobrar importancia los factores psicosociales de tipo evaluativo; como puede ser la valoración de una situación, tema o líder

neko balorazioak. Lehen esan bezala, era ezberdinetako ikuspuntu baloratzaileekin aurkituko gara; batzuek, ikuspegi *arrazional* batean jarriko dute arreta, beste batzuek elementu afektiboak lehenetsiko dituzten bitartean. Lehenengoen artean, botoa erabakitzerako orduan egoera politikoa edo ekonomikoa bezalako elementuek duten garrantzia nabarmenduko dituztenak egongo dira. EAE mailan ez dago horrelako ikuspegia lehenesten duen azterketa askorik, baina badaude hainbat elementu espezifikoen eraginari buruzko batzuk; hala nola, 2008tik aurrera sortutako krisi ekonomikoak 2012ko hauteskunde autonomikoetan izan zuen eragina aztertzen dutenak (Miller eta Úbeda, 2016; García eta Pérez, 2016). Zentzu horretan, De la Callek (2005: 47) azken bi hamarkadetan euskal kasuaren azterketan eredu espazialetan oinarritutako ikerketen nagusitasunak izandako mugak planteatuko ditu. Bere esanetan, "dimentsio abertzaleari eragin dioten elementu koiunturalek (su-etenak, gobernu zentralaren aldaketak) hobeto azaltzen dituzte aurkitutako hauteskunde-aldaketak, soilik boto-emaileen eta alderdien arteko hurbiltasunean oinarritutako eredu espazial batek baino".

Beste ikuspegi batzuek aspektu emozionalagoekin lotutako elementuetan jarriko dute arreta; esaterako, alderdi-identifikazioan edo lider politikoekiko sin-

concreto. Como se ha dicho anteriormente, nos encontramos con enfoques valorativos de diferentes tipos; unos se centrarán en una visión *racional*, mientras que otros priorizarán elementos afectivos. Entre los primeros, habrá quienes destacarán la importancia de factores como la situación política o económica a la hora de decidir el voto. En la CAPV no hay muchos estudios que prioricen este tipo enfoque, pero sí hay algunos sobre el impacto de elementos específicos, como puede ser el caso de la influencia de la crisis económica generada a partir de 2008 en las elecciones autonómicas de 2012 (Miller y Úbeda, 2016; García y Pérez, 2016). En ese sentido, De la Calle (2005:47) planteará las limitaciones del dominio de las investigaciones basadas en modelos espaciales en el estudio del caso vasco durante las dos últimas décadas. A su juicio, "los elementos coyunturales que han afectado a la dimensión abertzale (treguas, cambios en el gobierno central) explican mejor los cambios electorales encontrados que un modelo espacial basado exclusivamente en la cercanía entre votantes y partidos".

Otros enfoques se centrarán en elementos relacionados con aspectos más emocionales; como la identificación de partido o la simpatía/aversión hacia los y las líde-

patia/abertsioan. Euskal politikaren kasuan, identifikazio alderdikoiari buruz egindako lan gehienek lotura estua izan dute euskal nazionalismoaren eraikuntza-prozesuaren azterketarekin, eta hura osatzen duten familia politiko desberdinekin (Pérez-Agote, 1984, 1987; Gurrutxaga, 1996; De la Granja, 2002). Lidergoei dagokienez, Perezek eta Barragan-ek (2016) egindako hurbilketa nabarmendu beharko litzateke, 2012ko hauteskundeen ostean Eusko Legebiltzarreko ordezkari hautetsien profila aztertuz, nahiz eta ikerketa-lerro honek garapen mugatua izan duen.

Baina euskal hautesleen portaeraren azterketan ikuspegi bat nagusitu bada, hori Downsen eredu espazialekin lotutakoa izan da, bai ezker-eskuin dimentsio ideologikoan, bai euskal abertzaletasunari lotutako eskalan. Bi dimentsio hauen arteko garrantziaren inguruko eztabaidan, abertzaletasunari lotutako ardatzaren nagusitasuna aldarrikatzen zutenak nagusitu dira gaiari lotutako literatura espezializatuan (Llera, 1989, 1999, 2016; Llera et al. 2014; Gillespie, 2000; Pallarés et al.,2006; Leonisio eta Strijbis, 2011), ideologikoaren nagusitasuna aldarrikatzen zutenen aurrean. Bigarren posizioaren barruan, Fernández-Albertos-ek (2002) egindako azterketa nabarmendu behar da. Hauteskundeen osteko inkestei aplikatutako erregresio logistikoen bidez, eus-

res políticos. En el caso de la política vasca, la mayoría de los trabajos realizados sobre identificación partidista han estado estrechamente relacionados con el análisis del proceso de construcción del nacionalismo vasco y con las diferentes familias políticas que lo integran (Pérez-Agote, 1984, 1987; Gurrutxaga, 1996; De la Granja, 2002). En cuanto a los liderazgos, habría que destacar el acercamiento realizado por Pérez y Barragán (2016), analizando el perfil de los representantes electos en el Parlamento Vasco tras las elecciones de 2012, aunque esta línea de estudio ha tenido un desarrollo limitado.

Pero si una visión ha prevalecido en el análisis del comportamiento del electorado vasco, ésta ha sido la relacionada con los modelos espaciales de Downs, tanto en la dimensión ideológica izquierda-derecha, como en la escala vinculada al nacionalismo vasco. En el debate sobre la importancia entre estas dos dimensiones, en la literatura especializada han prevalecido quienes reivindicaban la primacía del eje ligado al nacionalismo vasco (Llera, 1989, 1999, 2016; Llera et al. 2014; Gillespie, 2000; Pallarés et al., 2006; Leonisio y Strijbis, 2011), frente a quienes proclamaban la hegemonía de lo ideológico. Dentro de la segunda posición, destaca el análisis realizado por Fernández-Albertos (2002). Mediante regresiones logísticas aplicadas a las encuestas postelectorales, este planteó que el peso del eje iz-

kal herritarrek botoa erabakitzeko orduan ezker-eskuin ardatzaren pisua nagusitu zela planteatu zuen. Hala ere, gerora, Leonisio-k eta Strijbis-ek (2014, 2016), Knuts (1995) eta beste autore batzuek esandakoaren ildotik, dimentsio ideologikoak kategoria ezberdinak barne bilduko lituzkeen *super issue* gisa funtzionatuko zukeela planteatu izan dute. Izan ere, berak zer esan nahi duenaren inguruko ulermen zabalak, bere baitan era askotako balioak biltzera eraman baitu. Hau da, ikusmolde teoriko mugatu batetik, ardatz hori esparru ekonomikoko parte-hartze publikoarekin edo merkatu askearen berezko liberalismoarekin lotu den bitartean, dimentsio horren gizarte-mailako ulermenak erlijiotasun/laizismoa, ekologismo/desarrollismoa edo autoritarismo/liberalismo politikoa bezalako balioak barne bilduko lituzke. Leonisioren eta Strijbisen arabera, behin *super issue* hori dimentsio espezifikoago horietan xehatuta, ardatz abertzalea garrantzitsuago litzateke EAEko herritarren botoa dekantatzeko orduan.

quierda-derecha se impuso a la hora de que la ciudadanía vasca decidiera su voto. Sin embargo, posteriormente, al hilo de lo descrito por Knuts (1995) y otros autores, Leonisio y Strijbis (2014, 2016) plantearon que la dimensión ideológica habría funcionado como un *super issue* que aglutinaría diferentes categorías. De hecho, la amplia comprensión sobre su significado le habría llevado a agrupar valores de diversa índole. Es decir, mientras que, desde una concepción teórica restrictiva, este eje se ha asociado con la participación pública en el ámbito económico o con el liberalismo propio del libre mercado, la comprensión a nivel social de esta dimensión, incluiría valores como religiosidad/laicismo, ecologismo/desarrollismo o autoritarismo/liberalismo político. Según Leonisio y Strijbis, una vez desglosado este *super issue* en esas dimensiones más específicas, el eje abertzale sería más relevante a la hora de decantar el voto de la ciudadanía de la CAPV.

# 5. Metodologia

Proiektu hau garatzeko baliatu den iturri nagusia Centro de Investigaciones Sociológicas-ek (CIS) 2005 eta 2020 urteak bitarte egindako hauteskunde-ondorengo galdeketak izan dira[3]. Metodologia arestian aipatutako hiru helburu zehatzen arabera egokituko da. Lehen helbururako (alderdi politiko bakoitzaren kokapenaren bilakaera ardatz nazionalistan eta ideologikoan), alderdi ezberdinetako bozkatzaileek bi galdera zehatzetan duten jarrera aintzat hartuko da: batetik, euskal nazionalismoarekiko atxikimendu maila neurtu nahi duen galdera; eta bestetik, ezker-eskuin ardatz ideologikoan duten kokapena neurtu nahi duen galdera. Kokapen hori 1etik 10era doan eskala baten araberakoa izango da. Alderdi bakoitzaren kokapena urte horretan bere bozkatzaileen auto-kokapenen batez bestekoa izanik.

Bigarren helburuari begira (zer dimentsiotatik kokatzen diren gertuago alderdi bakoitzeko bozkatzaileak), alderdi bakoitzeko bozkatzaileen gutxieneko distantziak kalkulatuko dira; alderdi ezberdinekiko, ardatz bakoitzean eta deialdiz deialdi. Inkesta berdinak erabiliz, horretarako erreferente bezala erabiliko diren galderak a) nor-

3 Erabilitako inkesten kodeak honakoak dira: 2601, 2795, 2964, 3154 eta 3293.

# 5. Metodología

La principal fuente que se ha utilizado para el desarrollo de este proyecto han sido los sondeos postelectorales realizados por el Centro de Investigaciones Sociológicas (CIS) entre 2005 y 2020[3]. La metodología se adaptará a los tres objetivos concretos mencionados anteriormente. Para el primer objetivo (la evolución de la ubicación de cada partido político en el eje nacionalista e ideológico), se tendrá en consideración la posición del electorado de los diferentes partidos en dos preguntas concretas: por un lado, la pregunta dirigida a medir el grado de adhesión al nacionalismo vasco; y, por otro lado, la pregunta dirigida a medir su posición en el eje ideológico izquierda-derecha. Esta ubicación dependerá de una escala que va de 1 a 10. Siendo la ubicación de cada partido la media de las autoubicaciones de sus votantes ese año.

De cara al segundo objetivo (de qué dimensión se sitúa más cerca el electorado de cada partido), se calcularán las distancias mínimas de los y las votantes de cada partido respecto a los diferentes partidos, en cada eje y convocatoria. Utilizando las mismas encuestas, las preguntas que servirán de referente serán a) la relacionada con la autoubicación (las mismas que

3 Los códigos de las encuestas utilizadas son 2601, 2795, 2964, 3154 y 3293.

beraren auto-kokapenaren gainekoa (aurreko helburua gauzatzeko erabilitako berdinak), eta b) norberak alderdi bakoitzaz egiten duen kokapena, izango dira; beti ere, bi galdera horiek ardatz bakoitzean erabiliz. Gutxieneko distantzia hauen kalkulua, ondoren azaltzen den formularen bitartez garatuko da:

$$D_{ij} = (V_i - p_j)^2$$

Non $V_i$ inkestatu bakoitzak eskala horietan bere buruaz egiten duen kokapena izango den, eta $p_j$ alderdi bakoitzari ematen dion puntuazioa izango den. Kalkulu hori dimentsio bakoitzean egingo da. Ondoren, Pereirak (2017) garatutako planteamendua jarraituz, emaitza hauek formula logikoen bitartez interpretatuko dira. Funtsean, bozkatzaile bakoitzak bere erreferentziazko alderdiarekiko izango duen distantzia neurtu nahi da, bai ardatz nazionalistan, zein ideologikoan. Bozkatzaileak bozkatu dituzten alderdien arabera multzokatuko dira, jakiteko alderdi bakoitzaren hautesleria zer alderdi(ar)rekiko eta zer dimentsiotan kokatzen den gertuago. Gutxieneko distantziak alderdi bat baino gehiagorekin errepikatu daitezkeenez (adibidez, A alderdia bozkatzen duen hautesle bat, distantzia berdinera kokatu ahal izango da, A alderditik edo B alderditik, X ardatzari dagokionez), asko jota hiru alderdien arteko konbinazioak ematen direnean aztertuko

las utilizadas para llevar desarrollar el objetivo anterior) y b) la ubicación que cada uno hace de cada partido, utilizando ambas preguntas en cada eje. El cálculo de estas distancias mínimas se desarrollará mediante la siguiente fórmula:

$$D_{ij} = (V_i - p_j)^2$$

Donde $V_i$ será la posición que adopta cada persona encuestada en estas escalas, y $p_j$ será la puntuación que otorga a cada partido. Este cálculo se realizará en cada dimensión. Posteriormente, siguiendo el planteamiento desarrollado por Pereira (2017), estos resultados se interpretarán mediante fórmulas lógicas. Básicamente, se trata de medir la distancia de cada votante respecto a su partido de referencia, tanto en el eje nacionalista, como en el ideológico. Los votantes se agruparán en función de los partidos que hayan votado, para saber de qué partido(s) se sitúa más cerca el electorado de cada uno y en qué dimensión. Como las distancias mínimas pueden repetirse con más de un partido (por ejemplo, un elector que vote al partido A, podrá situarse a la misma distancia del partido A o del partido B, en lo referente al eje X), se analizarán cuando se den las combinaciones entre un máximo de

dira[4]. Alderdi bakoitzari dagokion zutabearen amaieran "Alderdi bakoitzak guztira" izeneko errenkada jasoko da. Bere helburua alderdi bakoitzaren bozkatzaileek bere alderdiarekiko zein ardatzetatik gertuen kokatzen diren argitzea litzateke. Horrela, errenkada horretan jasotako kopuruak dagokion alderdia gutxienez behin lehen aukera bezala agertu diren ehunekoen gehiketa lirateke. Downsen (1957) eredu espazialei jarraituz, segun eta zer ardatzetatik gertuago egon, ardatz horrek izango luke garrantzia handiagoa bozka erabakitzeko orduan.

Tradizionalki, euskal politikari lotutako aferak bi dimentsio hauetan kondentsatzeko saiakera nabarmena izan da. Aldiz, ikuspegi horrek hainbat muga izan ditu. Batetik, dimentsio bakoitzeko kategorien gaineko ulermena ezberdina izan daitekeelako. Adibidez, gorago aipatu bezala, ezker-eskuin kontzeptuen gaineko ulermena anitza da, instituzioek ekonomian izan dezaketen parte hartzetik haragoko balio post-materialistak ere ezkutatu ditzakeen heinean; edota, nazionalismoaren kategoriari dagokionez, euskal nazionalismoaren inguruko kokapenaz galdetzen delako, egun norberak bere burua nazionalistatzat hartzeak izan

4 Gerta daiteke bozkatzen den erreferentziazko alderdia, lau alderdi edo gehiagoren konbinazioen artean ere aurkitzea, baina, euskal alderdien arteko distantzia politikoak aintzat hartuz, aukera hau bazterrekoa kontsideratuko da.

tres partidos[4]. Al final de la columna correspondiente a cada partido, se consignará la fila "Total de cada formación". Su objetivo sería clarificar de qué eje se sitúan más cerca los y las votantes de cada partido con respecto a su formación. De esta forma, los datos recogidos en esta fila serían las sumas de los porcentajes en las que ha aparecido, al menos una vez, el partido de referencia como primera opción. Siguiendo los modelos espaciales de Downs (1957), dependiendo de qué eje se sienta más cerca, este tendría mayor importancia a la hora de decidir el voto.

Tradicionalmente, el intento de condensar en estas dos dimensiones los temas ligados a la política vasca ha sido evidente. En cambio, este enfoque ha tenido varias limitaciones. Por un lado, porque la comprensión de las categorías de cada dimensión puede ser diferente. Por ejemplo, como se ha mencionado más arriba, la comprensión de los conceptos izquierda-derecha es diverso, en la medida en que puede ocultar valores posmaterialistas más allá de la participación institucional en la economía; o, en lo que respecta a la categoría de nacionalismo, se pregunta sobre la ubicación en torno al nacionalismo vasco, cargando las dificultades que puede

4 Puede ocurrir que, el partido de referencia al que se vota, se encuentre en combinaciones de cuatro o más partidos, pero, teniendo en cuenta las distancias políticas entre los partidos vascos, esta opción se considerará marginal.

ditzakeen zailtasunak (Cagiao, 2018) euskal abertzaletasunaren gainean zamatuz, eta ez espainiar nazionalismoaren gainean. Bestetik, bi dimentsio horietan kokapen zaila izan dezaketen bestelako elementuak ere aztertu behar direlako hauteskunde-portaera aztertzeko orduan. Era berean, hainbat kasuetan ere gerta daiteke, ardatz zehatz batekiko gertutasun handiagoa izanda ere, alderdi zehatz horri bozka ematera eramaten duten arrazoi nagusiak beste ardatzari lotuta egotea.

Arazo horiek saihesten saiatzeko, aurreko atal teorikoan aipatutako kategoria multzo ezberdinak bilduko lituzketen erregresio logistiko ereduak eraikiko dira; beti ere, azterketa osatuago bat egite aldera. Teknika honen erabilera ohiko izan da hauteskunde-portaeraren analisian (Gómez, 2020; Viera eta Jaráiz, 2018; Mo eta Pereira, 2018; Pereira, 2017), bere eraginkortasuna erakutsiz. Asmoa aukeratutako hauteskunde deialdi ezberdinetan ordezkaritza parlamentarioa lortu duen alderdi bakoitzaren bozken osagaien azterketa egitea litzateke. Kasu horietan, menpeko aldagaia hautesleak emandako boza izango litzateke. Horretarako, aldagaia bera dikotomizatuko litzateke, X alderdia bozkatu duten (1) eta ez dutenen artean bereiziz (0). Era horretan, erregresio binarioak lehenetsiko dira, multinominalen aurrean. Metodo honek X alderdia bozkatu izanaren bereizgarri nagusiak iden-

entrañar considerarse hoy en día nacionalista (Cagiao, 2018) sobre el nacionalismo vasco y no sobre el nacionalismo español. Por otro lado, porque también hay que analizar otros elementos que pueden tener un encaje complicado en estas dos dimensiones a la hora de analizar el comportamiento electoral. Asimismo, en varios casos puede ocurrir que, aun sintiendo una mayor proximidad a un eje concreto, las principales razones que llevan a votar a ese partido estén ligadas al otro eje.

Para tratar de evitar estos problemas, se construirán modelos de regresión logística que engloben los diferentes grupos de categorías mencionados en el apartado teórico anterior, con el fin de realizar un análisis más completo. El uso de esta técnica ha sido habitual en el análisis del comportamiento electoral (Gómez, 2020; Viera y Jaráiz, 2018; Mo y Pereira, 2018; Pereira, 2017), habiendo demostrado su eficacia. La intención sería hacer un análisis de los componentes del voto de cada partido que haya obtenido representación parlamentaria en las diferentes convocatorias electorales seleccionadas. En estos casos, la variable dependiente sería el voto emitido por cada persona electora. Para ello, se dicotomizaría esta variable, diferenciando entre los que han votado al partido X (1) y los que no (0). De esta forma, se priorizarán las regresiones binarias frente a las multinominales. Este método identificará los principales rasgos distintivos de

tifikatuko ditu, bera bozkatu ez dutenen multzo heterogeneoaren aurrean. Aldagai askeak funtsean aurreko ataleko sarrera teorikoan azaldutakoak lirateke, jarraian azaltzen den moduan antolatuak.

Lehenengo multzoan aldagai sozio-demografikoak jasoko dira; zehazki, adina, sexua, ikasketak eta bizi-lekuaren tamaina. Asmoa norberaren *berezko* ezaugarriei lotutako faktore hauek bozka zer punturaino baldintzatzen duten aztertzea litzateke. Bigarren multzoan aldagai psiko-sozialak joango lirateke, bi azpi-multzoetan banatuta. Alde batetik, ideologiko-politikoak; horien baitan, inkestatuen auto-kokapen ideologikoa (ezker-eskuin), auto-kokapena euskal nazionalismoaren inguruko ardatzean, identitate nazionala (Linz-Moreno galdera) eta lurralde-antolaketaren inguruko lehentasunak. Zentzu horretan, Ibarrak (2005: 58) nazionalismoaz eta identitate nazionalez egindako bereizketa nabarmendu beharko litzateke. Horren arabera, bigarrena era naturalean bizi ahal izango da; bestelako gatazkarik gabe barneratzen den zerbait bezala. Nazionalismoak, aldiz, ekintzara bultzatu ohi du, bere kideen asebetetzea beraien nazioak osotasun kulturala eta politikoa lortzen duen heinean emango delako. Beste alde batetik, aldagai psiko-sozialen multzo honetan ere, distantzia afektiboarekin lotutako faktoreak kokatuko lirateke; batetik, bozka-

haber votado al partido X, frente al conjunto heterogéneo de los que no lo han hecho. Las variables independientes serían básicamente las expuestas en la introducción teórica del apartado anterior, ordenadas de la siguiente forma.

En el primer grupo, se recogerán las variables sociodemográficas; en concreto, la edad, el sexo, los estudios y el tamaño del lugar de residencia. La intención sería analizar hasta qué punto estos factores relacionados con las características *propias* de cada persona, condicionan el voto. En el segundo grupo irían las variables psicosociales, divididas en dos subgrupos. Por un lado, las ideológico-políticas, que incluyen la autoubicación ideológica de las personas encuestadas (izquierda-derecha), la autoubicación en el eje sobre nacionalismo vasco, la identidad nacional (pregunta Linz-Moreno) y las prioridades en la organización territorial. En este sentido, habría que destacar la distinción que hace Ibarra (2005: 58) entre nacionalismo e identidades nacionales. Según él mismo, las segundas se podrán vivir de forma natural; como algo que se interiorizará sin mayor conflicto. El nacionalismo, en cambio, suele incitar a la acción, en la medida en que la satisfacción de sus miembros se dará en tanto su nación alcance la plenitud cultural y política. Por otro lado, en este conjunto de variables psicosociales, también se situarían los factores relacionados con la distancia afec-

tzen den alderdiarekiko sentitzen den gertutasuna, eta bestetik, bozkatzen den alderdiaren liderrarekiko atxikimendu maila. Azken elementu honen neurketarako alderdi ezberdinetako liderrez egiten zen balorazioa erreferentziatzat hartuko da. Horren kuantifikaziorako metodo ohikoena "sentimenduen termometroa" deitutakoa izan ohi bada ere (alderdi batekiko edo bere liderrarekiko sinpatia edo antipatia maila neurtzen duena), hainbat ikerketek liderren balorazioaren aldagaiaren baliagarritasuna berresten dute, gertutasun edo urruntze afektibo maila neurtzeko (Rogowski eta Sutherland, 2015; Lelkes, 2016; Webster eta Abramowitz, 2017; Orriols, 2021). Honen helburua, ardatz ideologiko edota nazionalistan oinarritutako eredu espazialei egozten zaien izaera arrazionalistatik harago, dimentsio emozionalarekin lotuak egon daitezkeen bestelako aldagaien garrantzia aztertzea litzateke. Hirugarren aldagai multzoak inguruabarrari lotutakoak bilduko lituzke. Izan ere, jada aipatu bezala, aldagai egonkorrenek (ideologia, faktore sozio-demografikoei dagozkienak...) garrantzia galtzen dutenean, testuinguruari lotutakoek indarra hartu ohi dute (Anduiza eta Bosch, 2015). Kasu honetan, Espainiako eta EAEko egoeren balorazioen inguruko galderak aintzat hartuko dira, bai egoera ekonomikoari dagokionean, bai egoera politikoari dagokionean; baita Eusko Jaurlaritzaren kudeaketaz egiten den

tiva; por un lado, la cercanía que se siente hacia el partido que se vota y, por otro, el grado de adhesión hacia la persona líder del partido que se vota. Para la medición de esta última variable, se tomará como referencia la valoración que se hace de los y las líderes de los diferentes partidos. Aunque el método más común para su cuantificación suele ser el llamado "termómetro de sentimientos" (que mide el grado de simpatía o antipatía hacia un partido o su líder), diversos estudios confirman la utilidad de la variable de valoración de los liderazgos para medir el grado de proximidad o distanciamiento afectivo (Rogowski y Sutherland, 2015; Lelkes, 2016; Webster y Abramowitz, 2017; Orriols, 2021). Su objetivo, más allá del carácter racionalista atribuido a los modelos espaciales basados en el eje ideológico o nacionalista, sería analizar la importancia de otras variables que puedan estar relacionadas con la dimensión emocional. El tercer grupo de variables incluiría las relacionadas con el contexto. De hecho, como ya se ha mencionado, cuando las variables más estables (ideológicas, sociodemográficas...) pierden peso, las contextuales toman mayor importancia (Anduiza y Bosch, 2015). En este caso, se tomarán como referencia las preguntas sobre la valoración de la situación de España y de la CAPV, tanto en lo que respecta a la situación económica, como a la situación política; así como la valoración que se hace de la gestión del Gobierno Vasco.

balorazioa ere. Era horretan, bozka emateko orduan horren egonkorrak ez diren aldagaiek ere euskal biztanleriarengan eragina izan duten aztertu ahal izango da.

De esta forma, se podrá analizar si variables menos estables también han influido en la población vasca a la hora de votar.

Jarraian doa erabiliko diren aldagai askeen zerrenda zehatza, beraien izaera eta kategoria ezberdinekin.

A continuación, se muestra una relación detallada de las variables independientes que se van a utilizar, con sus categorías y diferentes tipologías.

Taula 1. Erregresio logistikoetarako erabiliko diren aldagai askeen zerrenda multzokatua.

Tabla 1. Listado de variables independientes agrupadas que se utilizarán para las regresiones logísticas

| **ALDAGAIA /** VARIABLE | **KATEGORIAK /** CATEGORIAS | **MOTA**<br>TIPO |
|---|---|---|
| **SOZIO-DEMOGRAFIKOAK /** SOCIO-DEMOGRÁFICAS | | |
| **Adina /** Edad | 18-90 urte<br>18 a 90 años | Eskala<br>Escala |
| **Sexua /** Sexo | Emakumea (1), gizon (0)<br>Mujer (1), Hombre (0) | Kategorikoa<br>Categórica |
| **Ikasketak /** Estudios | <5 urte baino gutxiagoko eskolaratzea, Lehen Hezkuntza, oinarrizko Lanbide Heziketa, BH, LH ertaina, batxilergoa, goi LH, ingeniaritza teknikoa, diplomatura, gradua, lizentziatura, arkitektura/ingeniaritza, masterra, doktoretza<br>< Escolarización menor de 5 años, Educación Primaria, Formación Profesional Básica, FP Media, Bachillerato, FP Superior, Ingeniería Técnica, Diplomatura, Grado, Licenciatura, Arquitectura/Ingeniería, Máster, Doctorado | Ordinala<br>Ordinal |
| **Udalerriaren tamaina**<br>Tamaño del municipio | Biztanleak: <2.000, 2.001-10.000, 10.001-50.000, 50.001-100.000, 100.001-400.000, 400.001-1.000.000, >1.000.000<br>Población: <2.000, 2.001-10.000, 10.001-50.000, 50.001-100.000, 100.001-400.000, 400.001-1.000.000, >1.000.000 | Ordinala<br>Ordinal |
| **PSIKO-SOZIALAK /** PSICO-SOCIALES | | |
| **Identifikazio nazionala (Linz-Moreno)**<br>Identificación nacional (Linz-Moreno) | Bakarrik espainiarra, espainiarragoa euskal herritarra baino, berdin espainiarra eta euskal herritarra, euskal herritarragoa espainiarra baino, bakarrik euskal herritarra<br>Sólo español/a, más español/a que vasco/a, igual de español/a y vasco/a, más vasco/a que español/a, solo vasco/a | Kategorikoa<br>Categórica |

| **ALDAGAIA** / VARIABLE | **KATEGORIAK** / CATEGORIAS | **MOTA** TIPO |
|---|---|---|
| **Auto-kokapena euskal nazionalismoa** Autoubicación nacionalismo vasco | Balorazioa 1-10 Valoración 1-10 | Eskala Escala |
| **Auto-kokapen ideologikoa** Autoubicación ideológica | Balorazioa 1-10 Valoración 1-10 | Eskala Escala |
| **Lurralde-antolaketaren inguruko lehentasuna** Preferencia sobre organización territorial | Estatu bakarra autonomiarik gabe, egungoen moduko autonomia erkidegoak, autonomia handiagoa, independizatzeko aukera Un solo Estado sin autonomía, comunidades autónomas como las actuales, más autonomía, posibilidad de independizarse | Kategorikoa Categórica |
| **Norberak bozkatzen duen alderdiarekiko gertutasuna** Cercanía al partido que uno vota | Oso gertukoa, gertukoa, ez gertukoa ez urrutikoa, urrutikoa, oso urrutikoa Muy cercano, cercano, ni cercano ni lejano, lejano, muy lejano | Ordinala Ordinal |
| **Norberak bozkatzen duen alderdiaren liderrarekiko balorazioa** Valoración del líder del partido que uno vota | Balorazioa 1-10 Valoración 1-10 | Eskala Escala |
| **TESTUINGURUKOAK** / CONTEXTUALES | | |
| **EAEko egoera ekonomikoaren balorazioa** Valoración de la situación económica de la CAPV | Oso ona, ona, erdipurdikoa, txarra, oso txarra Muy buena, buena, regular, mala, muy mala | Ordinala Ordinal |
| **EAEko egoera politikoaren balorazioa** Valoración de la situación política en la CAPV | Oso ona, ona, erdipurdikoa, txarra, oso txarra Muy buena, buena, regular, mala, muy mala | Ordinala Ordinal |
| **Espainiako egoera ekonomikoaren balorazioa** Valoración de la situación económica de España | Oso ona, ona, erdipurdikoa, txarra, oso txarra Muy buena, buena, regular, mala, muy mala | Ordinala Ordinal |
| **Espainiako egoera politikoaren balorazioa** Valoración de la situación política de España | Oso ona, ona, erdipurdikoa, txarra, oso txarra Muy buena, buena, regular, mala, muy mala | Ordinala Ordinal |
| **Eusko Jaurlaritzaren kudeaketaren balorazioa** Valoración de la gestión del Gobierno Vasco | Oso ona, ona, erdipurdikoa, txarra, oso txarra Muy buena, buena, regular, mala, muy mala | Ordinala Ordinal |

Egileak egindakoa. / Realizado por el autor.

Aspektu teknikoei dagokionez, erregresio ereduak eraikitzeko SPSS programa estatistikoa erabili da, “Forward stepwise” metodoarekin, hain zuzen. Metodo honek gaitasun esplikatzailea duten aldagaiak eraikitako eredura inkorporatzen ditu. Ereduen eraikuntzari heldu baino lehen, erreferentziazko literaturan erregresio logistikoentzat planteatutako suposizio orokorrak eta espezifikoak betetzen direla ziurtatzen da (Cea, 2004).

En cuanto a los aspectos técnicos, para la construcción de los modelos de regresión, se ha utilizado el programa estadístico SPSS, con el método “Forward stepwise”. Este método incorpora de manera progresiva al modelo construido las variables que muestran mayor capacidad explicativa. Antes de abordar la construcción de los modelos, se contrasta el cumplimiento de los supuestos generales y específicos planteados en la literatura de referencia para las regresiones logísticas (Cea, 2004).

# 6. Testuingurua

Atal honetan, bi gai aztertuko dira: batetik, hauteskunde deialdi bakoitzaren inguruabarraren funtsezko faktoreak izan daitezkeenak; eta bestetik, deialdi bakoitzaren emaitza nagusiak. Horren helburua ondoren aztertuko diren datuei testuingurua jartzea litzateke. Alde horretatik, atal honen asmoa ez da hauteskunde bakoitzean presente egon ziren elementu ezberdinen zerrendatze eta esplikazio oso bat egitea; ezta alderdi bakoitzak jasotako emaitzen azterketa zehatza egitea ere. Momentuak eta datuak ulertzen lagundu dezaketen aldagai nagusiak gogora ekartzea baizik. Hurrengo atalean azalduko diren emaitzak, hobeto ulertzen lagunduko duten momentu eta aldagai nagusiak laburbiltzea baizik.[5]

2005eko Hauteskunde Autonomikoekin hasita, beraiek apirilaren 17an burutu ziren, bertako gai izarretako bat Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak Gernikako Estatutua erreformatzeko egindako proposamena izan zelarik. Hauteskunde deialdia Diputatuen Kongresuak proposamena-

5 Helburu berdinarekin bi gehigarri eransten dira lan honen bukaeran. Alde batetik, aztertzen diren bost alderdi politiko nagusien bozken ehunekoen bilakaera azaltzen duen grafikoa, 1980tik 2020ra egindako hauteskunde autonomikoei dagokienez (1. Eranskina). Eta, bestetik, bost talde hauek lortutako eserlekuen bilakaera jasotzen duen grafikoa epealdi berdinean (2. Eranskina).

# 6. Contexto

En este apartado, se analizarán dos cuestiones: por un lado, los factores que pueden constituir los elementos esenciales del contexto de cada convocatoria electoral; y, por otro, los principales resultados de cada convocatoria. Su objetivo sería contextualizar los datos que se analizarán a continuación. En este sentido, la intención de este apartado no es hacer una enumeración y explicación completa de los diferentes elementos que estuvieron presentes en cada proceso electoral; ni hacer un análisis pormenorizado de los resultados obtenidos por cada partido. Sino recapitular los momentos y las principales variables que pueden ayudar a entender mejor los resultados que se expondrán en el siguiente apartado[5].

Comenzando por las Elecciones Autonómicas de 2005, estas se celebraron el 17 de abril, siendo uno de sus temas estrella la propuesta del Lehendakari Juan José Ibarretxe para reformar el Estatuto de Gernika. La convocatoria de elecciones vino precedida por el rechazo del Congreso de los Dipu-

5 Con el mismo objetivo, se adjuntan al final de este trabajo dos anexos. Por un lado, un gráfico que ilustra la evolución de los porcentajes de voto de los cinco principales partidos políticos que se analizan, en relación a las elecciones autonómicas celebradas entre 1980 y 2020 (Anexo 1). Y, por otro lado, un gráfico que recoge la evolución de los escaños obtenidos por estos cinco grupos en el mismo periodo (Anexo 2).

ri emandako ezezkoaren ondotik etorri zen, Lehendakariak bera galdeketetara eramateko borondatea aurkeztu zuelarik, “biolentziarik gabeko egoera batean”. EAJ-PNVk eta EAk koalizioa errepikatu zuten, 2001ekoetan Ibarretxeren eskutik lortutako emaitza historikoen ondotik (604.000 bozka eta 33 eserleku), baina oraingoan bozken %4 gutxiagorekin eta 29 eserleku eskuratuz. Jakina denez, PSOE/PSE eta PP proposamen horren aurka azaldu ziren, bai Gasteizko Legebiltzarren, bai Madrilgo Kongresuan. Lehenengoak emaitzak hobetu zituen, aurreko urteko 11-M-ko gertakariak eta gero, Espainiako Hauteskunde Orokorretan ustekabean lortutako garaipenaren ondotik. Bigarrenak deialdi horretan hasi zuen bere atzerako joera elektorala EAEko hauteskunde autonomiko hauetatik aurrera, 2001eko deialdian bigarren indarra izan eta gero, bozken %23,12rekin. Alderdien Legearen ondorioz, ordura arteko Ezker Abertzalearen hautagaitzak legez kanpo utzita (HB eta EH), Euskal Herriko Alderdi Komunista (EHAK) izan zen indar horrek aukeratutako hauteskunde-plataforma. Hilabete batzuk lehenago, 2004ko abenduaren 30ean, Eusko Legebiltzarreko Sozialista Abertzaleak taldeak bere bozkak banatu zituen Lehendakariaren proposamena bozkatzeko orduan (3 bai, 3 ez), bere tramitazioari bide emanez zentzu kritiko batean. 2001eko hauteskundeetan, bere historian jasota-

tados a dicha propuesta, mostrando el mismo su voluntad de llevarla a las consultas “en una situación de no violencia”. EAJ-PNV y EA repitieron coalición, tras los históricos resultados obtenidos en las elecciones de 2001 de mano de Ibarretxe (604.000 votos y 33 escaños), pero esta vez con un 4% menos de votos y 29 escaños. Como es sabido, PSOE/PSE y PP se opusieron a esta propuesta, tanto en el Parlamento de Vitoria-Gasteiz, como en el Congreso de Madrid. El primero mejoró sus resultados después de los acontecimientos del 11-M del año anterior, tras su inesperada victoria en las Elecciones Generales de España. El segundo inició su retroceso electoral en las elecciones autonómicas vascas a partir esta convocatoria, después de haber sido segunda fuerza en 2001 con el 23,12% de los votos. A raíz de la Ley de Partidos, con la ilegalización de las hasta entonces candidaturas de la Izquierda Abertzale (HB y EH), la plataforma electoral elegida por esta fuerza fue el Partido Comunista de las Tierras Vascas (PCTV-EHAK). Meses antes, el 30 de diciembre de 2004, el grupo Sozialista Abertzaleak dividió sus votos a la hora de votar la propuesta del Lehendakari en el Parlamento Vasco (3 sí, 3 no), dando paso a su tramitación en un sentido crítico. En las elecciones de 2001, después de los peores resultados de su historia (tras la ruptura del Acuerdo de Lizarra-Garazi y del alto el fuego de ETA), mejoró en votos (12,44%) y escaños (9),

ko emaitzarik txarrenak eta gero (Lizarra-Garaziko Akordioaren eta ETAren su-etenaren apurketaren ostean), bozka (%12,44) eta eserleku (9) kopurua hobetu zuen, baina 1998an EHk lortutakoetatik urruti (%17,91). Aintzat hartu behar da, 2001ean bere baitan eman zen zatiketaren ondorioz sortutako Aralar alderdia, lehen aldiz aurkeztu zela hauteskunde autonomikoetara, eserleku bat lortuz. Azkenik, Ezker Batua-Berdeak taldeari dagokienez (aurreko lau urteetan EAJ-PNV--EAk lideratutako gobernuaren parte izan zena), Gasteizko Legebiltzarrean Ibarretxe Planaren alde bozkatu zuten bitartean, Madrilgo Kongresuan Izquierda Unida-k kontrako zentzuan bozkatu zuen, 2005eko hauteskunde autonomikoetako emaitzetan atzeraldi txiki bat jasoz (bozken %5,37).

pero lejos de los logrados por EH en 1998 (17,91%). Hay que tener en cuenta que, el partido Aralar, surgido de la escisión que se dio en su seno en 2001, se presentó por primera vez a las elecciones autonómicas obteniendo un escaño. Por último, en cuanto a Ezker Batua-Berdeak, que en los cuatro años anteriores formó parte del gobierno liderado por PNV-EA, mientras en el Parlamento de Vitoria-Gasteiz votaron a favor del Plan Ibarretxe, en el Congreso de Madrid, Izquierda Unida votó en sentido contrario, dándose un ligero retroceso en sus resultados de las elecciones autonómicas de 2005 (5,37% de los votos).

2009ko Hauteskunde Autonomikoetako berritasun nagusi bat Ezker Abertzalearen bi hautagaitzei (D3M eta Askatasuna) bertan aurkezteko emandako debekuaren eskutik etorri zen, EHAK legez kanporatua izan eta gero. Era berean, egoera honek ateak ireki zizkion lehen aldiz EAJ-PNVkoa ez zen hautagai bati Lehendakaritza lortzeko. Horrela gertatu zen PPk PSE-EEko Patxi Lopez babestu zuenean; EAJ-PNV alderdirik bozkatuena izan bazen ere (%38,56), bere aliatuak izan zitezkeenekin gehiengo nahikorik osatzea ezinezkoa izan zitzaiolarik (29 eserleku, 2001ean baino

Una de las principales novedades de las Elecciones Autonómicas de 2009, vino de la mano de la prohibición a las dos candidaturas de la Izquierda Abertzale (D3M y Askatasuna) de presentarse, tras la ilegalización de EHAK. Asimismo, esta situación abrió las puertas por primera vez a un candidato que no era de EAJ-PNV a aspirar a la Lehendakaritza. Así ocurrió cuando el PP apoyó al candidato del PSE-EE Patxi López; aunque EAJ-PNV fue el partido más votado (38,56%), le fue imposible formar una mayoría suficiente con los que podían ser sus aliados (29 escaños, cuatro menos que en 2001). En ese caso, EA decidió pre-

lau gutxiago). Kasu horretan, EAk bere kabuz aurkeztea erabaki zuen, eserleku bakarra lortuz (Aralar bezala), aurreko bi deialdietan jelkideekin koalizioan aurkezteko hartutako erabakitik urrunduz. Ezker Abertzalearen parte hartze falta (bozka baliogabearen aldeko deia egin zuena) ez zen hauteskunde hauen testuingurua baldintzatu zuen elementu nagusi bakarra izan. Aurreko urtean Eusko Legebiltzarrak Kontsulta Legea deitutakoa onartu zuen, EAEko biztanleriari ETArekin elkarrizketa prozesua abiatzeko eta erabakitze eskubidearen inguruko kontsulta egiteko asmoarekin[6]. Auzitegi Konstituzionalak legea atzera bota zuen, Espainiako Gobernuaren oniritzia ez zuela ebatsiz. Testuinguru horretan aurkeztu zen lehen aldiz hauteskunde autonomikoetara UPyD alderdia, eserleku bat lortuz Arabako barrutitik. Ordurako ere, Atzeraldi Ekonomiko Handiaren lehenengo sintomak igartzen hasiak ziren, bere ondorio sozio-ekonomiko nabarmenenak hurrengo urteetan mahai gaineratu baziren ere.

6 Ados zaude indarkeriari elkarrizketa bidez amaiera emateko prozesu bat babestearekin, baldin eta ETAk aldez aurretik erakusten badu zalantzarik gabeko moduan indarkeriari behin betiko amaiera emateko borondatea?"; eta b) "Ados zaude euskal alderdiek, bazterketarik gabe, Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea gauzatzeari buruzko akordio demokratiko bat lortzeko negoziazio-prozesu bat hastearekin, eta akordio hori 2010a baino lehen duin dadin erreferendumera jartzearekin?"

sentarse por su cuenta, obteniendo un único escaño (al igual que Aralar), alejándose de la decisión adoptada en las dos convocatorias anteriores de concurrir en coalición con los jelkides. La falta de participación de la Izquierda Abertzale, que hizo un llamamiento a favor del voto nulo, no fue el único elemento central que condicionó el contexto de estos comicios. El año anterior, el Parlamento Vasco aprobó la denominada Ley de Consulta, con el objetivo de realizar una consulta a la ciudadanía de la CAPV, sobre un proceso de diálogo con ETA y el derecho a decidir[6]. La ley fue rechazada por el Tribunal Constitucional (TC) al considerar que no tenía el visto bueno del Gobierno español. En este contexto, se presentó por primera vez a las elecciones autonómicas la recién creada UPyD, obteniendo un escaño por la circunscripción alavesa. Ya entonces, los primeros síntomas de la Gran Recesión Económica empezaban a vislumbrarse, si bien sus efectos socioeconómicos más destacados se harían patentes durante los años siguientes.

6 Estas fueron las preguntas concretas planteadas: a) "¿Está usted de acuerdo en apoyar un proceso de final dialogado de la violencia, si previamente ETA manifiesta de forma inequívoca su voluntad de poner fin a la misma de una vez y para siempre?"; y b) "¿Está usted de acuerdo en que los partidos vascos, sin exclusiones, inicien un proceso de negociación para alcanzar un acuerdo democrático sobre el ejercicio del derecho a decidir del pueblo vasco, y que dicho acuerdo sea sometido a referéndum antes de que finalice el año 2010?"

2012ko urriaren 21ean burutu ziren Hauteskunde Autonomikoak Patxi Lopez Lehendakariak hilabete batzuk aurreratu zituen, PPrekin zuen itunaren apurketaren ondorioz. Testuinguruari lotutako elementu nagusien artean, gutxienez hiru azpimarratu beharko lirateke. Batetik, urtebete lehenago ETAk iragarritako borroka armatuaren amaiera; hortaz, sistema autonomikoa ezarri zenetik lehen aldia izango zen bere jardunik gabeko hauteskundeak burutzen zirenak. Bigarrenik, 2008an abiatutako Atzeraldi Handiaren eragin sozio-ekonomiko sakonak igartzen hasiak ziren EAEko jendartean; tartean administrazio publiko ezberdinen eskutik martxan jartzen hasitako murrizketak. Eta hirugarrenik, EH Bilduren agerpena Ezker Abertzalearen hautagaitzen legez kanporatzearen zikloaren ondoren.

EAJ-PNV berriro lehen indarra izango zen, kasu horretan Iñigo Urkulluren eskutik, baina aurreko deialdiarekin alderatuz ia lau puntu atzera eginez (%34,61) eta hiru eserleku gutxiago lortuz. EH Bilduren kasuan, indarrez sartu zen Gasteizko Legebiltzarrean bozken %25arekin eta 21 eserlekurekin, bere eginez hurrengo deialdietan errepikatuko zuen bigarren postua. PSE-EE izan zen atzerakadarik nabarmenena ezagutu zuena, hamaika puntu eta bederatzi eserleku gutxiagorekin, krisialdi ekonomikoaren koste politiko handiena pairatuz.

Las Elecciones Autonómicas celebradas el 21 de octubre de 2012 fueron adelantadas unos meses por el Lehendakari, Patxi López, como consecuencia de la ruptura del pacto con el PP. Entre los elementos principales relacionados con el contexto, destacar al menos tres. Por un lado, el fin de la lucha armada anunciado un año antes por ETA, por lo que sería la primera vez que se celebraban elecciones sin su actividad, desde la implantación del sistema autonómico. En segundo lugar, los profundos efectos socioeconómicos de la Gran Recesión iniciada en 2008 ya empezaban a hacerse palpables en la sociedad de la CAPV, entre ellos los recortes iniciados por las distintas administraciones públicas. Y, en tercer lugar, la irrupción de EH Bildu tras el ciclo de ilegalización de las candidaturas de la Izquierda Abertzale.

EAJ-PNV volvería a ser primera fuerza, en ese caso de la mano de Iñigo Urkullu, pero retrocediendo casi cuatro puntos respecto a la convocatoria anterior (34,61%) y obteniendo tres escaños menos. En el caso de EH Bildu, irrumpió con fuerza en el Parlamento de Vitoria-Gasteiz con el 25% de los votos y 21 escaños, asumiendo el segundo puesto que repetiría en las próximas convocatorias. Fue el PSE-EE el que conoció un retroceso más acusado, con once puntos y nueve escaños menos, sufriendo el mayor coste político de la crisis económica. La misma ten-

Beherako joera berdina jarraitu zuten PPk (%10,18) eta UPyD-k (%1,18), azken honek bere Arabako eserlekuari eutsi bazion ere. Ez zuen zorte berdina izan ezker konfederalaren esparruak, bi alderdi nagusi ezberdinetan aurkeztuta (Izquierda Unida-Los Verdes-Ezker Anitza eta Ezker Batua-Berdeak) ordezkaritzarik lortu ez zuena.

2016ko uztailaren 28an iragarri zuen Iñigo Urkulluk EAEko Hauteskunde Autonomikoak irailaren 25an burutuko zirela. Planteatutako arrazoien artean Espainian nagusitu zen desegonkortasun politikoa ekiditen saiatzea. Izan ere, 2015an burututako Hauteskunde Orokorretatik ateratako emaitzetatik presidentea aukeratzeko beharrezkoa zen gehiengoa osatu ezinik, hauteskunde berriak deitu ziren hurrengo urtean. Orduan ere, presidentea aukeratzeko prozesua katramilatsua suertatu zen, hirugarren hauteskunde deialdi baten aukera presente egonik. Ordurako Espainiako politikan bi alderdi politiko berri sortuak ziren, askoren ustez ordura arteko bipartidismoari amaiera ematera zetozenak; Podemos eta Ciudadanos. Krisialdi ekonomikoak baldintzatutako 2014ko Hauteskunde Europarretan lehen aldiz aurkeztutako bi alderdi hauek, lehen aldia izango zuten bertako hauteskunde autonomikoetan. Lehenengoak, Ezker Anitza eta Equo Berdeak-ekin koalizioa osatuta, bozken ia %15a eta hamaika

dencia descendente siguieron el PP (10,18%) y UPyD (1,18%), aunque este último mantuvo su escaño por Álava. No corrió la misma suerte el espacio de la izquierda confederal, que presentándose en dos partidos diferentes (Izquierda Unida-Los Verdes-Ezker Anitza y Ezker Batua-Berdeak) no obtuvo representación.

El 28 de julio de 2016, Iñigo Urkullu anunció que las Elecciones Autonómicas vascas se celebrarían el 25 de septiembre. Entre las razones argumentadas, el intento de evitar la desestabilización política imperante en España. De hecho, al año siguiente, tras los resultados de las Elecciones Generales celebradas en 2015, sin poder conformar la mayoría necesaria para elegir presidente, se convocaron nuevas elecciones. También entonces, el proceso de elección presidencial resultó complicado, estando presente la posibilidad de una tercera convocatoria electoral. Para entonces, ya habían surgido dos nuevos partidos políticos en la política española, según muchos, llamados a poner fin al bipartidismo que había imperado hasta el momento; Podemos y Ciudadanos. Estas dos formaciones presentadas por primera vez en las Elecciones Europeas de 2014 condicionadas por la crisis económica, tendrían ahora su primera oportunidad en las elecciones autonómicas. El primero, en coalición con Ezker Anitza y Equo Berdeak, obtuvo casi el 15% de los

eserleku eskuratu zituen, hirugarren indar bezala kokatuz, PSE-EEren aurretik. Bigarrenak ez zuen ordezkaritzarik lortu. Beste behin ere, EAJ-PNV alderdi bozkatuena izan zen; hiru puntu hazita eta eserleku bat gehiagorekin. EH Bildu bigarren indar bezala egonkortu zen, baina bozka kopuruan ia lau puntu (%21,26) eta hiru eserleku behera eginez (18 guztira). PSE-EEk eta PPk beherako joerarekin jarraitu zuten (era nabarmenagoan lehenengoaren kasuan), bozken %11,94 eta %10,18 lortuz, hurrenez hurren.

votos y once escaños, situándose como tercera fuerza, por delante del PSE-EE. El segundo no obtuvo representación. Una vez más, EAJ-PNV fue el partido más votado; con tres puntos de subida y con un escaño más. EH Bildu se consolidó como segunda fuerza, pero bajando casi cuatro puntos (21,26%) y tres escaños (18 en total). PSE-EE y PP continuaron con su tendencia descendente (de forma más acusada en el caso del primero), alcanzando el 11,94% y el 10,18% de los votos, respectivamente.

2020ko hauteskunde deialdiaren testuingurua COVID-aren pandemiagatik eta horri lotutako ondorioengatik erabat baldintzatua egon zen. Orduko parte hartzea inoiz erregistratuko baxuena izan zen (%50,78), ordura arteko hauteskundeen batez besteko parte hartzetik ia hamabost puntu behera. Pandemiak sortutako egoeraren inguruko neurriak gailendu ziren orduko eztabaidan, ETAk 2018ko maiatzean bere behin betiko desegitea iragarrita. EAJ-PNVk (%39,07), EH Bilduk (%27,86) eta PSE-EEk (%13,65) gora egin zuten (lehenengo biak hiruna eserleku gehiago lortuz eta beste bat hirugarrenak), Elkarrekin Podemos-ek (%8,05) eta PPk (%6,77) behera egin zuten bitartean (bost eta hiru eserleku, hurrenez hurren). Deialdi honek ere beste alderdi berri baten sarrera ekarri zuen; Vox-ena, hain zuzen, eserleku batekin.

El contexto de la convocatoria electoral de 2020, estuvo totalmente condicionado por la pandemia de la COVID-19 y sus consecuencias asociadas. La participación de entonces fue la más baja jamás registrada (50,78%), casi quince puntos por debajo de la participación media de los comicios celebrados hasta entonces. Las medidas sobre la situación generada por la pandemia se impusieron en el debate, una vez que ETA anunció su disolución definitiva en mayo de 2018. EAJ-PNV (39,07%), EH Bildu (27,86%) y PSE-EE (13,65%) subieron (los dos primeros obteniendo tres escaños más y otro más el tercero), mientras que Elkarrekin Podemos (8,05%) y PP (6,77%) bajaron (cinco y tres escaños, respectivamente). Esta convocatoria también supuso la entrada de otro nuevo partido; Vox, con un escaño.

# 7. Emaitzak

Azterketa enpirikoaren atal honetan, aztertutako datuen emaitzak azalduko dira; beti ere, hasierako atalean finkatutako hiru helburu espezifikoen arabera. Lehenengo atalean, alderdi politiko ezberdinek dimentsio nazionalistan eta ideologikoan izandako bilakaerari erreparatu zaio. Datu hauen analisia joera orokorrei begiratuta eta alderdi bakoitzaren bilakaerari begiratuta egin da, hurrenez hurren. Bigarren atalean, alderdi bakoitzaren bozkatzaileak bi dimentsioetatik zeinekiko kokatzen diren gertuago aztertu da. Azterketa hauteskunde deialdiz deialdi egin da, alderdi bakoitzaren azterketatik ateratako datuei erreparatuta. Hirugarren blokean, alderdi bakoitzaren bozka-osagaiak aztertzeko eraikitako erregresio ereduen koefizienteen emaitzak jaso dira. Azken zati honetan ere, urtekako irakurketa lehenetsi da, deialdi bakoitzaren inguruabarrari eta bertan emandako aldaketei garrantzia eman nahian.

### 7.1. Alderdi politikoen bilakaera dimentsio nazionalistan eta ideologikoan

Lehenik eta behin, alderdi politiko ezberdinek euskal abertzaletasunaren ardatzean izandako

# 7. Resultados

En este apartado del análisis empírico, se expondrán los resultados de los datos analizados en función de los tres objetivos específicos fijados en el apartado inicial. En la primera parte, se ha analizado la evolución de los diferentes partidos políticos, en su dimensión nacionalista e ideológica. El análisis de estos datos, se ha realizado atendiendo a las tendencias generales y a la evolución de cada partido, respectivamente. En el segundo apartado, se ha analizado de cuál de las dos dimensiones se sitúa más cerca el electorado de cada partido. El estudio se ha realizado por convocatoria electoral, en función de los datos extraídos del análisis de cada partido. En el tercer bloque, se recogen los resultados de los coeficientes de los modelos de regresión construidos para analizar los componentes de voto de cada partido. También en esta última parte, se ha priorizado la lectura por años, tratando de dar importancia a las circunstancias de cada convocatoria y a los cambios dados en las mismas.

### 7.1. Evolución de los partidos políticos en las dimensiones nacionalista e ideológica

En primer lugar, se observará la evolución de los diferentes partidos políticos seleccionados en el

bilakaerari erreparatuko zaio[7] (ikusi 1. irudia). Maila orokorrean aipatu beharreko lehen elementu nagusi bat alderdi ezberdinen arteko posizio erlatiboen egonkortasun orokorra litzateke. Hau da, aztertutako epealdian dimentsio nazionalistan ez da alderdien arteko *sorpassorik* ematen bakoitzaren kokapenari dagokionez. Joera honen salbuespena 2009ko hauteskundeetan jasotako emaitzak lirateke; bertan, euskal nazionalismoarekiko atxikimenduaren eskalan Aralar (7,65) eta EA (7,52), EAJ-PNV (7,42) baino posizio zertxobait nazionalistagoetan kokatzen baitira. Honen atzean elkar baztertzen ez duten bi arrazoi egon daitezke. Batetik, urte horretako hauteskundeetan Ezker Abertzaleak babestutako hautagaitza ezberdinen (D3M eta Askatasuna) legez kanporatzeak eta, ondorioz, aurreko hauteskundeetan berak bultzatutako hautagaitzari (EHAK) bozka emandako herritarrek gertu antzemandako, baina legez onartutako, bestelako aukerei botoa eman izanak, bozkaren eraginkortasunaren mesedetan. Izan ere, 2009ko inkestei erreparatzen badiegu, urte horretan Aralarreko bozkatzaileen artean ia ehuneko hamarrak eman zien botoa

7 Atal honetan, EA, Aralar, UPyD eta Vox-en emaitzak ere inkorporatu dira. Arrazoia bikoitza da: alde batetik, ikuspegi orokorrago bat lortzen saiatzea; eta bestetik, beste ataletan ez bezala, datu hauen inkorporazioak ez du emaitzen analisia askoz konplexuagoa egiten. Era berean, gorago aipatu bezala, 2009ko Ezker Abertzalearen daturik ez dagoenez, 1. irudian 2005 eta 2012ko datuak lotuz irudikatu dira.

eje sobre el nacionalismo vasco[7] (ver Figura 1). Un primer elemento a mencionar, sería la estabilidad general de las posiciones relativas entre diferentes partidos. Es decir, en la dimensión nacionalista en el periodo analizado, no se dan *sorpassos* entre los partidos en cuanto a la ubicación de cada uno. La excepción a esta norma serían los resultados obtenidos en las elecciones de 2009, donde en la escala de adhesión al nacionalismo vasco, Aralar (7,65) y EA (7,52) se sitúan en posiciones algo más nacionalistas que EAJ-PNV (7,42). Detrás de esto puede haber dos razones que no se excluyen mutuamente. Por un lado, la ilegalización de las distintas candidaturas apoyadas por la Izquierda Abertzale (D3M y Askatasuna) y, en consecuencia, que el electorado que votó a la candidatura impulsada por ella en las elecciones anteriores (EHAK), hubiese votado a otras opciones que se percibiesen cercanas, pero legalmente reconocidas, en aras de la eficacia del voto. De hecho, si nos fijamos en la encuesta de 2009, ese año casi el diez por ciento de los votantes de Aralar, votaron a EHAK en 2005. La segunda razón podría estar relacionada también con el desplazamiento de voto, pero, en

7 En este apartado, también se han incorporado los resultados de EA, Aralar, UPyD y Vox. La razón es doble: por un lado, intentar obtener una visión más global; y, por otro, a diferencia de otros apartados, la incorporación de estos datos no hace el análisis de los resultados mucho más complejo. Asimismo, tal y como se ha mencionado más arriba, en la Figura 1, a falta de datos de la Izquierda Abertzale de 2009, estos se han representado enlazando los datos de 2005 y 2012.

EHAK-ri 2005ean. Bigarren arrazoia bozka desplazamenduarekin ere lotuta egon daiteke, baina kasu honetan 2005eko hauteskundeetan Juan Jose Ibarretxek lideratutako EAJ-PNV/EA koalizioa bozkatutako askok 2009an Aralarri bozka eman izanarekin; inkesten arabera %17,2, hain zuzen. Izan ere, 2005eko hauteskundeak Ibarretxe Lehendakariak Estatutua erreformatzeko egindako proposamena galdeketetara eramateko hartutako konpromisoagatik eta Espainiako Gobernuak hori atzera botatzeko egindako mehatxuagatik erabat polarizatua egon zen (Sierra, 2022). Aukera horren oinarrian legoke, euskal abertzaletasunarekiko atxikimendu maila altuenak erakutsi zitzaketen askoren bozkak 2005ean koalizio horren alde egin izana, baina hurrengo deialdian Aralarrera jo izana. Edozein kasutan, alderdi abertzale hauen artean emandako aurreratze hauek oso apalak direla nabarmendu behar da, eta aintzat hartu, aztertutako seriean EAJ-PNVk euskal nazionalismoarekiko lortutako atxikimendu mailarik altuenarekin alderatzen dela.

este caso, con el hecho de que muchos de los votantes de la coalición EAJ-PNV/EA, liderada por Juan José Ibarretxe en las elecciones de 2005, votaran a Aralar en 2009; un 17,2% según las encuestas. De hecho, las elecciones de 2005 estuvieron totalmente polarizadas por el compromiso del Lehendakari Ibarretxe de llevar a consultas la propuesta de reforma del Estatuto y la amenaza del Gobierno español de rechazarlo (Sierra, 2022). En la base de esta opción, estaría el hecho de que el voto de muchos de los que podrían haber mostrado los niveles más altos de adhesión al nacionalismo vasco, se hubieran decantado en 2005 por esa coalición, pero en la próxima convocatoria, hubiesen optado por Aralar. En cualquier caso, hay que destacar que estos adelantamientos entre partidos abertzales son muy modestos, teniendo en cuenta que se compara con el mayor grado de adhesión al nacionalismo vasco alcanzado por EAJ-PNV en toda la serie analizada.

Joera orokorrei erreparatzen jarraituta, 2012tik aurrera, alderdi gehienen atxikimendua euskal nazionalismoarekiko handitzen dela aipatu daiteke, era apalean bada ere. Joera honen salbuespenak ardatzaren muturretan kokatzen diren alderdiak dira, EH Bildu eta PP; kasu horietan, ardatz horrekiko atxikimendua

Siguiendo con las tendencias generales, cabe señalar que, a partir de 2012, la adhesión de la mayoría de los partidos al nacionalismo vasco aumenta, aunque de forma limitada. Las excepciones a esta tendencia son los partidos que se sitúan en los extremos del eje, EH Bildu y PP; en esos casos, la adhesión a este eje se ralentiza. Aunque

moteldu egiten delarik. Alderdi bakoitzarengan ardatz bakoitzak izan duen garrantzian hurrengo ataletan sakonduko badugu ere, EH Bilduren kasuan mugimendu hau bere oinarri elektorala abertzaletasunarekiko horrenbesteko atxikimendua ez duen herritarren eskutik zabaldu izanarekin lotuta egon daiteke; eta PPren kasuan, 2020ko hauteskundeetan euskal abertzaletasunarekiko distantzia handiena zuen hautesleriaren zati bat Vox bozkatu izanaren aukerarekin[8].

Alderdiz alderdiko azterketari erreparatuta, orain arte aipatu ez diren gaiei dagokienez, nabarmentzekoak dira estatu mailako ezarpena duten bi alderdi ezkertiarren bilakaera paraleloa; PSE--EErena eta EB/B-Elkarrekin Podemos-ena, hain zuzen ere. 2009ko hauteskundeetan euskal nazionalismoarekiko atxikimenduan biek behera egin zuten bitartean, hortik aurrerako deialdietan apur bat gora jo egin zuten. EAEko biztanleria osoaren bilakaerari begiratzen bazaio, 2009ko deialdian egondako beheraldi txikia kenduta[9], epealdi osoan euskal abertzaletasunarekiko atxikimenduan gorako joeran kokatzen dela nabarmendu beharko litzateke, era nahiko leunean bada ere.

vamos a profundizar en los siguientes apartados en la importancia que ha tenido cada eje en cada partido, en el caso de EH Bildu, este movimiento puede estar relacionado con el hecho de que su base electoral se haya extendido de mano de personas que no muestren tanta adhesión al nacionalismo vasco; y, en el caso del PP, con el hecho de que, en las elecciones de 2020, la parte de su electorado que mostraba un mayor distanciamiento hacia el nacionalismo vasco haya podido votar a Vox[8].

Atendiendo al análisis partido a partido, en lo que se refiere a cuestiones que no hayan sido mencionadas hasta ahora, destaca la evolución paralela de las dos formaciones de izquierdas con implantación estatal; la del PSE-EE y la de EB/B-Elkarrekin Podemos. Mientras que, en las elecciones de 2009, ambos descendieron en su adhesión al nacionalismo vasco, aumentaron ligeramente en las siguientes convocatorias. Si se observa la evolución de la población total de la CAPV, salvo el ligero descenso registrado en la convocatoria de 2009[9], habría que destacar que, aunque de forma bastante moderada, se sitúa en una tendencia al alza en la adhesión al nacionalismo vasco a lo largo de todo el periodo.

8 2020ko inkestaren arabera, Vox bozkatu zutenen %37,2ak 2016an PP bozkatu zuen.
9 Beherako joera hori 2009an, oso txikia izateaz gain, Ezker Abertzaleko hautesleria urte horretan aintzat hartu ez izanaren ondorio ere izan daiteke, bere hautagaitzaren legez kanporatzeagatik.

8 Según la encuesta de 2020, el 37,2% de los que votaron a Vox, en 2016 votó al PP.
9 Esta tendencia a la baja en 2009, además de ser mínima, puede deberse también a que el electorado de la Izquierda Abertzale no ha sido considerado ese año por la ilegalización de su candidatura.

Irudia 1. EAEko alderdietako bozkatzaileen atxikimenduaren bilakaera euskal nazionalismoarekiko (2005-2020)

Figura 1. Evolución de la adhesión de los votantes de los partidos de la CAPV al nacionalismo vasco (2005-2020)




Iturria: CIS. Autoreak eginda. / Fuente: CIS. Realizado por el autor.

Ardatz ideologikoaren kasuan, joera orokorrei dagokienez, arestian azaldutako dimentsio nazionalistarekin antzekotasunak antzeman daitezke (ikusi 2. Irudia). Bertan ere, alderdi nagusien arteko posizio erlatiboetan ez da aldaketa esanguratsurik emango denboran zehar. Jendarte osoaren bilakaeraren kasuan, nabarmentzekoa da 2009tik aurrera posizio ezkertiarragoetan kokatzeko erakutsitako joera; Atzeraldi Ekonomiko Handiaren garapenarekin batera, hain zuzen. Joera aurrerakoiago hau 2016tik 2020ra doan hauteskundeetan alderdi guztiek konpartituko dute, batez

En el caso del eje ideológico, en cuanto a las tendencias generales, se aprecian similitudes con la dimensión nacionalista descrita anteriormente (ver Figura 2). Tampoco en ella se producirán cambios significativos en las posiciones relativas entre los principales partidos a lo largo del tiempo. En el caso de la evolución del conjunto de la población, destaca la tendencia mostrada a partir de 2009 de situarse en posiciones más izquierdistas, coincidiendo con el desarrollo de la Gran Recesión Económica. Esta tendencia más progresista será compartida por todos los partidos en las eleccio-

ere ezkerreko muturretik gertuago kokatzen diren bi alderdiengan nabarmenagoa izanik; EH Bildu eta Elkarrekin Podemos-engan.

Alderdiz alderdi aztertuta, PPren kasuan, posizio eskuindarrenetan kokatzen den alderdi bezala, 2020ko hauteskundeetan bere kokapena moderatzen duela aipatu daiteke; dimentsio nazionalistaren atalean ikusi bezala, ziur aski Vox-ekiko izandako bozka transferentziaren ondorioz. Antzeko zerbait, baina kontrako zentzuan, pasa ziezaiokeen EAJ-PNVri 2012ko hauteskundeetan; sortu berria zen Bildurekiko bozka transferentzian (inkesten arabera, 2012an Bilduri bozka eman ziotenen %9,5k 2009an EAJ-PNV-ri eman zioten) bere bozkatzaile aurrerakoienak koalizio berriari botoa eman izana, hain zuzen. Aipatu gabe gelditu direnen artean, nabarmentzekoa da PSE-EEren joera egonkorra; bere bozkatzaileen auto-kokapena ardatz honetan 3,41 eta 3,92 bitartekoa izanik epealdi osoan zehar.

nes de 2016 a 2020, sobre todo en los dos partidos que se sitúan más cerca del extremo izquierdo; EH Bildu y Elkarrekin Podemos.

Analizando partido por partido, en el caso del PP, como partido que se sitúa en las posiciones más derechistas, cabe señalar que modera su ubicación en las elecciones de 2020; como se vio en el apartado de la dimensión nacionalista, probablemente de mano de la transferencia de voto a Vox. Algo parecido, pero en sentido contrario, podría haberle pasado a EAJ-PNV en las elecciones de 2012; es decir, que en su transferencia de voto a Bildu (según las encuestas, el 9,5% de los que votaron a Bildu en 2012, lo hicieron a EAJ-PNV en 2009), su votante más progresista hubiera votado a la nueva coalición. Entre los no citados hasta ahora, destaca la tendencia estable del PSE-EE, cuya autoubicación en este eje oscila entre 3,41 y 3,92, a lo largo de todo el periodo.

Irudia 2. EAEko alderdietako bozkatzaileen atxikimenduaren bilakaera ezker-eskuin ardatzarekiko (2005-2020)

Figura 2. Evolución de la adhesión de los votantes de los partidos de la CAPV al eje izquierda-derecha (2005-2020)




Iturria: CIS. Autoreak eginda. / Fuente: CIS. Realizado por el autor.

### 7.2. Alderdi ezberdinetako bozkatzaileen gutxieneko distantziak beraien alderdiarekiko ardatz nazionalistan eta ideologikoan

Gorago aipatu bezala, atal honetako datuak urteka azalduko dira, alderdi bakoitzaren bozkatzaileak bere erreferentziazko alderdiei dagokienez, bi dimentsioen artean zeinetatik gertuago kokatzen diren argitzen saiatzeko asmoz. Gorago aipatu bezala, horren asmoa bozka ematerako

### 7.2. Distancias mínimas de los electorados de los diferentes partidos respecto a sus partidos en las dimensiones nacionalista e ideológica

Como se ha mencionado más arriba, los datos de este apartado se expondrán por años, con el fin de dilucidar de cuál de las dos dimensiones se sitúan más cerca los votantes de cada partido con respecto a su partido de referencia. Tal y como se ha mencionado más arriba, el objetivo sería inda-

orduan bi ardatzen artean zeinek izan dezakeen garrantzia handiagoa arakatzea litzateke.

**2005**

EAEko estatus politikoaren etorkizunaren inguruko eztabaidak baldintzatutako hauteskunde horietan, alderdi bakoitzeko bozkatzaileek bere erreferentziazko alderdiari dagokionez, ardatz nazionalistarekiko eta ideologikoarekiko antzematen zuten distantziari erreparatzen badiogu, honako ondorioak atera daitezke (ikusi 2. taula). EAJ-PNVren kasuan[10], bere bozkatzaileek euskal nazionalismoarekiko zuten atxikimendu edo gutxieneko distantziaren kasuan, lehen datu bitxi batekin topo egin dezakegu. Gainontzeko alderdien kasuan gutxitan ikusi ahal izango den bezala, bere gertutasun handiena beste hiru alderdi abertzaleekin partekatuta izango da, hots, EHAK, EA eta Aralarrekin; bigarren distantzia minimoa EAJ-PNVrekiko era esklusiboan izanik. Emaitza

10 Kasu honetan, aintzat hartu behar da EAJ--PNV EArekin batera koalizioan aurkeztu zela. Aldiz, erabilitako inkestak inkestatuei aukera ematen zien alderdi bakoitzaren posizioaren inguruan galdetzeko; hau da, batetik, EAJ/PNVri dagokienez, eta bestetik, EAri dagokionez, baina emandako bozkaren inguruko galdera koalizioren ingurukoa izanik. Honen ondorioetako bat izan daiteke EAJ-PNVk urte horretan bi dimentsioetan jasotako portzentaiak besteetan baina baxuagoak izatea (taula ezberdinak alderatuz ikusi daitekeen bezala). Izan ere, EAren *jatorrizko* bozkatzaileek koalizio hau bozkatuko zutela pentsatu daiteke, baina beraien distantzia minimoak EArekiko izanik, datu horiek EAJ-PNVren zutabeetan agertuko ez direlarik, noski.

gar cuál de los dos ejes puede tener mayor importancia a la hora de votar.

**2005**

En estas elecciones condicionadas por el debate sobre el futuro del estatus político de la CAPV, si atendemos a la distancia que el electorado de cada partido percibía respecto a su partido de referencia en el eje nacionalista e ideológico, se pueden extraer las siguientes conclusiones (ver tabla 2). En el caso de EAJ-PNV[10], nos podemos encontrar con un primer dato curioso en lo que respecta a la adhesión o a la distancia mínima de sus votantes hacia el nacionalismo vasco. Como se verá pocas veces en el resto de partidos, su mayor cercanía será compartida con las otras tres formaciones abertzales, es decir, EHAK, EA y Aralar; siendo la segunda distancia mínima, con respecto a EAJ-PNV de manera exclusiva. Estos resultados pueden estar relacionados con el grado de polarización entre las fuerzas favo-

10 En este caso, hay que tener en cuenta que EAJ-PNV concurrió en coalición con EA. Sin embargo, la encuesta utilizada permitía preguntar por la posición de cada partido; es decir, por un lado, en relación a EAJ/PNV, y por otro, en relación a EA, pero siendo la pregunta referida al voto sobre la coalición. Una de las consecuencias de esto puede ser que los porcentajes recogidos por EAJ-PNV en ambas dimensiones ese año, sean inferiores a los otros (como se puede ver comparando las diferentes tablas). De hecho, se puede pensar que los votantes *originales* de EA votarían esta coalición, pero siendo sus distancias mínimas respecto a EA, datos que evidentemente no aparecerán en las columnas de EAJ-PNV.

hauek bestelako ikerketa batzuek (Sierra, 2022) urte horretan identifikatutako euskal burujabetzaren aldeko eta kontrako indarren arteko polarizazio mailarekin lotuta egon daitezke. Izan ere, polarizazioaren efektu ohikoenetakoa tartean gelditzen diren indar *epelenak* muturretatik gertuago kokatzea izaten baita, espazio hori konpartitzen duten bestelako indarrekiko hurbiltasuna handiagoa izanik (McAdam, Tarrow eta Tilly, 2005). Dimentsio sozialari dagokionean, ohikoagoa izaten den patroia erreproduzitzen da, EAJ-PNV bera izanik bere bozkatzaileek gertuen kokatzen duten hautu politikoa era esklusiboan. Bigarren aukera, berriz, EArekiko EAJ-PNVrekiko bezain gertu sentitzea izango da, ziur aski aurreko urteetan gobernu koalizioa konpartitu izanak sor dezakeen identifikazioen ondorioz. Alderdi honek bi dimentsioetan lortutako emaitzei erreparatuta, euskal abertzaletasunarekiko atxikimenduak garrantzia handiago izan dezakeela ondoriozta daiteke. Izan ere, EAJ-PNV gutxienez behin gertuen dagoen aukera gisa agertzen den ehunekoen batuketa jasotzen duen ilarari erreparatuz gero ("Alderdi bakoitzak guztira"), ardatz horren pisua (%55,9) ideologikoa baino handiago litzateke (%47,1).

rables y contrarias al soberanismo vasco, identificado ese año por otros estudios (Sierra, 2022). De hecho, uno de los efectos más comunes de la polarización suele ser que las fuerzas más *tibias* que se ubican en el centro del espectro político, tiendan a situarse más cerca de los extremos, resultando una mayor cercanía hacia otras fuerzas que habitualmente ocupan ese espacio (McAdam, Tarrow y Tilly, 2005). En cuanto a la dimensión social, se reproduce el patrón más habitual, siendo el propio EAJ-PNV la opción política más cercana a sus votantes de forma exclusiva. La segunda opción será sentirse tan cerca de EA, como de EAJ-PNV, seguramente fruto de las identificaciones que haya podido generar el hecho de haber compartido coalición de gobierno durante los años anteriores. De los resultados obtenidos por este partido en ambas dimensiones, se deduce que la adhesión al nacionalismo vasco puede tener mayor importancia. De hecho, si se observa la fila que recoge la suma de los porcentajes en los que EAJ-PNV aparece al menos una vez como opción más cercana (“Total de cada formación”), el peso de este eje sería mayor (55,9%) que el ideológico (47,1%).

PSE-EEren kasuan, dimentsio nazionalistan bera bakarrik agertuko da lehen aukera bezala (%26) bere bozkatzaileen artean, baina PPrekiko gutxieneko dis-

En el caso del PSE-EE, en la dimensión nacionalista solo él aparecerá como primera opción entre sus votantes (26%), pero siendo la segunda opción la distancia

tantzia bigarren aukera izanik tarte oso txikira (%25,5). Berriro ere, ardatz nazionalaren inguruan sortutako polarizazioak, alde bakoitzean kokatzen diren indarren arteko gertutasuna areagotzeko joera erakuts lezake. Dimentsio ideologikoaren erreparatzen badiogu, aldiz, barne kohesioa nabariagoa izango da. Alde handiz PSE-EE bera gertuen duten aukera gisa irudikatuko baitute bere bozkatzaileen %33,3ak. Bi ardatzen arteko alderaketari dagokionez, berriz, alderdi sozialistaren kasuan, ezker-eskuin dimentsio ideologikoak nazionalistak baino garrantzia handiagoa duela emango luke; %67,7 eta %57,2, hurrenez hurren.

Ardatz nazionalistarekiko atxikimendu hori are nabariagoa izango da PPren kasuan, non bere bozkatzaileen ia bi herenek (%63,9) sentitzen zuten gai honetan bere alderdia zela hauturik gertukoena era esklusiboan; PSE-EErekiko distantzia berdina agertuz bigarren aukera bezala (%13,1). Ardatz ideologikoarekiko distantziari dagokionez, PPk bakarrik jarraituko du izaten lehen aukera (%43,1), baina ez dimentsio nazionalistan bezain era nabarmenean. Bertan, PPko bozkatzaileek EAJ-PNVrekiko hautematen duten gertutasuna ere igarri da. Bere bozkatzaileen %15,7k alderdi jeltzalea identifikatuko dute aukera hurbilena bezala, eta %11,8k gertutasun bera sentituko dute batekiko edo bestearekiko. Bi dimentsioak aintzat

mínima respecto al PP, con un margen muy reducido (25,5%). De nuevo, la polarización generada en torno a la dimensión nacional podría mostrar una tendencia a aumentar la cercanía entre las fuerzas que se sitúan a cada lado del eje. Si nos fijamos en la dimensión ideológica, en cambio, la cohesión interna será más evidente. Con diferencia, el PSE-EE será la opción más cercana para el 33,3% de sus votantes. En cuanto a la comparación entre ambos ejes, en el caso del Partido Socialista, la dimensión ideológica izquierda-derecha parecería más relevante, que la nacionalista; 67,7% y 57,2%, respectivamente.

Esta adhesión al eje nacionalista será aún más evidente en el caso del PP, donde casi dos tercios de sus votantes (63,9%) sentían que su partido era la opción más cercana en este asunto de forma exclusiva; mostrándose la misma distancia con el PSE-EE, como la segunda opción (13,1%). En cuanto a la distancia en el eje ideológico, el PP de manera exclusiva seguirá siendo la primera opción (43,1%), aunque no de forma tan evidente como en la dimensión nacionalista. En ella también se deja entrever la cercanía de los votantes del PP hacia EAJ-PNV. Un 15,7% de sus votantes identificarán a la formación jeltzale como la opción más cercana y un 11,8% sentirá la misma cercanía hacia ambas. Atendiendo a ambas dimensiones, los votantes del

hartuz, PPko bozkatzaileak gertuago kokatuko dira bere alderdiarekiko ardatz nazionalistan, ideologikoan baino.

Era berdinean, baina kontrako zentzuan, kokatu ziren EHAKko bozkatzaileak. Bertan alderdia bera izango da lehen aukera bi dimentsioetan. Nazionalistaren kasuan, heren batek baino gehiagok (%34,2) bere alderdia kokatu zuen era esklusiboan hurbilen zuen aukera bezala. Aipatzekoa da kopuru esanguratsu batek distantzia berdina igartzen zuela berarekiko eta banandu berria zen Aralarrekiko (%13,2), eta beste kopuru inportante batek alderdi abertzale ezberdinak gertutasun berdinaz ikusten zituela (%11,2). Antzeko joera bat errepikatuko da ezker-eskuin ardatzean, EHAK eta Aralar distantzia berdinera kokatzen zuen sektore esanguratsu batekin; bere bozkatzaileen %11,9ak, hain zuzen. Bi dimentsioak aintzat hartuta, abertzaletasunaren ingurukoak garrantzia handiagoa hartu zuen, ideologikoak baino (%73 eta %64,8, hurrenez hurren).

EB-Bren kasuan, joera orokorra errepikatuko da, alderdia bera agertuz lehen aukera gisa bi ardatzetan. Euskal nazionalismoaren inguruko ardatzari dagokionez, aipatzekoa litzateke estatu mailako izaera duen alderdia izateak bere bozkatzaileengan izan zezakeen eragina, bi alderdi abertzaleekin gobernua konpartitu arren eta autodeterminazio

PP se situarán más cerca de su partido en el eje nacionalista, que en el ideológico.

De la misma manera, pero en sentido contrario, se situaron los votantes de EHAK. Allí el propio partido será la primera opción en ambas dimensiones. En el caso de la nacionalista, más de un tercio (34,2%) situó a su partido en exclusiva como la opción más cercana. Cabe destacar que un número significativo percibía la misma distancia con respecto a él, que con respecto a la recién escindida Aralar (13,2%), y otro sector importante percibía a los diferentes partidos nacionalistas vascos igual de cercanos (11,2%). Una tendencia similar se repetirá en el eje izquierda-derecha, con un sector significativo que situaba a EHAK y Aralar a la misma distancia; el 11,9% de sus votantes. Teniendo en cuenta ambas dimensiones, la relativa a nacionalismo adquiere mayor peso que la ideológica (73% y 64,8%, respectivamente).

En el caso de EB-B, se repetirá la tendencia general, apareciendo el propio partido como primera opción en ambos ejes. En el eje que gira en torno al nacionalismo vasco, habría que señalar la influencia que el hecho de ser un partido de carácter estatal podría tener en sus votantes, a pesar de compartir gobierno con dos formaciones nacionalistas vascas y de mostrarse partidaria del derecho

eskubidearen alde agertu arren (baita Ibarretxe Planaren alde ere). Izan ere, bere bozkatzaileen artean era nabarmenean EB-B bera hurbilen dagoen aukera bezala nagusitzen bada ere (%36,7), beste bi estatu mailako alderdiekiko gertutasuna ere emaitzetan agertzen baita; PPrekiko gutxieneko distantzia sentitzen dutenak %12,2a izanik, eta EB-B eta PSE-EEkiko berdin kokatzen direnak beste %12,2. Bestelakoa izango da egoera dimentsio ideologikoan, non EB-B, EHAK eta Aralarrekiko distantzia berdina konpartitzen duen sektorea bigarren talde bezala agertzen den (%16,5), lehenengotik oso gertu; edota, EB-B eta Aralarren arteko gutxieneko distantzia partekatua ere (%14,1), lehen aukeratik oso hurbil kokatuko da. Bi ardatzen arteko garrantziari dagokionez, biak oso paretsu kokatuko dira, %60aren bueltan.

de autodeterminación (también del Plan Ibarretxe). De hecho, aunque entre sus votantes la propia EB-B prevalece de forma notable como la opción más cercana (36,7%), en los resultados también se manifiesta la cercanía con los otros dos partidos estatales; los que sienten una distancia mínima con el PP son el 12,2%, y los que se sitúan igual de EB-B y PSE-EE, otro 12,2%. Diferente será la situación en la dimensión ideológica, donde el sector que comparte la misma distancia con EB-B, EHAK y Aralar aparece como segundo grupo (16,5%), muy cerca del primero; o, la distancia mínima compartida entre EB-B y Aralar (14,1%), también se situará muy cerca de la primera opción. En cuanto a la importancia entre ambos ejes, ambos se situarán muy parejos, en torno al 60%.

Taula 2. Alderdi ezberdinen 2005eko gutxieneko distantziak ehunekotan (%)[11]

Tabla 2. Distancias mínimas de los diferentes partidos en 2005 en porcentajes (%)[11]

| | EAJ/PNV | | PSE-EE | | PP | | EHAK | | EB | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** |
| **EAJ/PNV** | 11,6 | **16,8** | | 0,5 | 1,6 | 15,7 | 2,0 | | 1,1 | 2,4 |
| **EHAK** | 3,0 | 2,4 | | 1,0 | | | **34,2** | **31,4** | 2,2 | 5,9 |
| **EB** | 8,3 | 4,5 | 7,8 | 7,3 | 1,6 | | 1,3 | 7,5 | **36,7** | **18,8** |
| **PSE** | 2,3 | 9,3 | **26,0** | **33,3** | 1,6 | 3,9 | 0,7 | 4,4 | 8,9 | 5,9 |
| **PP** | 0,8 | 0,3 | 25,5 | 1,0 | **63,9** | **43,1** | | 0,6 | 12,2 | |
| **Aralar** | 5,3 | 1,9 | 2,1 | 0,5 | | | 5,9 | 6,9 | 2,2 | 4,7 |
| **EA** | 4,0 | 8,8 | 0,5 | 3,6 | | | 3,9 | 3,1 | | 3,5 |
| **EAJ/PNV=EHAK** | 2,0 | | | | | | 2,0 | | | |
| **EAJ/PNV=EA** | 8,1 | 12,2 | | | | | | | | |
| **EAJ/PNV=EB** | 1,5 | 1,1 | | | | | | | 1,1 | 1,2 |
| **EAJ/PNV=PSE** | 0,3 | 3,7 | | 1,0 | | | | | | |
| **EAJ/PNV=PP** | | 0,5 | | | | 11,8 | | | | |
| **EAJ/PNV=Aralar** | 2,8 | 1,1 | | | | | | | | |
| **PSE=EHAK** | | | 0,5 | 1,6 | | | | | | |
| **PSE=EA** | | | 0,5 | 8,3 | | | | | | |
| **PSE=EB** | | | 8,9 | 9,9 | | | | | 12,2 | 1,2 |
| **PSE=PP** | | | 10,9 | 1,0 | 13,1 | | | | | |
| **PSE=Aralar** | | | 1,0 | 3,1 | | | | | | |
| **EHAK=EA** | | | | | | | 0,7 | 1,3 | | |
| **EHAK=EB** | | | | | | | 0,7 | 6,9 | | 3,5 |
| **EHAK=Aralar** | | | | | | | 13,2 | 11,9 | | |
| **EB=PP** | | | | | 1,6 | | | | | |
| **EB=EA** | | | | | | | | | 2,2 | 1,2 |
| **EB=Aralar** | | | | | | | | | 1,1 | 14,1 |
| **PP=Aralar** | | | | | | 2,0 | | | | |
| **PP=EA** | | | | | | 2,0 | | | | |

11 Salbuespen bezala, urte honetan, EAJ-PNV biltzen dituen lau eta bost alderdien arteko konbinazio posibleak jasotzen dira, gorago azaldutako testuingurua aintzat hartuz, burujabetzaren aldeko alderdien arteko gertutasun handia emango zela aurre ikusten zelako, datuek beraiek erakutsi bezala. Bestetik, beltzez markatuta egongo dira alderdi bakoitzaren bozkatzaileen artean portzentai handiena biltzen duen aukera, dimentsio bakoitzean.

11 De manera excepcional, en este año se recogen las posibles combinaciones de cuatro y cinco partidos en las EAJ-PNV estén presentes, dado el contexto expuesto más arriba, en el que se preveía una gran cercanía entre los partidos soberanistas, tal y como reflejan los propios datos. Por otro lado, la opción que aglutine el mayor porcentaje de votantes de cada partido en cada dimensión, estará marcada en negrita.

| | **EAJ/**PNV | | **PSE-EE** | | **PP** | | **EHAK** | | **EB** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** |
| **EAJ/**PNV**=PSE=EB** | | 1,6 | | 0,5 | | | | | | |
| **EAJ/**PNV**=EHAK=Aralar** | 1,0 | 0,3 | | | | | 2,0 | | | |
| **EAJ/**PNV**=EHAK=EB** | | | | | | | | 0,6 | | |
| **EAJ/**PNV**=PSE=EB** | | | | | | | | | 1,1 | |
| **EAJ/**PNV**=EB-EP=Aralar** | 0,5 | | | | | | | | 1,1 | |
| **EAJ/**PNV**=EHAK=EA** | 3,3 | 0,5 | | | | | 3,3 | | | |
| **EAJ/**PNV**=EB=EA** | 1,3 | 0,5 | | | | | | | | |
| **EAJ/**PNV**=PSE=EA** | | 3,5 | 0,5 | 3,1 | | | | | | |
| **EAJ/**PNV**=PP=EA** | | 1,1 | | | | 3,9 | | | | |
| **EAJ/**PNV**=Aralar=EA** | 5,1 | 2,7 | | | | | | | | |
| **PSE=EHAK=Aralar** | | | | 1,0 | | | | | | |
| **PSE=PP=EA** | | | | | | 2,0 | | | | |
| **PSE=PP=Aralar** | | | 0,5 | | | | | | | |
| **PSE=EB=Aralar** | | | 0,5 | 2,6 | | | | | | |
| **PSE=EHAK=Aralar** | | | | 1,0 | | | | | | |
| **PSE=EHAK=EB** | | | | | | | | | 1,1 | |
| **PSE=EHAK=EA** | | | 0,5 | | | | | | | |
| **PSE=EB=EA** | | | 0,5 | 1,6 | | | | | | 1,2 |
| **PSE=EB=PP** | | | 6,8 | | 3,3 | | | | 3,3 | |
| **PSE=Aralar=EA** | | | | 0,5 | | | | | | |
| **EHAK=Aralar=EA** | | | | | | | 3,3 | 0,6 | | |
| **EHAK=PP** | | | | | | | 0,7 | | | |
| **EHAK=PSE=EB** | | | | | | | 0,7 | | | |
| **EHAK=EB=Aralar** | | | | | | | 0,7 | 11,9 | | 16,5 |
| **EHAK=EB=EA** | | | | | | | 0,7 | | | 1,2 |
| **PP=EHAK=Aralar** | | | | | 1,6 | | | | | |
| **EB=Aralar=EA** | | | | | | | | | | 1,2 |
| **EAJ=EHAK=EA= Aralar=EB** | 2,5 | | | | | | | | | |
| **EAJ=EHAK=EA=Aralar** | **15,9** | 1,6 | | | | | 11,2 | | | |
| **Beste aukerak** Otras opciones | 20,4 | 25,8 | 6,9 | 17,2 | 11,5 | 15,7 | 13,2 | 12,6 | 13,3 | 17,6 |
| **Guztira /** Total | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100 | 100,0 |
| **Alderdi bakoitzak guztira** Total de cada formación | **55,9** | 47,1 | 57,2 | **67,7** | **83,6** | 64,7 | **73,0** | 64,8 | 60,0 | 60,0 |

Iturria: CIS. Autoreak eginda./ Fuente: CIS. Realizado por el autor.

**2009**

EAJ-PNVrekin hasiz, berriro ere dimentsio nazionalistan bere bozkatzaileek gainontzeko alderdi abertzaleekiko hautemango duten gertutasuna nabaria izango da. Hauteskunde hauetara aurkeztu ahal izan ziren hiru alderdi abertzaleen arteko gutxiengo distantzia konpartitua lehen aukera bezala agertuko da bere bozkatzaileen artean (%23,2), gertutik EAJ-PNV azalduz era esklusiboan bigarren aukera bezala, %20,8rekin. Dimentsio ideologikoan, berriz, alderdi jeltzalea era argian gailenduko da, berarekiko gutxieneko distantzia era bakarrean izanik hautu nagusia (%20,8). Bi dimentsioak aintzat hartuz, berriro ere euskal nazionalismoarekiko hurbiltasuna nagusituko litzateke bere bozkatzaileen artean, ezker--eskuin ardatzak izango lukeen garrantziaren aurrean.

PSE-EErekin jarraituz, dimentsio nazionalistan zein ideologikoan berarekiko gertutasuna era bakarrean lehen aukera bezala agertuko da. Ardatz nazionalistari dagokionez, 2005eko hauteskundeetan bigarren aukera bezala PPrekiko distantzia minimoa agertzen zen bitartean (alde oso txikiarekin), oraingoan EB-B eta PSE-EErekiko distantzia berdinean kokatzen direnak izango dira bigarren postuan kokatuko direnak (%11). Aldaketa honen atzean lau urte lehenago Ibarretxe Planaren inguruan emandako polarizazioa-

**2009**

Comenzando por EAJ-PNV, de nuevo en la dimensión nacionalista será evidente la cercanía que sus votantes van a percibir con respecto al resto de formaciones abertzales. La distancia mínima compartida entre los tres partidos nacionalistas que pudieron concurrir a estas elecciones aparecerá como primera opción entre sus votantes (23,2%), mostrando de cerca al EAJ-PNV de forma exclusiva como segunda opción, con un 20,8%. En la dimensión ideológica, por su parte, la formación jeltzale imponiéndose con una distancia mínima de manera exclusiva (20,8%). Atendiendo a ambas dimensiones, una vez más la cercanía al nacionalismo vasco volvería a imponerse entre sus votantes, frente a la importancia que tendría el eje izquierda-derecha.

Continuando con el PSE-EE, tanto en la dimensión nacionalista como en la ideológica, la cercanía con respecto a él de manera única aparecerá como la primera opción. En cuanto al eje nacionalista, mientras que en las elecciones de 2005 aparecía como segunda opción la distancia mínima con el PP (con muy poca diferencia), en esta ocasión serán los que se sitúen a la misma distancia con EB-B y PSE-EE los que se situarán en segundo lugar (11%). Detrás de este cambio, podría encontrarse el debilitamiento de la polarización

ren apaltzea aurkitu liteke. Dimentsio ideologikoaren kasuan, bigarren aukera, berriz ere, EB-Bekin konpartitzen den distantzian errepikatuko da (%15,2). Biak aintzat hartuta, berriro ardatz ideologikoa nabarmenduko da, baina oraingoan alde nabarmenagoarekin.

Arestian aipatutako polarizazioaren maila bateko apaltzearen ondorio bezala ere uler litezke PPren datuak. Bi ardatzetan bera era esklusiboan lehen aukera bezala azaltzen bada ere, euskal nazionalismoari dagokionez, bere muturreko posizioarekiko era bakarrean identifikatzen den bozkatzaileen portzentaia %63,9tik 48,3%era pasatzen da. Edozein kasutan, aintzat hartu behar da bozkatzaile popularrek UPyD-rekiko igarriko duten hurbiltasuna; izan bera era esklusiboan gertuen duten aukera bezala sentituz (%9,8), izan bien arteko distantzia berdina igarriz (%8,5). Ardatz ideologikoari dagokionez, nabarmentzekoa berriro ere bozkatzaile popularrek EAJ-PNVrekiko sumatzen duten hurbiltasuna, berarekiko hurbiltasun handiena jasotzen duen aukera bigarren posizioan kokatuz (%17,3). Bozkatzaile popularren urte horretako emaitzekin bukatzeko, aipatzea bi lerroak aintzat hartuta nazionalismoaren ingurukoa garaile agertzen dela berriro, hamalau puntuko aldearekin (%65,5 eta %51).

EB-Bi dagokionez, bozkatzen den alderdiarekiko esklusibota-

dada cuatro años antes en torno al Plan Ibarretxe. En el caso de la dimensión ideológica, la segunda opción volverá a ser la distancia compartida con EB-B (15,2%). Teniendo en cuenta ambos ejes, volverá a destacar el eje ideológico, aunque esta vez con una diferencia más acusada.

También cabría entender como una consecuencia de la moderación gradual de la polarización antes citada, los datos del PP. Aunque en ambos ejes aparece como la primera opción de manera exclusiva, en el caso del nacionalismo vasco, el porcentaje de votantes que se identifica de forma única con su posición extrema pasa del 63,9% al 48,3%. En cualquier caso, hay que tener en cuenta la cercanía que los votantes populares sentirán hacia UPyD, ya sea sintiéndola como la opción más cercana en exclusiva (9,8%) o percibiendo la misma distancia entre ambos (8,5%). En cuanto al eje ideológico, destaca de nuevo la cercanía que perciben los votantes populares hacia EAJ-PNV, situándose en segunda posición la opción que muestra la mayor cercanía hacia él (17,3%). Para terminar con los resultados de ese año de los votantes populares, señalar que, teniendo en cuenta ambas dimensiones, el nacionalismo vuelve a ser el vencedor, con una ventaja de catorce puntos (65,5% y 51%).

En cuanto a EB-B, siguen predominando los signos de exclusivi-

sun zantzuek nagusitzen jarraitzen dute. Hori horrela izanik ere, ardatz ideologikoaren kasuan, Aralarrekin espazio esanguratsu bat konpartituko da; izan berarekin gutxieneko distantzia agertzen duen sektorearen garrantziagatik (%11,7), izan beraien burua biekiko distantzia berdinean kokatzen duten bozkatzaile multzoaren inportantziagatik (%12,8). Ardatz nazionalistaren kasuan, orube elektoral komun hori PSE-EErekin partekatuko da, bere bozkatzaileen ia %15k berarekiko gertuen sentituko baita. Bi dimentsioen alderaketari dagokionez, ezker konfederalaren bozkatzaileen kasuan, deialdi honetatik aurrera era nabarmenean nagusituko da ezker-eskuin ardatzaren garrantzia nazionalistaren gainetik, hogeita hamar puntuko aldeagatik.

dad respecto al partido que se vota. No obstante, en el caso del eje ideológico, se compartirá con Aralar un espacio significativo, ya sea por la importancia de un sector que muestra una distancia mínima con él (11,7%), ya sea por la importancia de un grupo de votantes que se sitúan a la misma distancia de ambos (12,8%). En el caso del eje nacionalista, ese solar electoral común será compartido con el PSE-EE, ya que casi el 15% de sus votantes se sentirá más cercano a él. En cuanto a la comparación entre las dos dimensiones, en el caso de los votantes de la izquierda confederal, a partir de esta convocatoria prevalecerá notablemente la importancia del eje izquierda-derecha sobre el nacionalista, por una diferencia de treinta puntos.

Taula 3. Alderdi ezberdinen 2009ko gutxieneko distantziak ehunekotan (%)

Tabla 3. Distancias mínimas de los diferentes partidos en 2009 en porcentajes (%)

| | EAJ/PNV | | PSE | | PP | | EB | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | NAZ. NAC. | IDE. | NAZ. NAC. | IDE. | NAZ. NAC. | IDE. | NAZ. NAC. | IDE. |
| EAJ/PNV | 20,8 | **20,8** | 1,2 | | 4,2 | 17,3 | 1,2 | 3,4 |
| Aralar | 5,6 | 4,3 | 1,6 | 2,4 | | 2,7 | | 11,7 |
| EB | 3,3 | 3,5 | 6,0 | 5,7 | 6,1 | | **31,3** | **29,7** |
| PSE | 3,5 | 7,6 | **25,0** | **32,7** | 1,1 | 1,4 | 14,1 | 1,3 |
| PP | 0,5 | 0,5 | 4,7 | 0,5 | **48,3** | **39,7** | 7,8 | |
| UPyD | 0,5 | 2,9 | 8,8 | 3,0 | 9,8 | 6,4 | 3,4 | |
| EA | 5,3 | 5,6 | 0,6 | 2,5 | | 2,6 | 3,2 | 5,9 |
| EAJ/PNV=Aralar | 6,0 | 1,7 | | | | | | |
| EAJ/PNV=EA | 6,2 | 7,9 | | | | | | |
| EAJ/PNV=EB | 1,4 | 0,5 | | | | | | |
| EAJ/PNV=PSE | 0,9 | 6,6 | | | | | | |
| EAJ/PNV=PP | | 0,2 | | | | 3,6 | | |
| EAJ/PNV=UPyD | | 1,4 | | | | | | |
| PSE=EB | | | 11,0 | 15,2 | | | 2,2 | 13,3 |
| PSE=PP | | | 2,8 | | | | | |
| PSE=UPyD | | | 5,4 | 2,9 | | | | |
| PSE=EA | | | | 0,7 | | | | |
| PSE=Aralar | | | | 4,9 | | | | |
| PP=EA | | | | | | 2,6 | | |
| PP=Aralar | | | | | 2,3 | | | |
| PP=UPyD | | | | | 8,5 | 1,4 | | |
| EB=Aralar | | | | | | | | 12,8 |
| EB=EA | | | | | | | | 9,3 |
| EAJ/PNV=Aralar=EB | 0,3 | | | | | | | |
| EAJ/PNV=PSE=EB | 0,1 | 0,5 | | | | | | |
| EAJ/PNV=Aralar=EA | **23,2** | 1,7 | | | | | | |
| EAJ/PNV=Aralar=PSE | | 0,4 | | | | | | |
| EAJ/PNV=Aralar=EB | | | | | | | 1,2 | |
| EAJ/PNV=EB=EA | 0,9 | | | | | | | |
| EAJ/PNV=PSE=EA | 0,3 | 2,2 | | 0,7 | | | | |

| | EAJ/PNV | | PSE | | PP | | EB | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | NAZ. NAC. | IDE. | NAZ. NAC. | IDE. | NAZ. NAC. | IDE. | NAZ. NAC. | IDE. |
| **EAJ/PNV=PSE=UPyD** | | 1,9 | 0,2 | 0,5 | | | | |
| **EAJ/PNV=PP=UPyD** | | | | | | 3,6 | | |
| **EAJ/PNV=UPyD=EA** | 0,1 | 0,5 | | | | | | |
| **PSE=EB=PP** | | | 1,4 | | 3,0 | | | |
| **PSE=EB=UPyD** | | | 3,2 | 1,0 | | | 5,4 | |
| **PSE=EB=EA** | | | | 1,0 | | | | |
| **PSE=PP=UPyD** | | | 8,1 | | 3,4 | | | |
| **PSE=Aralar=EA** | | | 0,5 | 1,5 | | | | |
| **PSE=Aralar=EB** | | | | 8,6 | | | | 2,4 |
| **PSE=Aralar=UPyD** | | | | 0,3 | | | | |
| **PSE=PP=EA** | | | 0,2 | | | | | |
| **EB=Aralar=EA** | | | | | | | | 2,6 |
| **Beste aukerak** Otras opciones | 20,9 | 29,5 | 19,4 | 15,8 | 13,3 | 18,6 | 30,1 | 7,5 |
| **Guztira /** Total | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **Alderdi bakoitzak guztira** Total de cada formación | **60,3** | 46,2 | 57,7 | **70,1** | **65,5** | 51,0 | 40,1 | **70,1** |

Iturria: CIS. Autoreak eginda. / Fuente: CIS. Realizado por el autor.

**2012**

Berriro ere EAJ-PNVren datuen azterketatik hasita, aurreko deialdietan ez bezala, hauteskunde hauetan dimentsio nazionalistaren lehen aukera ez da gainontzeko alderdi abertzaleekin partekatutako distantzia minimoa izango, baizik eta EAJ-PNV bera era bakarrean (%35,3). Edozein kasutan, jelkideekiko zein EH Bildurekiko gutxieneko distantzia konpartitua sentitzen duen bozkatzaile kopurua lehenengo talde horretatik oso gertu dagoela nabarmendu behar da; %31,5re-

**2012**

Comenzando de nuevo por el análisis de los datos de EAJ-PNV, a diferencia de convocatorias anteriores, la primera opción en la dimensión nacionalista en estas elecciones no será la distancia mínima compartida con el resto de partidos abertzales, sino el propio EAJ-PNV de forma exclusiva (35,3%). En cualquier caso, cabe destacar que el número de votantes que siente una distancia mínima compartida, tanto con los jelkides, como con EH Bildu, está muy cerca de este primer grupo,

kin, hain zuzen. Ikuspegi nazionalistatik EH Bildurekin konpartitzen den ahaidetasun hori, ikuspegi ideologikoaren kasuan, ordura arte batez ere EArekiko gertutasunean islatu bazen, ordutik aurrera PSE-EErekin konpartitzen hasi zen; bozka-emaile jelkideen ia %20a azken hauekiko sentitzen zuelarik distantziarik txikiena eremu horretan.

Euskal nazionalismoaren eremuan, EAJ-PNVren bozkatzaileek gainontzeko alderdi abertzaleekiko sentitu zuten gertutasuna, antzeko eran ematen hasiko zen EH Bilduren bozkatzaileen artean. Izan ere, EH Bildu bere bozkatzaileen artean bi ardatzetan era bakarrean lehen aukera bezala nagusitu bada ere, ardatz nazionalistan jelkideekiko gertutasun nabarmena antzeman ahal izango da. Bai, bigarren aukera alderdi horrekiko gutxieneko distantzian ematen delako (%22,59); bai, bi alderdiekiko distantzia bera hautematen duten bozkatzaileen kopurua nabarmena delako (%20,47). Honek joera aldaketa suposatu zuen aurretik Ezker Abertzaleko bozkatzaileek jelkideekiko sentitutako gertutasunari dagokionez. Izan ere, adibidez, 2005eko hauteskundeetan EHAKko bozkatzaileen erreferentzia aintzat hartzen badugu, orduan soilik bere bozkatzaileen %2ak kokatzen zuen EAJ-PNV arestian aipatutako bi posizio hauetan (%11k alderdi abertzale ezberdinekiko distantzia berdina

con un 31,5%. Ese parentesco que desde el punto de vista nacionalista se comparte con EH Bildu, en el caso de la perspectiva ideológica, si hasta entonces se había reflejado sobre todo en la cercanía con EA, a partir de entonces empezó a compartirse con el PSE-EE; casi el 20% de los votantes jelkides percibía respecto a estos últimos la menor distancia en este eje.

En el ámbito del nacionalismo vasco, la cercanía que los votantes de EAJ-PNV sentían hacia el resto de las formaciones abertzales, se empezaría a sentir entre los votantes de EH Bildu. De hecho, si bien EH Bildu se ha impuesto de forma exclusiva entre sus votantes como primera opción en los dos ejes, en el nacionalista se podrá apreciar una notable cercanía con los jelkides. Sea, porque la segunda opción se da en la distancia mínima con este partido (22,59%); sea, porque el número de votantes que perciben la misma distancia entre ambos partidos es notable (20,47%). Esto supuso un cambio de tendencia respecto a la cercanía que habían sentido previamente los votantes de la Izquierda Abertzale hacia los jelkides. Y es que, por ejemplo, si tomamos en consideración la referencia de los votantes de EHAK en las elecciones de 2005, entonces solo el 2% de sus votantes situaba a EAJ-PNV en estas dos respectivas posiciones antes mencionadas (aunque el 11% de sus votantes percibía la misma distancia hacia los distintos parti-

hautematen bazuen ere). Ardatz ideologikoaren kasuan, esklusibotasuna are nabarmenagoa izango da, EH Bilduk berak bakarrik %70,1ko kopurua jasoz, "EHB=PSE" islatzen duen bigarren aukeratik oso urruti (%11,3). Plano horretan kopuru horren altua jaso izanaren arrazoia, berarekiko gertuago egon izan den EB-B, urte horretan ordezkaritza parlamentariorik lortu ez izana eta, ondorioz, distantzien kalkulutik kanpo gelditzea izan daiteke, ardatz ideologikoan gertuen gelditu zen aukera PSE-EE izanik. Edozein kasutan, aldaketa nabarmena antzeman ahal izango da ziklo honetan ardatz bakoitzak duen garrantziari dagokionez. Izan ere, datuak eskuragarri zeuden azken deialdian (2005an) ezker subiranistako bozkatzaileen artean abertzaletasunaren inguruko ardatza nagusitu bazen, 2012koan (eta hortik aurrerakoetan) ezker-eskuin ardatzean sumatutako gertutasuna gailenduko da.

PSE-EEri dagokionez, orain arte azaldutako joera nagusiak mantenduko dira. Bi ardatzetan bera bakarrik izango da lehen aukera; nazionalismoaren kasuan, espazio zabala konpartituz estatu mailako beste bi alderdiekin (%19,4), hau da, PP eta UPyD-rekin; eta ideologiaren kasuan, EH Bildurekin (%22,4). Azken kasu honetan ere, EB-B ordezkaritzarik lortu ez izanak ziur asko eragina izango zuen jasotako datuetan. Edozein kasutan, bi alderdien

dos nacionalistas vascos). En el caso del eje ideológico, la exclusividad será aún más evidente, recogiendo EH Bildu en solitario una cifra del 70,1%, muy lejos de la segunda opción que refleja "EHB=PSE" (11,3%). El hecho de que en dicho plano se haya recogido una cifra tan elevada puede deberse a que en ese año EB-B, que se ha había solido situar más cerca de él, no hubiese obtenido representación parlamentaria y, en consecuencia, hubiese quedado fuera del cálculo de distancias, siendo el PSE-EE la opción más cercana en el eje ideológico. En cualquier caso, se podrá apreciar un cambio sustancial en la importancia de cada eje en este ciclo. De hecho, si en la última convocatoria en la que los datos estaban disponibles (2005), se impuso el eje nacionalista entre los votantes de la izquierda soberanista, en la de 2012 (y a partir de ahí) prevalecerá la cercanía percibida en el eje izquierda-derecha.

En cuanto al PSE-EE, se mantendrán las principales tendencias expuestas hasta ahora. En ambos ejes él será la primera opción de manera exclusiva; en el caso del nacionalismo, compartiendo un amplio espacio con los otros dos partidos de ámbito estatal (19,4%), es decir, con PP y UPyD; y en el caso de la ideología, con EH Bildu (22,4%). También en este último caso, la falta de representación de EB-B probablemente habría influido en los datos recogidos. En

oinarrien arteko alderaketa eginez, bozkatzaile sozialistek koalizio soberanistarekiko sentitzen duten gertutasuna ardatz honetan, koalizio horretakoek alderdi sozialistarekiko sentitzen dutenaren bikoitza izango da.

PPren dimentsio nazionalistaren kasuan, aurretik ikusitako ez-ohiko joera bat emango da: lehen aukera bezala popularrekiko eta UPyD-rekiko distantzia berdina mantentzen duen bozkatzaile taldea lehen aukera bezala agertuko da (%40,2), PPrekiko era esklusiboan mantentzen dutenekin (%14,9) alde nabarmenera. Izan ere, Gorka Maneiroren taldeak euskal abertzaletasunaren kontra agertutako jarrera oldarkorrak bozkatzaile popularrak gerturatzeari bide eman ziola pentsa liteke, batzuek eta besteek konpartitu zezaketen bozkatzaileen esparrua zabala izanik. Esparru ideologikoan, PP bera era esklusiboan lehen aukera izango da (%32,7), baina berriz ere jelkideekiko gertutasuna bigarren aukera bezala azalduko da (%28,9); ikusi dugun moduan, EAJ-PNVren bozkatzaileen artean era berdinean konpartitzen ez den sentimendua. Bi ardatzen garrantzia aintzat hartuta, berriro ere dimentsio nazionalistarekiko sentitzen den gertutasuna ideologikoari gailenduko zaio era nabarmenean bozkatzaile popularren artean; %70,8 eta %44,3, hurrenez hurren.

cualquier caso, haciendo la comparación entre las bases de ambos partidos, la cercanía que los votantes socialistas sienten hacia la coalición soberanista en este eje, será el doble de la que los de esta coalición sienten hacia el partido socialista.

En el caso de la dimensión nacionalista del PP, se dará una tendencia no habitual que ya se ha visto con anterioridad: el grupo de votantes que mantiene como primera opción la misma distancia entre los populares y UPyD aparecerá como primera opción (40,2%), a una distancia significativa de los que la mantienen en exclusiva con el PP (14,9%). De hecho, se podría pensar que la actitud agresiva contra el nacionalismo vasco del grupo de Gorka Maneiro, dio paso a la aproximación de los votantes populares, con un amplio espacio de electores que podían compartir unos y otros. En el ámbito ideológico, el propio PP será en exclusiva la primera opción (32,7%), pero de nuevo la cercanía con los jelkides volverá a aparecer como la segunda opción (28,9%); un sentimiento que, como hemos visto, no se comparte de la misma manera entre los votantes de EAJ-PNV. Teniendo en cuenta la importancia de ambos ejes, la cercanía que se siente hacia la dimensión nacionalista vuelve a imponerse de forma notable a la ideológica entre los votantes populares, con un 70,8% y un 44,3%, respectivamente.

Taula 4. Alderdi ezberdinen 2012ko gutxieneko distantziak ehunekotan (%)

Tabla 4. Distancias mínimas de los diferentes partidos en 2012 en porcentajes (%)

| | **EAJ**/PNV | | **EH Bildu** | | **PSE** | | **PP** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** |
| **EAJ**/PNV | **35,3** | **35,1** | 22,6 | 1,5 | 1,6 | 3,0 | | 28,9 |
| **EHB** | 9,2 | 10,3 | **47,2** | **70,1** | 0,5 | 9,5 | 2,4 | |
| **PSE** | 10,2 | 19,8 | 4,5 | 8,6 | **41,2** | **48,9** | 8,3 | 10,8 |
| **PP** | 0,8 | | | | 4,6 | 0,4 | 14,9 | **32,7** |
| **UPyD** | 2,2 | 3,8 | | 0,5 | 4,1 | 5,9 | 6,6 | 3,5 |
| **EAJ**/PNV**=EHB** | 31,5 | 2,7 | 20,5 | 2,3 | | | | |
| **EAJ**/PNV**=PSE** | 4,4 | 9,8 | | | 0,9 | 0,7 | | |
| **EAJ**/PNV**=UPyD** | 0,8 | 5,0 | | | | | | |
| **EHB=PSE** | | | | 11,3 | | 22,4 | | |
| **EHB=UPyD** | | | 0,5 | | | | | |
| **PSE=PP** | | | | | 3,7 | | 1,4 | |
| **PSE=UPyD** | | | | | 8,1 | 5,0 | | |
| **PP=EAJ** | | | | | | | | 4,4 |
| **PP=UPyD** | | | | | | | **40,2** | 2,5 |
| **EAJ**/PNV**=EHB=UPyD** | 0,5 | | | | | | | |
| **EAJ**/PNV**=EHB=PSE** | 0,1 | 3,3 | 1,4 | 1,2 | | 1,0 | | |
| **EAJ**/PNV**=PSE=UPyD** | | 2,1 | | | | | | |
| **EAJ**/PNV**=UPyD=PP** | | 0,2 | | | | | | 4,7 |
| **EHB=PSE=UPyD** | | | | 1,6 | | | | |
| **PSE=EHB=UPyD** | | | | | | 3,2 | | |
| **PSE=UPyD=PP** | | | | | 19,4 | | 14,3 | |
| **Beste aukerak** Otras opciones | 5,0 | 8,0 | 3,4 | 3,0 | 15,8 | | 11,9 | 12,6 |
| **Guztira /** Total | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **Alderdi bakoitzak guztira** Total de cada formación | **72,6** | 58,1 | 69,6 | **86,5** | 73,4 | **81,2** | **70,8** | 44,3 |

Iturria: CIS. Autoreak eginda. / Fuente: CIS. Realizado por el autor.

**2016**

Jeltzaleen kasuan, ardatzen araberako kokapenari dagokionez, aurreko urteko joerak errepikatu ziren. Ardatz nazionalistan, bera bakarrik izango zen lehen aukera (%32,9), bera eta EH Bilduren arteko distantzia berdina partekatzen zutenak bigarren postuan kokatuz (%23,2). Ardatz ideologikoan, berriz, bera lehen aukera bezala agertuko zen (%32,5), baina PSE-EErekiko gertutasun nabarmena erakutsiz; izan berarekiko gertutasuna era esklusiboan sentitzen duten bozkatzaile kopuruagatik (%14,9), izan bien arteko gutxieneko distantzia konpartitzen dutenengatik (%14,2). Bi elementuak aintzat hartuta, euskal abertzaletasunarekiko atxikimenduak jarraituko luke indar handiago izaten bozkatzaile jelkideen artean.

EH Bilduren kasuan, 2012ko deialdian finkatutako joera berriak ere egonkortzen hasi zirela dirudi. Izan ere, dimentsio ideologikoaren garrantzia euskal nazionalismoarekiko gertutasunaren gainetik kokatuko bailitzateke berriro. Dimentsio ideologikoan, aldiz, EH Bildu lehen aukera bezala era esklusiboan kokatzen zuen hautesleriaren ehunekoak behera egin zuen; %70,1tik %39,84ra pasaz. Ziur aski ardatz ideologikoan bere posizio ezkertiarretik gertuago kokatzen den Elkarrekin Podemos-en agerpenak horretan zeresan handia izango zuelarik, 5. taulako datuek

**2016**

En el caso de los jeltzales, en cuanto a la ubicación por ejes, se repitieron las tendencias del año anterior. En el eje nacionalista, él sería la primera opción de manera exclusiva (32,9%), situándose en segundo lugar quienes compartían la misma distancia con él y EH Bildu (23,2%). En el eje ideológico, en cambio, él figuraría como primera opción (32,5%), pero mostrando una clara cercanía hacia el PSE-EE; ya sea por el porcentaje de votantes que sienten su cercanía hacia él de forma exclusiva (14,9%), ya sea por los que comparten la distancia mínima entre ambos (14,2%). Teniendo en cuenta ambos elementos, la adhesión al nacionalismo vasco seguiría teniendo una fuerza mayor entre los votantes jelkides.

En el caso de EH Bildu, parece que las nuevas tendencias establecidas en la convocatoria de 2012, también habrían comenzado a estabilizarse. De hecho, la importancia de la dimensión ideológica se volvería situar por encima de la cercanía al nacionalismo vasco. En la dimensión ideológica, en cambio, el porcentaje de electores que situaba a EH Bildu como primera opción en exclusiva descendió del 70,1% al 39,84%. Probablemente la irrupción de Elkarrekin Podemos, que se sitúa más cerca de su posición izquierdista en el eje ideológico, tendría mucho que ver con ello, como

erakutsi bezala. Emaitza hauek, ezker konfederalaren bueltan sortutako alderdi berriarekin plano honetan konpartitu zitzakeen bozkatzaileen garrantzia azpimarratuko lukete; bai era esklusiboan Elkarrekin Podemos-ekin identifikatzen ziren EH Bilduren bozkatzaileen portzentaiagatik (%12), bai bien artean arteko distantzia berdina hautematen zuten kopuru esanguratsuagatik (%29,4). Izan ere, baliatutako inkestek erakusten dute 2016an Elkarrekin Podemos bozkatutakoen artean, 2012an %13ak bozkatu zuela EH Bildu. Ardatz nazionalari dagokionez, EH Bildu bera lehen aukera bezala kokatuko da bere bozkatzaileen artean (%46,1), koalizioa bera eta jelkideak distantzia berdinera kokatzen dutenen kopurua ere esanguratsua izanik (%20,7).

Hauteskunde deialdi honetan Elkarrekin Podemos-i transferitutako bozkatzaileen kopurua are altuagoa izango litzateke PSE-EEren kasuan. Izan ere, inkesten arabera, lehenengoen bozkatzaileen %19ak alderdi sozialista bozkatu baitzuen 2012ko hauteskundeetan. Alderdi sortu berriaren bozkatzaileen lehen aukerak Elkarrekin Podemos bera izango dira bi ardatzetan. Bigarren aukerei erreparatuta, berriz, ardatz nazionalistaren kasuan estatu mailako beste bi alderdiekiko gertutasuna igarri ahal izango da, PSE-EE, PP, edota PSE-EE eta Elkarrekin Podemos distantzia berdinera, jasotzen duten auke-

muestran los datos de la tabla 5. Estos resultados destacarían la importancia del electorado que podría compartir en este plano con la nueva formación surgida en torno a la izquierda confederal; tanto por el porcentaje de votantes de EH Bildu que se identificaban en exclusiva con Elkarrekin Podemos (12%), como por el significativo número de votantes que percibían la misma distancia entre ambos (29,4%). De hecho, las encuestas muestran que entre el electorado de Elkarrekin Podemos en 2016, el 13% votó a EH Bildu en 2012. En cuanto al eje nacional, el propio EH Bildu se situará como primera opción entre sus votantes (46,1%), siendo también significativo el número de quienes sitúan a la propia coalición y a los jelkides a la misma distancia (20,7%).

El número de votantes transferidos a Elkarrekin Podemos en esta convocatoria electoral sería aún más elevado en el caso del PSE-EE. De hecho, según los sondeos, el 19% de los votantes de los primeros votó al partido socialista en las elecciones de 2012. Las primeras opciones de los votantes de la nueva formación serán la propia Elkarrekin Podemos en ambos ejes. En cuanto a las segundas opciones, en el caso del eje nacionalista se podrá apreciar la cercanía con los otros dos partidos de ámbito estatal, situándose en torno al 12-13% las opciones de PSE-EE, PP o la que recoge a la misma distancia a PSE-EE y Elkarrekin Pode-

rak %12-13ren bueltan kokatuko direlarik. Ardatz ideologikoaren kasuan, ezker subiranistarekiko hurbiltasuna aipatu beharko litzateke, bere bozkatzaileen laurdenak biak distantzia berdinera igartzen baititu. Bi dimentsioak aintzat hartuta ideologikoak jarraituko zuen lehentasuna izaten ezker konfederalaren bozkatzaileen artean; %75,57a, %54,13ren aurrean, hain zuzen.

mos. En el caso del eje ideológico, habría que aludir a la cercanía con la izquierda soberanista, ya que una cuarta parte de sus votantes percibía a ambas a idéntica distancia. Teniendo en cuenta las dos dimensiones, la ideológica seguiría siendo la prioritaria entre los votantes de la izquierda confederal; el 75,57%, frente al 54,13%.

Joera berdinari eutsi zion PSE-EEk, ardatz ideologikoa lehenetsiz nazionalistaren aurrean; %82,5 eta %52,5, hurrenez hurren. Azken honi dagokionez, arreta deitzen du PPrekiko gutxieneko distantzia era esklusiboan agertzen dela lehen aukera bezala (%29,3); akaso aurreko deialdietan alderdi sozialistari bozka emandako sektore federalistenen botoak Elkarrekin Podemos-era ihes egin izanaren ondorio izan zitekeena. Ezker-eskuin ardatzean, berriz, PSE-EEren oinarri elektoralaren erdiak baino gehiagok (%53,7) alderdia bera gertuen sentitzen duen aukera bezala agertuko da; ehuneko horretatik urruti (%11,3) hiru alderdi ezkertiarren arteko distantzia berdina agertuz bigarren aukera bezala.

La misma tendencia mantuvo el PSE-EE, primando el eje ideológico frente al nacionalista; 82,5% y 52,5%, respectivamente. Respecto a esta última, llama la atención el hecho de que la distancia mínima con el PP aparece de forma exclusiva como primera opción (29,3%); quizá como consecuencia de la fuga a Elkarrekin Podemos del voto de los sectores más federalistas, que votaron al partido socialista en anteriores convocatorias. En el eje izquierda-derecha, más de la mitad de la base electoral del PSE-EE (53,7%) plantea al propio partido como la opción más cercana de manera exclusiva; lejos de ese porcentaje, aparece la misma distancia entre las tres formaciones de izquierdas como segunda opción (11,3%).

Antzeko fideltasuna erakutsiko dute PPko bozkatzaileek euskal nazionalismoari dagokionez, bere alderdiaz antzemandako posizioaren kasuan; erdiak baino gehiagok (%56,7) bera aukeratuz lehen aukera bezala era esklusiboan. Ardatz ideologikoan, aurre-

Una fidelidad similar mostrarán los votantes del PP con respecto al nacionalismo vasco, en lo que se refiere a la posición percibida de su partido; optando por él más de la mitad (56,7%) como primera opción de manera exclusiva. En el eje ideológico, en la misma sinto-

ko deialdien sintonia berdinean, gertutasunak partekatuagoak egongo dira; batez ere, EAJ-PNV-rekiko, jelkideekiko gutxieneko distantzia lehen aukera bezala bere bozkatzaileen %17,1k planteatuz eta popularrak eta jeltzaleak distantzia berdinera kokatuz bozkatzaileen %22,6k. Era berean, orain arteko serie osoan ikusi bezala, nazionalismoarekiko ardatzean sentituko dute PPko bozkatzaileek gertutasun handiagoa bere alderdiarekiko (%78,9), ideologikoan baino (%65,4).

nía que las anteriores convocatorias, las cercanías estarán más compartidas; sobre todo, con respecto a EAJ-PNV, planteando como primera opción la distancia mínima con los jelkides el 17,1% de sus votantes, y situando a populares y jeltzales a la misma distancia, el 22,6% de los mismos. Asimismo, como se ha visto hasta ahora en toda la serie, los votantes del PP sentirán una mayor cercanía hacia su partido en el eje del nacionalismo (78,9%), que en el ideológico (65,4%).

Taula 5. Alderdi ezberdinen 2016ko gutxieneko distantziak ehunekotan (%)

Tabla 5. Distancias mínimas de los diferentes partidos en 2016 en porcentajes (%)

| | **EAJ/PNV** | | **EH Bildu** | | **E. Podemos** | | **PSE** | | **PP** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** |
| **EAJ/PNV** | **32,9** | **32,5** | 12,1 | 2,3 | 5,8 | 1,8 | 1,0 | 0,5 | 7,8 | 17,1 |
| **EHB** | 5,3 | 3,5 | **46,1** | **39,8** | 2,6 | 8,1 | 3,0 | 2,3 | | |
| **Pod** | 10,0 | 9,4 | 5,7 | 12,0 | **29,7** | **37,1** | 9,1 | 8,6 | 5,2 | |
| **PSE** | 8,8 | 14,9 | 2,5 | 3,2 | 13,1 | 10,0 | 24,2 | **53,7** | 8,1 | 10,9 |
| **PP** | 4,8 | 2,9 | 0,8 | 0,2 | 12,3 | | **29,3** | 1,3 | **56,7** | **35,1** |
| **EAJ/PNV=EHB** | 23,2 | 0,5 | 20,7 | 0,9 | | | | | | |
| **EAJ/PNV=Pod** | 2,8 | 1,1 | | | 1,4 | 1,8 | | | | |
| **EAJ/PNV=PSE** | 0,1 | 14,2 | | | | | 2,0 | 4,3 | | |
| **EAJ/PNV=PP** | | 1,9 | | | | | | | 2,6 | 22,6 |
| **EAJ/PNV=EHB=Pod** | 1,0 | 0,8 | 2,4 | 1,2 | 1,5 | | | | | |
| **EAJ/PNV=PSE=Pod** | 2,3 | 1,5 | | | 0,6 | 0,5 | 1,0 | | | |
| **EAJ/PNV=PSE=PP** | | | | | | | | 0,9 | | 6,5 |
| **EAJ/PNV=EHB=PSE** | 0,2 | 1,1 | | 0,3 | | | | | | |
| **EHB=PSE** | | | | 1,0 | | | 1,0 | 5,3 | | |
| **EHB=Pod** | | | 1,5 | 29,4 | 0,9 | 25,3 | 6,1 | | | |
| **EHB=PP** | | | 0,4 | | | | | | | |
| **PSE=Pod** | | | | | 12,0 | 5,9 | | 7,0 | | |

| | EAJ/PNV | | EH Bildu | | E. Podemos | | PSE | | PP | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** |
| **PSE=PP** | | | | | | | 11,1 | | 4,1 | 1,1 |
| **PP=Pod** | | | | | | | | | 2,6 | |
| **EHB=PSE=Pod** | | | | 6,0 | 0,6 | 4,5 | | 11,3 | | |
| **PSE=Pod=PP** | | | | | 7,3 | 0,5 | 7,1 | | 12,8 | |
| **Beste aukerak** Otras opciones | 8,5 | 15,7 | 7,7 | 3,8 | 12,1 | 4,5 | 5,1 | 4,8 | | 6,7 |
| **Guztira /** Total | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 |
| **Alderdi bakoitzak guztira** Total de cada formación | **62,6** | 53,6 | 71,2 | **78,7** | 54,1 | **75,6** | 52,5 | **82,5** | **78,9** | 65,4 |

Iturria: CIS. Autoreak eginda. / Fuente: CIS. Realizado por el autor.

## 2020

Urte honetako CISeko inkestak jasotako galderengatik (edo jaso gabekoengatik, hobe esanda) ezin izan da bi dimentsioen garrantziaren arteko alderaketatik egin[12]. Jasotako datuekin, berriz, ardatz ideologikoan alderdi bakoitzaren bozkatzaileen distantziak neurtzen jarraitu daiteke. Alde horretatik, azken deialdietan antzemandako joera nagusiak errepikatuko dira. Kasu ia guztietan bozkatutako alderdia bera izango da gertuen sentitzen dena, PPren kasuan salbu, EAJ--PNVrekiko gutxieneko distantzia era esklusiboan, lehen aukera izanik; bere bozkatzaileen %19,2a, hain zuzen. Beste alder-

12 Izan ere, CISek 90ko hamarkadaren erdialdetik aurrera egindako hauteskunde ondorengo inkestetan jasotako hainbat galdera jasotzeari utzi zion, nazionalismoaren ingurukoak kasu. Hasieran, alderdien kokapenari zegokiona ardatz honetan; eta ondoren, baita inkestatuen auto--kokapenari zegokiona ere.

## 2020

Por las preguntas recogidas (o, mejor dicho, por las no recogidas) en las encuesta del CIS de este año, no se ha podido hacer la comparación entre la importancia de las dos dimensiones[12]. Con los datos recogidos, en cambio, en el eje ideológico se pueden seguir midiendo las distancias del electorado de cada partido. En este sentido, se repetirán las principales tendencias detectadas en las últimas convocatorias. En casi todos los casos, será el partido votado el que se sienta más cercano, salvo en el caso del PP, con una distancia mínima respecto a EAJ-PNV en exclusiva, como primera opción; con el 19,2% de sus votan-

12 De hecho, el CIS dejó de recopilar varias preguntas recogidas en encuestas postelectorales realizadas a partir de mediados de los 90, como las que versan sobre el nacionalismo. Al principio, la referente a la ubicación de los partidos en este eje; y después, también la referida a la autoubicación de las personas encuestadas.

diekiko afinitateek orain arte-koen ildoa jarraitu zuten: EAJ--PNVrena PSE-EErekiko, era esklusiboan (%15,9) edo gutxie-neko distantziak partekatuz (%9,5); EH Bildurena Elkarrekin Podemos-ekin, era nabarme-nean bien arteko distantzia ber-dina igartzen duten bozkatzai-leen ehuneko esanguratsu batekin (%24,8); PSE-EErena EH Bildurekin, %13ak koalizio sobera-nista kokatuz gertuen duen lehen aukera bezala; eta Elkarre-kin Podemos-ena EH Bildurekin, bere bozkatzaileen ia heren ba-tek (%30,6) distantzia berdinera kokatuz biak.

tes. Las afinidades con otros partidos siguieron la misma línea que hasta ahora: la de EAJ-PNV con el PSE-EE, de forma exclusiva (15,9%) o compartiendo distancias mínimas (9,5%); la de EH Bildu con Elkarrekin Podemos, con un porcentaje de votantes notable, que perciben la misma distancia entre ambos (24,8%); la del PSE-EE con EH Bildu, situando el 13% a la coalición soberanista como la primera opción más cercana; y la de Elkarrekin Podemos con EH Bildu, situando casi un tercio de sus votantes (30,6%) a ambos a la misma distancia.

Taula 6. Alderdi ezberdinen 2020ko gutxieneko distantziak ehunekotan (%)

Tabla 6. Distancias mínimas de los diferentes partidos en 2020 en porcentajes (%)

| | **EAJ/PNV** | | **EH Bildu** | | **PSE** | | **E. Podemos** | | **PP** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** |
| **EAJ/**PNV | | **21,4** | | 1,9 | | 2,4 | | | | **19,2** |
| **EHB** | | 8,0 | | **54,7** | | 13,0 | | 14,6 | | |
| **Pod** | | 7,4 | | 8,1 | | 10,3 | | **33,9** | | |
| **PSE** | | 15,9 | | 2,9 | | **38,0** | | 4,9 | | 19,0 |
| **PP** | | 1,5 | | | | 0,7 | | 0,2 | | 17,8 |
| **Vox** | | 3,2 | | | | | | | | 7,7 |
| **EAJ/**PNV**=EHB** | | 3,3 | | 0,4 | | | | | | |
| **EAJ/**PNV**=Pod** | | 2,1 | | | | | | | | |
| **EAJ/**PNV**=PSE** | | 9,5 | | | | 5,2 | | | | |
| **EAJ/**PNV**=PP** | | 1,5 | | | | | | | | 15,5 |
| **EAJ/**PNV**=Vox** | | 2,2 | | | | | | | | |
| **EHB=PSE** | | | | 0,4 | | 4,2 | | | | |
| **EHB=Pod** | | | | 24,8 | | | | 30,6 | | |
| **PSE=Pod** | | | | | | 9,0 | | 6,7 | | |

| | **EAJ**/PNV | | **EH Bildu** | | **PSE** | | **E. Podemos** | | **PP** | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** | **NAZ.** NAC. | **IDE.** |
| **PSE=PP** | | | | | | 0,8 | | | | 2,1 |
| **PP=VOX** | | | | | | | | | | 7,1 |
| **EAJ**/PNV**=EHB=Pod** | | 0,5 | | | | | | | | |
| **EAJ**/PNV**=PSE=Pod** | | 0,8 | | | | 0,6 | | | | |
| **EAJ**/PNV**=EHB=PSE** | | 1,2 | | 0,4 | | | | | | |
| **EAJ**/PNV**=EHB=Vox** | | 0,4 | | | | | | | | |
| **EAJ**/PNV**=PSE=PP** | | | | | | 0,4 | | | | 2,8 |
| **EAJ**/PNV**=PSE=Vox** | | 0,8 | | | | | | | | |
| **EAJ**/PNV**=PP=Vox** | | 0,6 | | | | | | | | |
| **EHB=PSE=Pod** | | | | 3,0 | | 4,4 | | 8,6 | | |
| **PP=PSE=Vox** | | | | | | | | | | 2,5 |
| **Beste aukerak** Otras opciones | | 19,9 | | 3,4 | | 11,0 | | 0,5 | | 6,3 |
| **Guztira /** Total | | 100,0 | | 100,0 | | 100,0 | | 100,0 | | 100,0 |
| **Alderdi bakoitzak guztira** Total de cada formación | | 44,2 | | 83,6 | | 62,5 | | 79,9 | | 47,8 |

Iturria: CIS. Autoreak eginda. / Fuente: CIS. Realizado por el autor.

Ikuspegi orokor batetik, alderdi ezberdinetako bozkatzaileek, bere erreferentziazko alderdiari dagokionez, zer dimentsioetatik gertuen kokatzen diren argitzea aldera, 3. irudian ikusi daitekeen bezala, joera ezberdinekin aurkitu gaitezke. Orokorrean, alderdi ezberdinetako bozkatzaileek bere alderdiarekiko gertuago kokatu dira bi ardatzetako batean, denboran zehar gertutasun hori mantenduz. Horrela, EAJ-PNV eta PPren kasuan, ardatz nazionalista nagusituko da epealdi osoan zehar; eta, PSE-EE eta IU--EB/Podemos-en kasuan, ardatz ideologikoa. Iraunkortasun hori

Desde un punto de vista general, con el fin de clarificar las dimensiones más cercanas de las que se sitúan los votantes de los diferentes partidos en relación a su partido de referencia, como puede verse en la figura 3, podemos encontrarnos con tendencias diferentes. En general, los votantes de los diferentes partidos se han situado más cerca de su partido en uno de los dos ejes, manteniendo esa cercanía a lo largo del tiempo. Así, en el caso de EAJ-PNV y PP, predominará el eje nacionalista durante todo el periodo; y, en el caso de PSE-EE e IU-EB/Podemos, el eje ideológico. Esta

ez da mantenduko ezker independentistako bozkatzaileen kasuan. 2005ean, EHAKko bozkatzaileek abertzaletasunaren ardatzean bere alderditik gertuago kokatzen baziren, 2012tik aurrera, EH Bilduko bozkatzaileak ardatz ideologikotik gertuago kokatuko dira.

persistencia no se mantendrá en el caso de los votantes de la izquierda independentista. Si en 2005 los votantes de EHAK se situaban más cerca de su partido en el eje del nacionalismo, a partir de 2012, los de EH Bildu se situarán más cerca del eje ideológico.

Irudia 3. Alderdi ezberdinetako bozkatzaileen gutxieneko distantzien bilakaera (2005-2020)

Figura 3. Evolución de las distancias mínimas de los votantes de los diferentes partidos (2005-2020)




Autoreak egindа. / Realizado por el autor.

## 7.3. Alderdi politiko ezberdinen bozka osagaiak

Jarraian, urte bakoitzean alderdi bakoitzaren bozka osagaiak identifikatzeko eraiki diren erregresio logistiko ereduen koefizienteak azalduko dira, beraiek interpretatzeko beharrezkoak diren elementuak mahai gaineratuz.

### 2005

Deialdi honetarako eraikitako erregresio ereduei dagokienez, lehenik eta behin, kasu guztietan erakutsitako egokitze gaitasuna eta ia kasu guztietan azaldutako gaitasun esplikatzaile altuak aipatu behar dira. Azken honi dagokionez, Nagelkerke-ren $R^2$ koefizientea 0,6tik gorako balioetan kokatzen da alderdi ezberdinei dagokienez; salbu eta EB-Bren kasuan, non zerbait apaltzen den, 0,384ko koefiziente batekin.

Aldagai esplikatzaileen joera orokorrei erreparatuta, faktore sozio-demografikoen garrantzia alderdiaren araberako izango dela aipatu beharko litzateke. EAJ-PNVren kasuan, adibidez, gizonezkoek bera bozkatzeko aukera altuagoa izango luketela aipatu liteke. Posizio ezkertiarrenetan kokatzen diren bi alderdiak (EHAK eta EB-B) gaztetasunaren ezaugarria konpartituko dute; zenbat eta gazteagoa izan beraiek bozkatzeko orduan eta aukera handiagoa izanik. Aldiz, ez

## 7.3. Componentes de voto de los diferentes partidos políticos

A continuación, se exponen los coeficientes de los modelos de regresión logística construidos cada año para identificar los componentes de voto de cada partido, incluyendo los elementos necesarios para su interpretación.

### 2005

En cuanto a los modelos de regresión para esta convocatoria, en primer lugar, hay que mencionar la bondad de ajuste mostrada en todos los casos y las altas capacidades explicativas expuestas en casi todos. Respecto a esta última, el coeficiente $R^2$ de Nagelkerke se sitúa en valores superiores a 0,6 en los distintos partidos; salvo en el caso de EB-B, donde se modera algo, con un coeficiente de 0,384.

Atendiendo a las tendencias generales de las variables explicativas, habría que señalar que la importancia de los factores sociodemográficos dependerá del partido. En el caso de EAJ-PNV, por ejemplo, podría hablarse de una mayor probabilidad de voto masculino. Los dos partidos que se sitúan en las posiciones más izquierdistas (EHAK y EB-B) compartirán la característica de la juventud; teniendo mayor probabilidad de votar estas opciones, cuanto más joven se sea. En cam-

dute ikasketa mailaren inguruko konpartitituko; ikasketa mailan igotzeak EB-B bozkatzeko aukera handitzen duen bitartean, koefizienteek kontrako joera erakusten dute EHAKren kasuan.

Ebaluazio maila bat eskatzen duten aldagai psiko-sozialen garrantziari dagokionez, beraien pisua ere alderdiz alderdi aldatuko da. Adibidez, EAJ-PNV, EHAK eta PSE-EEren kasuan, Eusko Jaurlaritzaren kudeaketaren inguruko balorazioak garrantzia izango du beraiek bozkatzerako orduan; zentzu ezberdinekin, noski. EAJ-PNVri bozka ematearen orduan, zenbat eta balorazio txarragoa egin, bera bozkatzeko aukera orduan eta txikiagoa izango den bitartean, beste bi alderdiei dagokienean, norabidea kontrakoa izango da. Hau da, balorazio kaxkarragoa egiteak EHAK eta PSE-EE bozkatzeko aukera handituko du; koefizienteei erreparatuta, era nabarmenagoan EHAKren kasuan. Azken horren kasuan, aldagai askean (Eusko Jaurlaritzaren balorazio eskalan) ematen den unitate bakoitzeko hazkundeak ia hiru aldi t'erdiz biderkatuko du bera bozkatzeko aukera; PSE-EEren kasuan, aldiz, unitate bakoitzeko hazkundeak sozialistak bozkatzeko probabilitatea ia %50an handituko du[13]. Testuinguruaren

13 Ehuneko hauek aldagai bakoitzari dagokion beta esponentzial koefizienteetatik aterata daude, leku arazoengatik dagokion taulan sartuak ez daudenak. Era berean, gogoan izan behar da Eusko Jaurlaritzaren eta egoera ekonomiko eta

bio, no compartirán la variable relacionada con el nivel de estudios; mientras que tener estudios más cualificados aumenta la posibilidad de votar a EB-B, los coeficientes muestran una tendencia opuesta en el caso de EHAK.

En cuanto a la importancia de las variables psicosociales que requieren un nivel de evaluación, su peso también variará de partido a partido. Por ejemplo, en el caso de EAJ-PNV, EHAK y PSE-EE, la valoración de la gestión del Gobierno Vasco va a tener su importancia a la hora de votarlos; en diferentes sentidos, por supuesto. Mientras a la hora de votar a EAJ-PNV, cuanto peor se valore menor será la posibilidad de votarlo, en el caso de los otros dos partidos, el sentido será el contrario. Es decir, una valoración más desfavorable aumentará la posibilidad de voto a EHAK y a PSE-EE; atendiendo a los coeficientes, de manera más evidente en el caso de EHAK. En el caso de este último, el crecimiento por unidad en la variable independiente (escala de valoración del Gobierno Vasco) multiplicará por casi tres y medio la posibilidad de votarlo, mientras que en el caso del PSE-EE, el crecimiento por unidad aumentará en casi un 50% la probabilidad de votar a los socialistas[13]. Otras varia-

13 Estos porcentajes están extraídos de los coeficientes beta exponencial correspondientes a cada variable, que por problemas de espacio no están incluidos en la tabla correspondiente. Asimismo, hay que recordar que cuanto más altos sean los valores de la escala utilizada para las valoraciones del Gobierno Vasco, de la situación económica y

balorazioa eskatzen duten beste aldagaiek (EAEko egoera ekonomikoa eta politikoa), berriz, ez dute gaitasun esplikatzailerik erakutsiko erregresio eredu hauetan. Balorazio afektiboagoa eskatzen duten aldagaien kasuan, erantzuna bestelakoa izango da. Espero zitekeen bezala, alderdi bakoitzeko liderrarekiko iritziak kasu guztietan garrantzia erakutsiko du. Era berean, norberaren alderdiaren balorazio baikorragoak, norberaren alderdia bozkatzeko aukera zabalduko du. Faktore horrek alderdi bakoitzean duen pisua, ordea, ezberdina izango da. Ibarretxeren figurak EAJ-PNVko bozka-emaileengan duen garrantzia nabarmenduko da, beste alderdietako liderrek beste alderdiak bozkatzerakoan erakusten duten garrantziaren gainetik. Kasu honetan, bere balorazio eskalan puntu bat gora egiteak bitan biderkatuko du bera bozkatzeko aukera, beste alderdiekin alderatuta. Ziur aski, Gernikako Estatutua erreformatzeko egindako proposamenaren eskutik, bere irudiaren inguruan sortutako polemikak eragin handia izango zuen. Liderren balorazioari dagokionez, garrantzi txikiena erakutsi zuena bozka ematerako orduan EHAKren hautagaiarena izan zen, Nekane Erauskin; ziur aski, ordura arte proiekzio publikorik ez izatearen ondorioz.

bles que requieren una valoración del contexto (situación económica y política de la CAPV), en cambio, no mostrarán capacidades explicativas en estos modelos de regresión. En el caso de las variables que requieren una valoración más afectiva, la respuesta será distinta. Como era de esperar, la opinión sobre el o la líder de cada partido se mostrará importante en todos los casos. Igualmente, valoraciones más optimistas del propio partido, aumentará la posibilidad de votarlo. Sin embargo, el peso de este factor en cada partido será diferente. Se destacará la importancia de la figura de Ibarretxe en los votantes de EAJ-PNV, por encima de la importancia que tienen los y las líderes de otras formaciones a la hora de votar a esos otros partidos. En este caso, un aumento de un punto en su escala de valoración multiplicará por dos la posibilidad de votarle respecto a los otros partidos. A buen seguro, la controversia generada en torno a su figura, de mano de su propuesta de reforma del Estatuto de Gernika, tendría un gran impacto. En cuanto a la valoración de los líderes, la que menos importancia mostró a la hora de condicionar el voto fue la candidata de EHAK, Nekane Erauskin; probablemente, debido a su falta de proyección pública, hasta ese momento.

politikoaren balorazioetarako erabilitako eskalaren balioak zenbat eta altuagoak izan, orduan eta balorazio okerragoa adieraziko dutela. Horrela, ateratako koefizienteen balio negatiboek balorazio baikorragoei erreferentzia egingo diete.

de la situación política, peor valoración expresarán. Así, los valores negativos de los coeficientes extraídos harán referencia a valoraciones más positivos.

Aztertutako aldagaien artean garrantzia handiena erakutsi dutenak kokapen politikoa baloratzeko baliatutakoak izan dira; hau da, bozkatzaileen auto-kokapen nazionalista eta ideologikoa. Bata zein bestea, aldagai esplikatzaile esanguratsu bezala agertu dira alderdi ezberdinetan. Espero zitekeen bezala, euskal nazionalismoarekiko atxikimendu handiagoa erakusten duten bozkatzaileek alderdi abertzaleak bozkatzeko aukera handiagoa izango dute; era zerbait nabarmenagoan EHAKren kasuan. Zentzu berean, posizio ezkertiarragoetan kokatzen diren bozkatzaileak PSE-EE, EHAK eta EB-B bozkatzeko probabilitatea handiagoa erakutsiko dute; era agerikoagoan EHAKren kasuan ere bai. Berdin gertatuko da, baina kontrako zentzuan, posizio eskuindarragoetan kokatzen diren alderdien kasuan; eskuineragoko kokatzeak PP bozkatzeko aukera handitzen du, EAJ-PNVren kasuan baino gehiago. Popularren kasuan, eskalan unitate bat gora egiteak hiru aldiz handituko du beraiek bozkatzeko aukera, eta jelkideen kasuan bi aldiz.

Identifikazio nazionalek (Linz--Moreno) eta lurralde antolaketaren inguruko lehentasunek ere garrantzia erakutsiko dute, baina ez aurreko biak bezain beste. Identifikazio nazionalak bi alderdi bozkatzeko faktore esanguratsu bezala azalduko da. “Bakarrik euskal herritarra” kategoria erreferentzia bezala hartuta, ‘euskal

Entre las variables analizadas, las que más peso han mostrado han sido las utilizadas para valorar la ubicación política, es decir, la autoubicación nacionalista e ideológica de las personas votantes. Tanto una, como otra, han aparecido como variables explicativas significativas en los diferentes partidos. Como era de esperar, los votantes que muestren una mayor adhesión al nacionalismo vasco tendrán mayor probabilidad de votar a formaciones abertzales; de forma algo más evidente en el caso de EHAK. En el mismo sentido, los votantes que se sitúen en posiciones más izquierdistas mostrarán una mayor probabilidad de votar a PSE-EE, EHAK y EB-B; también de forma más evidente en el caso de EHAK. Sucederá igual, pero en sentido contrario, en el caso de los partidos que se sitúen en posiciones más derechistas; un posicionamiento más a la derecha, aumenta la posibilidad de voto al PP, más que en el caso de EAJ-PNV. En el caso de los populares, el aumento de una unidad en la escala aumentará tres veces la posibilidad de votarlos, y dos veces en el caso de los jelkides.

Las identificaciones nacionales (Linz-Moreno) y las prioridades sobre la organización territorial también mostrarán su importancia, pero no tanto como las dos anteriores. La identificación nacional se mostrará como un factor significativo para votar a dos partidos. Tomando como referencia la ca-

herritarragoa, espainola baino' aukeratzeak EAJ-PNV bozkatzeko aukera bi aldiz handituko du. PSE-EEri dagokionez, erreferentzia berdina erabiliz, 'espainiarra bezain euskal herritarra' aukeratzeak, bera bozkatzeko aukera hiru aldiz handituko du. Lurralde antolaketaren inguruko aldagaiari dagokionez, estatu zentralistaren kategoria erreferentzia bezala hartuta, EAJ-PNVren kasuan, autonomia handiagoa eskainiko lukeen estatu ereduaren alde kokatzeak bera bozkatzea errazagoa egingo du.

tegoría "sólo vasco/a", la elección de "más vasco/a que español/a" aumentará por dos la posibilidad de votar a EAJ-PNV. En cuanto al PSE-EE, con la misma referencia, la opción "tan español/a, como vasco/a" multiplicará por tres la posibilidad de votarlo. En cuanto a la variable relativa a la organización territorial, tomando como referencia la categoría de estado centralista, en el caso de EAJ-PNV, el posicionamiento a favor de un modelo de estado que ofreciera mayor autonomía hará más probable su voto.

Taula 7. Aldagai esanguratsuak alderdi ezberdinetako bozkatzaileen hauteskunde portaeran 2005ean

Tabla 7. Variables significativas en el comportamiento electoral de los votantes de los diferentes partidos en 2005

| | **EAJ-PNV** | **PSE-EE** | **PP** | **EHAK** | **EB-B** |
|---|---|---|---|---|---|
| **Adina /** Edad | | | | -0,037 ** (0,014) | -0,022* (0,01) |
| ***Sexua (erref. emakumea)*** Sexo *(ref. mujer)* | 0,618** (0,209) | | | | |
| **Ikasketak /** Estudios | | | | -0,215** (0,073) | 0,155** (0,051) |
| **Udalerria /** Municipio | | | | | |
| **Identifikazio nazionala** *(erref. bakarrik euskal herritarra)* **Identificación nacional** *(ref. sólo vasco)* | | | | | |
| **Bakarrik espainiarra /** Solo español/a | | | | | |
| **Espainiarra > euskal herritarra** Español/a > vasco/a | | | | | |
| **Espainiarra = euskal herritarra** Español/a > vasco/a | | 1,118* (0,482) | | | |
| **Euskal herritarra > espainiarra** Vasco/a > Español/a | 0,843** (0,278) | | | | |

| | EAJ-PNV | PSE-EE | PP | EHAK | EB-B |
|---|---|---|---|---|---|
| **Auto-kokapen nazionalista** Autoubicación nacionalista | 0,348*** (0,059) | -0,263*** (0,052) | -0,44*** (0,098) | 0,444*** (0,09) | -0,369*** (0,065) |
| **Auto-kokapen ideologikoa** Autoubicación ideológica | 0,713*** (0,081) | -0,253*** (0,073) | 1,088*** (0,156) | -0,873*** (0,148) | -0,335*** (0,101) |
| **Lurralde antolaketaren lehentasunak** *(erref. Autonomiarik gabe)* **Prioridades organización territorial** *(ref. Sin autonomía)* | | | | | |
| **Egungoen moduko Erkidegoak** Comunidades como las actuales | | | | | |
| **Autonomia handiagoa** Mayor autonomía | 3,078* (1,541) | | | | |
| **Independizatzeko aukera** Posibilidad de independizarse | | | | | |
